



Atzoko tresnak, jakintzaren transmisio gaur

Joxe Mari Aizegari elkarrizketa, Basque Culinary Center- ez



PEDALEI ERAGIN, ORAINGO PENTSIOAK DUINDU ETA GEROKOAK BERMATZEKO

Gipuzkoako pentsiodunen bizikleta martxa Debagoienera heldu da, eta Donostian bihar izango den mobilizazioan parte hartzeko dei egin dute / 4

Eguaztenean Debagoiena zeharkatu zuen bizikleta martxan parte hartu zuten pentsiodunak, Arrasateko plazan, eguerdian egin zuten geldialdian. IBAI ZABALA

'Hamaika gara' ekimenak 300 sinadura batu ditu, erabakitzeko eskubidearen alde / 3

SINADURAK

	IKER CARRASCO MENDEZ / 18
	AITOR BIAIN BIDARTE / 6
	ELIAS ZUMALDE / 33
	JOHANNA SANCHEZ / 10
	AGURINE BARRUSO / 46

Otalora Lizenziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multioplicas.com


MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	16	28	3.062	138,66	235,49
Aramaio	9	0	167	112,84	608,11
Bergara	6	11	1.575	104,75	139,66
Aretxabaleta	6	7	783	110,59	197,74
Oñati	4	4	1.365	119,03	69,76
Antzuola	3	3	236	108,31	275,36
Eskoriatza	1	2	395	96,27	73,12
Elgeta	0	0	64	56,59	0
Gatzaga	0	0	9	36,00	0
GUZTIRA	45	55	7.656	118,13	174,35

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Bigarren dosia ere AstraZenecarena izateak moteldu egingo du txertaketa

Positibo berrien kopuruak beheraka egiten jarraitzen du, joerak apaltzera egin duen arren; azken egunetan 45 kutsatu hauteman dituzte. AstraZeneca konpainiaren lehen dosia hartu eta bigarrena ere etxe berekoa gura dutenek itxaron egin beharko dute

Maialen Santos ARRASATE

Koronabirus kasu positibo berriek beherazko joeran jarraitzen dute EAEn eta Debagoienean, nahiz eta joerak apaltzera egin duen. Hain zuzen, 45 kutsatu berri baieztatu dituzte azken zazpi egunetan, joan den astean baino hamar gutxiago (-55 izan ziren). Hala, pandemia hasi denetik, 7.656 lagun kutsatu ditu birusak.

Herrika, Arrasate izan da positibo gehien izan dituen herria (16), eta nabarmentzekoa da, bestalde, Aramaion bederatzit positibo izan dituztela azken egunetan -joan den astean ez zen kasurik izan-. Herri horretako intzidentzia-tasa, beraz, 400ndik gorakoa zen atzo (608,11). Debagoieneko tasa, bestetik, 174,35ean kokatu zen. Lurraldekin alderatuta, Gipuzkoa eta Bizkaikoaren azpitik dago eskualdekoa, baina Araba eta Nafarroakoa baino altuagoa da.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, bi pertsona zeuden atzo birusak jota ingresatuta.

TXERTAKETA-KANPAINA

PFIZER HARTU EDO ASTRAZENECA HARTZEKO ITXARON

AstraZenecaren lehen dosia hartu eta bigarrenaren zain daudenei deitzen hasi da asteon Osakidetza, Pfizer hartzea onartzen dutenak txertatzen hasteko asmoz. Bigarren dosia AstraZenecarena hartu gura dutenei dagokionez, Sagarduik azaldu du jakitun izan behar dutela "erabaki nagusia

ez den bat hartzeak dakarrenaz". Haren esanetan, bigarren dosia AstraZenecarena izateak "txertaketa-kanpaina moteltzea dakar". Horretarako, gainera, dokumentu bat sinatu beharko da. Pertsona horiek "beste agenda batean" sartuko direla esan du, baina ez du zehaztu noiz jasoko dituzten txertoak.

Maiane Barrena irakasle oñatiarra da Osakidetzaren deia jaso duenetako bat. "Bigarren dosia zein etxetakoa hartu zailantzen nengoan, baina esan didate AstraZenecaren dosi gutxi daudela, eta, txertoa ziurtatzeko, Pfizerrena jartzea erabaki dut". Egoera berdintsuan dago Aitziber Askasibar hezkuntza bereziko hezitzaile elgetarra. "Nahiago izan dut itxaron, eta AstraZenecaren bigarren dosia

hartu, nahiz eta ez dakidan noiz iritsiko zaidan", zehaztu du.

Bestetik, Lurralde Arteko Osasun Batzordeak asteon egin dako bileraren ostean, iragarri dute uztailaren 1ean jarriko dutela indarrean osasun-pasaporteak; Europako Batasunean bidaiatzea ahalbidetuko duen ziurtagiri digital berdea, alegia. Horretarako, Aitor Montes Aramaioko familia-medikuak ohartarazi du "arriskutsua" dela herritarrek medikuengana jotzea ziurtagiri eske: "Asteon, paziente bat etorri zait horri buruz galdezka. Jendeak jakin behar du administrazioaren ardura dela hori; izan ere, medikuak horretara jartzen bagara, gaixok itxaron egin behar

dute, eta gure lehen tasuna gaixok artatzea da".

LABI BATZORDEA

OSTALARITZAKO NEURRIAK ARINTZEA AZTERTUKO DU LABI-K

LABIren Aholku Batzordea astelehen arratsaldean elkartuko da, pandemiaren bilakaera aztertuko eta indarrean dauden neurriak arindu ala ez berrikusteko.

Pandemiaren bilakaeraren arabera erabakiak hartuko dituztela azpimarratu dute agintariek. Egoerak hobera egin duela ondorioztatzen badute, ostalaritzako neurriak malgutzea erabaki dezakete.

Arakatzailleek "une lasaia" bizi dute

Debagoieneko ESko arakatzaileren koordinatzaile Joserra Bardecik adierazi du "aste lasaia" bizi dituztela. Alarma-egoera bertan behera geratu izanak harreman sozialen gorakada eragin du, eta, beraz, uste du datozen asteetan kasu berriek gora egitea "posible" dela. Ildo horretatik, txertaketa-kanpainak "izugarri" laguntzen diela adierazi du Natalia Oliveira arakatzailleak, adineko pertsonengan kutsatze gutxiago baieztatzen dituztelako: "Halere, garrantzitsua da jendeak jakitea txertoa hartuta egoteak ez duela esan gura konfinamenduak ekidin daitezkeenik". Mugikortasuna baimenduta dagoenetik hainbat ESirekin harremanetan daudela gaineratu du Ramon Sanchez arakatzailleak: "Erkidego barruko nahiz kanpoko arakatzailleekin elkarlanean jarduten dugu".

Bizikleta martxa egingo du Sarek presoen alde

'Ibilian ibilian etxerako bidean' dinamika jarri du abian Sarek, "bizikidetzan aurrera egiteko" helburuarekin. Domekan ekingo diote kanpainari, Oñatitik Elgoibarrerainoko ibilbidea eginda. Datozen hilabeteetarako ere ekintza ugari antolatu dituzte

Maialen Santos OÑATI

Euskal presoek elkartzasuna adierazi eta horien etxeratzea eskatzeko maiatzaren 8an Euskal Herriko tontorretan 15.000 lagun batu ostean, Sarek abian du udara begirako ekimen berria, *Ibilian ibilian etxerako bidean* lelopean egingo duten dinamika, hain justu ere. Pili Garcia Sareko kideak adierazi du aurreantzean antolatuko dituzten martxa eta eronken bitartez eragin gura dutela herritarrengan: "Bizikidetzan aurrera egiteko salbuespenezko espetze politika amaitzea ezinbestekoa dela jakinik, eta, horretarako herritarren bultzada beharrezkoa izanik, euskal herritarrek ibilian jarri gura ditugu".

Domekan, bizikleta martxa

Debagoiena eta Debarrena izango dira Euskal Herri mailako dinamikaren barruan lehen mobilizazioak hartuko dituztenak. Hala, domeka honetan Oñati eta Elgoibar arteko bizikleta martxa egingo dute. "Ekainaren 5erako eta 6rako, bailarako herri gehienetan hainbat ekimen antolatu ditugu; besteak beste, Unai Parot presoaren aldeko Arrasateko bertso saioa eta Aretxabaletako mosaiko koloretsua", zehaztu du.



Ibilian ibilian kanpainaren aurkezpena, martitzenean, Oñatin. TXOMIN MADINA

Bizikleta martxari dagokionez, 2019ko urrian egindakoaren kontrako norabidean egingo dute: Oñatin hasiko da, goizeko hamarretan, eta Elgoibarren bukatu, 13:00etan egingo duten ekitaldi batekin. Ibilbidean zehar, gainera, geldialdia egingo dute Bergaran, hamarretakoa egiteko.

Sareko kideek mobilizazioen berri emateko Oñatin egindako agerraldian, bi bailaretako hiru euskal presoren egoerak nabarmendu dituzte. Salatu dutenez, salbuespenezko espetze politika aplikatzen zaiolako larri gaixo

dagoen Gotzon Telleria oñatiarra kartzelan dago oraindik, 75 urterekin preso jarraitzen du Joseba Arregi oñatiarrak eta Sebas Etxaniz elgoibartarra, bestalde, 78 urterekin etxean dago, baina eskuko telematikorekin.

Asteburu honetan eta hurrengoan egingo diren mobilizazioez gain, bestelako hainbat martxa eta ekimen ere izango dira euskal Herri osoan datozen hilabeteetan; eta urriaren 23an Donostian egingo duten mobilizazioarekin emango diote amaiera kanpainari.



Maiatzaren 15ean Antzuolan egindako sinadura bilketa. IMANOL SORIANO

'Hamaika Gara' ekimenak 300 sinadura batu ditu eskualdean

Herrietan jarritako mahaietan jaso dituzte orain arte, baina webgunearen bitartez ere sina daiteke

M.S. ARRASATE

Erabakitze eskubidea gauzatzearen aldeko jarrera nagusia ikusarazteko sinadura bilketa egiten dihardute Gure Eskuk eta hainbat eragilek, *Hamaika gara* ekimenaren baitan, "erreferendum loteslea lortzea izanik helburua". Hain zuzen, COVID-19ak bete-betean harrapatu zuen ekimen hori, eta orain, "lozorrotik" atera eta hauspoa eman gura diote berriro ere.

Herritarren atxikimendua

Azken asteetan sinadurak bilteko mahaiak jarri dituzte Debagoieneko zenbait herritan, eta denera 300 sinadura inguru batu dituztela azaldu du Gure Eskuko kide Lierni Olmedok. Arrasaten 90 sinadura inguru batu dituzte, Bergaran eta Antzuolan 50na eta Aretxabaletan, aldiz, 100. "Balorazio positiboa egiten dugu; izan ere, pandemiaren

ostean lehen zeregina izaten dugu jendeari azaltzea zein den gure helburua", zehaztu du. "Maila nazionalen", bestetik, 15.000 sinadura inguru batu dituzte orain artean. Edozelan ere, gehitu du datozen hilabeteetan ere sinadura bilketarekin aurrera jarraituko dutela: "Sinadurak jasotzen ditugu paperean, baina, bereziki, telematikoki ari gara jasotzen". *Hamaikagara.eus* webgunean dago sinatzeko eta informazioa eskuratzeko aukera, hain zuzen.

Uztailaren 3an ekitaldi nagusia egingo dute, Bilbon: "Bertan, alde politikoa eta kulturala uztartuko ditugu, eta jendearen parte-hartzea eskatu". Behin jendearen atxikimendua lortuta, EA Eren kasuan, Eusko Legebiltzarrean erreferendum "legal eta lotesle" bat egiteko aldarria egitea da dinamikako bultzatzaileen asmoa.

arizmendi
ikastola PRO

AURREMATRIKULAZIOA
Maiatzak 31 - Ekainak 18

www.arizmendipro.eus

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

943 77 20 25
arizmendi@arizmendi.eus

GIKAI (Kirol animazioaren irakaskuntza)

ERIZAINZAKO ZAINTZA OSAGARRIAK

MIKROINFORMATIKA

OSASUN LARRIALDIK



Eguaztenean Bergaran egindako ekitaldiaren une bat. XABI URZELAI

Eskualdean geldialdia eginda, bihar emango diote amaiera martxari

Eguaztenean iritsi da Gipuzkoako pentsiodunen bizikleta martxa Debagoienara; Oñatira, zehazki. Hainbat herritatik igaro ostean, Bergaran egin diete harrera-ekitaldia. Bihar Donostian egingo dute mobilizazioan parte hartzeko dei egin dute

Maialen Santos BERGARA

Gipuzkoako pentsiodunek bizikleta martxa egiten dihardute, *Pentsio publiko duinak! Murrizketarik ez!* leloarekin. Maiatzaren 24an, astelehenean, abiatu zen, Errenterian, eta bihar, zapatua, amaituko da, Donostian.

Erretiratuen martxak lurraldeko herri ugari zeharkatu ditu, eta, tartean, Debagoienean egin du geldialdia. "Onartezina da hiru urteko mobilizazioekin lortutakoa arriskuan egotea, eta pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta nahikoak bermatzeko urrats irmorik ez egitea", salatu dute eskualdeko pentsiodunek. Hala, enegarrenez egin dizkiete eskakizunak agintariei, eta, besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea, genero arrakala ezabatzea eta pentsio eta lan erreformen "alderdi atzerakoak" indargabetzea

eskatu dute. "Pentsioak murrizten ari diren erreformek bere horretan jarraitzen dute, eta murrizketa berriei atek irekitzen dizkiete", salatu dute.

Harrera, Bergaran

Pentsiodunen martxa Oñatira ailegatu zen eguaztenean, Zumarragatik. Foruen plazan mokadutxoak izan zituzten, indarrak berreskuratzeke, eta horren ostean ekin zioten Arrasaterako bidetara, herri horretan bazkaltzeko geldialdia egiteko asmoz. Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere izan ziren arratsaldean, eta

"ERAKUTSI NAHI DUGU ARAZO HAU EZ DELA PENSIODUNENA BAKARRIK, HERRITAR GUZTIENA DA"

Antzuolara iritsi ziren jarraian. Eguneko ibilbidea Bergaran bukatu zuten, San Martin plazan egindako ekitaldiarekin. Itziar Usandizaga herriko pentsiodunen bozeramaileak gidatu zuen saioa, eta azaldu herritarrengan eragitea duela helburu martxak: "Propaganda eginez, herritarrek kontzientzia hartzea da asmoa, eta, bide batez, erakutsi nahi dugu arazo hau ez dela pentsiodunena bakarrik; herritar guztiena eta atzetik datozenena ere badelako, hain justu".

Bergarako herritarrek, pentsiodunek eta eragileek ongietorria egin zieten txirrindulariei, trikiti eta pandero doinu artean. Gorka Artola Bergarako alkateak hartu zuen hitza, jarraian, pentsiodunei babesa erakusteko; eta bertsoak abestu zizkieten erretiratuei Maite Aristegik eta Garikoitz Lope de Munainek.

Jesus Maria Soubies pentsioetan adituak hizketaldi laburra egin zuen horren ostean, eta gero, performancea egin zuten, Martxanterak talde feministako kideez lagunduta. Denok batera abestuz amaitu zuten ekitaldia.

"Giro ona" nagusi

Egunean zehar "giro ona" nagusi izan zela azaldu diote GOIENARI martxan parte hartzen diharduten Mila eta Justina Elexpuru ahizpa bergararrek. "Bizikleta-zaleak gara, eta, gainera, hiru urteotako borrokak bultzada merezi duela uste genuen. Horregatik erabaki genuen martxara batzea", azaldu dute. Zehazki, Tolosan batu ziren ibilbidera: "Bi etapa egin ditugu orain artean: Tolosatik Zumarragara bata, eta Zumarragatik Bergarara bestea. Herri bakoitzean izugarriko harrera egin digute". Jokin Aranalde tolosarrak hasieratik dihardu pedalei eragiten, eta adierazi du "animoa" eta "osasuna" alde izanez gero, Donostiaraino heltzeko asmoa duela. "Elkartasun handia sumatu dut txirrindularien artean, eta gainerako pentsiodunen animoak ere iristen ari zaizkigu", aitortu du. "Duintasunez bizitzeko baldintzak behar ditugulako batu naiz aldarrietara; pertsona guztiok merezi dugulako duintasunez bizi eta zerbitzu publikoez gozatu ahal izatea".

Serafin Quintana ere izan zen harrera-ekitaldian, nahiz eta

hura ez zen bizikleta gainean iritsi. "Pentsio sistema geroz eta okerrago doala uste dut. Emaztea eta biok erretiratuta gaude, baina ikusten dut seme-alaben etorkizuna ez dagoela bermatuta, eta horregatik batzen naiz aldarrikapenetara", aitortu du.

Bergarako Sierbetan atsedean hartu ostean, atzo goizean utzi zuten Debagoiena atzean. Sorluzerako noranzkoan abiatu ziren, Debaraino iristeko asmoz. Herri horretatik Usurbileraino iristekoak dira gaur, eta bihar, Donostian amaituko dute martxa.

Manifestaziora joateko deia

Pentsiodunen Mugimenduak deituta, manifestazioak egingo dituzte bihar Hego Euskal Herriko hiriburuetan, pentsio publiko "duinak" eta "bidezkoak" eskatzeko. Xabier Oregi Oñatiko mugimenduko kideak eskualdeko herritarrei dei egin die horretan parte hartzeko: "Gipuzkoarrak Donostiara joango gara, 17:00etan egingo den mobilizazioan parte hartzerako". Debagoieneko herritatik autobusak antolatu dituzte hiriburura joateko, eta herri bakoitzeko mugimenduko kideekin harremanetan jarrita erreserbatu daiteke lekua. Arrasatetik 15:00etan irtengo da autobusa, eta 15:30ean oñatiarrak jasoko dituzte. Antzuolarrak, bestalde, 15:15ean batuko dituzte, eta, azkenik, Bergaratik 15:30ean pasako da autobusa.

Belaunaldien arteko konpromisoa

Jesus Mari Soubies Pentsionistak Araba taldeko kidea Bergarako ekitaldian izan zen, pentsioen etorkizunari buruz hizketan; eta eskualdera bisita aprobetxatuta, Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan ere izan zen.

Adierazi zuen pentsioen sistema publikoak 1970eko hamarkadan izan zuela bultzadarak handiena: "Gure belaunaldiak lortu zuen sistemak egun duen balioa harrezan. Hirukoiztu egin ziren pentsioak, eta baita soldatak igo ere". Edozelan ere, sistemak egun gabezia asko dituela salatu zuen: "Oraindik ere asko dago hobetzeko; besteak beste, beharrezkoa da gutxieneko pentsioa igotzea, eta baita genero arrakala ezabatzea ere". Gazteei buruz esan zuen "zatituta" daudela, eta askok prekarietatea pairatzen dutela: "Belaunaldien arteko konpromisoa ezinbestekoa da orain".



Jesus Mari Soubies. M.S.

Soraluce eta Lazpiur, barne ekintzailtzarako lanean

Gipuzkoako sei enpresatan abiatuko du proiektua Aldundiak, ekintzailtza orokortzeko "ezagutza eta jardunbide egokiak sortzeko" helburuarekin. Mondragon Unibertsitateak ere parte hartuko du proiektu pilotuan, bestelako aholkularitza enpresa batzuekin batera

J.O./U.I. BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ikerketaren arabera, industria arloko enpresa txiki eta ertainen %80k ez dute esperientziarik barne ekintzailtzako praktikan eta jardueretan. Egoera horretan, *Gaitzen* programa abiatu du Aldundiak, datuak Europako Batasuneko batez bestekora gerturatzeko asmoz: "EAEko barne ekintzailtzako jarduerata %1ekoa da eta Europakoa, %5,8koa".

Familia enpresak nagusi

Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneak diputatu Jabier Larrañagak azaldu duenez, Gipuzkoako enpresen gehiengo "txikiak" dira: "Oro har, enpresa txikiak dira, familiakoak, negozio edo teknologia bakar batean zentratuak, produktu propioak gabeak eta beste batzuek azpikontratatu lan egiten dutenak, hornitzaile gisa, eta abar".

Gipuzkoako ia 60.000 enpresen %99k 50 langile baino gutxiago dituztela azaldu du Aldundiak, eta enpleguaren %62 biltzen dute. Guztira, 4.500 ETE baino gehiago daude Gipuzkoan, eta horietatik 1.200 inguru industria arlokoak dira. Erdiek hogeita langile baino gutxiago dituzte.



Bergarako Soraluce enpresaren lantoki bat barrutik. GOIENA

280.000 euroko aurrekontua

Lurraldeko sei enpresatan garatuko da proiektua -tartean, Bergarako Lazpiur eta Soraluce enpresetan-, eta Mondragon Unibertsitatean, aholkularitza enpresak eta ekintzailtzari laguntzeko ekosistemako eragileak ere ariko dira laguntzaile gisa. Hain zuzen ere, Mondragon Unibertsitateak negozio berrien sorrerarako prestakuntza eman du proiektuaren baitan.

"Proiektuaren helburua da enpresei metodologia bat ematea. Horretarako, ibilbide-orri bat

zehaztuko da, berrikuntza kon-tuan hartuko duena maila gut-tietan, negozio lerro edo unitate berriak edota enpresa berriak sortzeko", azaldu du Larrañagak. Guztira, 280.000 euroko aurre-kontua izango du programak.

Aurretik datorren lana

Programarekin, Aldundiak "urrats berri bat" egin nahi du ekintzailtzean; izan ere, aurretik daukan Barnetekin programaren bidez laguntzak ematen dira barne ekintzailtza korporati-botik enpresak sortzeko.

Iraunkortasun estrategia onartu du Fagor Taldeak batzar nagusian

Asteon egin du Fagor Taldeak 2021eko batzar nagusia, eta "egokitzeko eta berritzeko gaitasuna" azpimarratu

J.O. ARRASATE

Eguaztenean egindako batzar nagusian, 2020ko ekitaldiaren balorazioa, COVID-19aren testuingurua eta aurrera begira Fagor taldeak dituen erronkak izan zituzten hizpide. Pandemiak eraginda urte "konplikatu" izan dela azaldu du Fagor Taldeko lehendakari Joxean Alustiza Usandizagak: "Ez da urte erraza izan. COVID-19ak ezezagun dugu testuinguruan gauza. Dena den, esango nuke egoera berri-tara egokitzeko gaitasuna era-kutsi dugula, geure jarduna uanean unekora moldatzeko. 2020koa ekitaldi konplikatu izan den arren, gure bazkideek egindako ahaleginei esker urtea emaitza txukunekin bukatzea lortu dugu".

Emaitzak, "apalagoak"

COVID-19ak baldintzatuta, aurreko urtean baino "apalagoak" izan dira emaitza ekonomikoak; 1.260 milioi euroko salmentak izan ditu Fagor Taldeak, eta 28,4 milioi euroko irabaziekin bukatu du urtea. Guztira, 5.009 lanpostu izan ditu Euskal Herrian, eta 10.000tik gora, atzerriko plantak aintzat hartuta.

"COVID-19aren eragina ez da ustekabea pasa. Egoera konplikatuak bizi izan genituen konfinamenduaren gogorrean, eta ziurgabetasun handia izan dugu urte osoan zehar. Dena den, une gordinetan ere, aurrera begira jarraitu dugu, egoerara moldatzeko beharrezkoak

izan diren neurriak hartu eta etorkizuneko apustuei eutsiz".

Konpromisoak hartuta

Azken hilabeteetan landutako Fagor 2030 iraunkortasun estrategia proposamena onartu zuen Fagor Taldeak. Horrenbestez, *Etorkezuna hobetzeko lanean* lelopean, bost konpromiso nagusi hartu ditu taldeak hamarkada honi begira: negozioak eraldatzea; ekonomia digital, deskarbonizatu eta zirkular baten testuinguruan enplegua sortzen segitzea; gobernantza eredu demokratikoa hobetzen eta garatzen jarraitzea; testuinguru egokiak sortzea pertsonek euren onena eman dezaten; klima larrialdiari aurre egiteko karbono aztarna murriztea; eta lurraldearen eraldaketan inplikatzeko.

Lau milioi euro, komunitateari

Azken urtean izandako irabazi guztien artetik, baina, 4.067.653 euro komunitatera bideratu ditu Fagor Taldeak, IPDK fondotik. Komunitatearen garrantzia azpimarratu nahi izan du taldeko lehendakariak: "Komunitatetik sortu ginen, haren parte gara eta hari ekarpena egitea dago-kigu".

Debagoiena 2030ek, kooperatibetako euskara planek, Giza-bidea Fundazioak, Mondragon Fundazioak, Mundukide Fundazioak eta hainbat interkooperazio proiektuk jasoko dute Fagorren laguntza.

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN AURREMATRIKULA

Etorkezuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

ARETXABALETAN

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/f - 22 Pl. • 20550 ARETXABALETA
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
la@aretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN

Miguel Altuna LHII Bergara
Agiribidea, 2 • 20570 BERGARA
☎ 943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN

Oñati Institutua
Larrea auzoa, 16 • 20560 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2021-2022 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA: Maiatzaren 31tik ekainaren 18ra



ZABALIK

AITOR BIAIN BIDARTE

Beldurraren eta itxaropenaren inguruan, nagikeria

Garai onak datoz / Edonon entzuten dut / Garai onak datoz / Baina ziur astiro datozela. Neil Youngek idatzi zuen, 1974an, eta *Vampire Blues* abestiaren letraren zati da.

Alarma egoera kendu zenetik, badirudi dena martxan jarri dela edo martxan jartzeko aukera dagoela, eta hori garai onak datozen seinale da.

Baina orain, dena abian jarri daitekeen honetan, beste birus txiki bat jaio zaigu barruan: nagikeria. Nagikeria honek kulturaren suspertze egoera moteltzea ekar dezake.

Baina alferkeria jaio ala kutsatu egiten da? Nagikeria ez da nortasunaren ezaugarri bat, ohitura hartua baizik. Faktore biologikoek edo nortasun-faktoreek eragina izan dezakete,

baina ez dira erabakigarriak. Hala ere, jasotzen dugun hezkuntza motak berebiziko eragina du gure jokabide-ereduetan. Erabakiak gogo-aldartearen arabera hartzen baitituzte. Hau da, amildegian jartzen dute arreta, eta ez zeruertzean

KULTURA AMATEURRA MARTXAN JARRI BEHAR DA, PIRAMIDE KULTURALAREN EUSKARRI BAIKARA

(horizontean).

Momentu honetan zeruertzerara begiratzeko unea da, eta ez amildegira. Kultura amateurra martxan jartzeko momentua da, piramide kulturalaren euskarri baikara. Beheko makineria martxan jarri behar dugu, hori ez bada gertatzen piramidea ezingo baita mantendu.

Horregatik, utzi dezagun nagikeriaren birusa alde batera, eta hasi gaitzen ibiltzen aurrerantz beldurrik gabe, bide berria baitugu aurrean, oztopoz bete, ziurrenik, baina atzera begiratu ezin dezakegun bidea da. Atzerantz begiratzen duena amildegian behera joango baita.

Kultura gure nortasuna da. Abestea gure nortasuna da. Musika egitea gure nortasuna da. Dantza egitea gure nortasuna da. Ez dezagun nortasun hori desagertzen utzi. Agur, nagikeria!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Prensa sutan

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

La Gazzetta dello Sport-eko kazetariak susto galanta hartu zuten 1907ko azaroan, harri zaparrada batek bulegoko kristalak hautsi zituen. Tentuz atera ziren leihora eta dozenaka tifosi ikusi zituzten kalean oihuka, irainka, onetik irtenda, egunkariaren ale arrosak pilatu, gasolinaz busti eta su ematen. Giovanni Gerbi piemontearren jarraitzaileak ziren, jarraitzaile literalki sutuak. Gerbi Lonbardiako Giroa irabazi zuen egun batzuk lehenago, Garrigou frantsesari 38 minutu aterata, baina deskalifikatu egin zuten

estrategia berezi samarrak erabili zituelako: trenbide-pasagune baten zaindaria erosi zuen, bera igaro ondoren hesia jaitsi eta jazarleak gelditu zitzaizkien. [...]

Epaileek Gerbi berriz garaipena kendu ziotenean, haren jarraitzaile piemontearrak asaldatu egin ziren: milaka kartel itsatsi zituzten hormetan *La Gazzetta*-ko antolatzaileen kontrako mehatxuekin, manifestazio jendetsuak antolatu zituzten Turinen eta Astin -Gerbiaren hirian-, prentsa-banatazaileak erasotu eta *La Gazzetta*-ko fardoak Po ibaira bota zituzten. Ondoren, Milanera abiatu ziren, lonbardiarrak gorrotagarri haien hiriburura,

bulegoak harrikatu eta egunkariaren ale pila batekin sutzarra piztera.

Une hartan, erretzen ari ziren egunkariaren garrei begira, *La Gazzetta dello Sport*-eko zuzendariak argia ikusi zuten: piemontear kirten haiek halako paper-pilo erraldoia erretzeko aukera zuten, hain zuzen ere, polemikaren egun haietan inoiz baino ale gehiago saltzen ari zirelako. Ehun milatik gora, euren historian lehenengo aldiz. Beraz, ideia handiago bat bururatu zitzaizkien prentsa sutan mantentzeko: Italiako Giroa asmatu zuten.

! Post gehiago 8. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailtetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Adinkeria da pertsonak adinagatik diskriminatzea"

BORJA DONCEL GARCIA ERIZAINA ETA EHU-KO DOKTOREA

L.Z.L. / TXOMIN MADINA ARRASATE
Adinagatik diskriminatzea da adinkeria. Berdin dio adinak. Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, martitzenean egin zuen gaiaren gaineko aurkezpena Borja Doncelek (Erandio, 1992).

Noiztik dago identifikatuta adinkeria?

Diskriminazio mota bat da, eta 1969koa da lehen definizioa. Robert Butler psikiatra estatubatuarrek definitu zuen "estereotipo sistematikoa eta diskriminatzaile multzo" bezala, zeinek pertsonak adinagatik diskriminatzen dituen.

Eta adinkeriak badu adinik?

Edozein adinetan gerta daiteke adinkeria; gazteengan, nagusiengan... Osasunaren Mundu Erakundeak ordezkariek esana da gizartearen %50ek duela pertsona nagusien aurkako adinkeria jarrera, eta European gazteen aurkako adinkeria



Borja Doncel Garcia erizaina, martitzenean, Arrasaten. L.Z.L.

beste leku batzuetan baino ohikoagoa dela.

Adinkeria adibiderik eman dezakezu?

Adinkeria kasu ebidentea da COVID pandemia garaiotan gertatu dena, esaterako.

Komunikabideek pertsona nagusien inguruko irudi ahula kaleratu dute, eta horrekin batera zabaldu duten ideia da koronabirusa nagusien gaixotasuna dela. Eta hori ez da egia.

Tesia egin duzu gaiaren inguruan. Zer dago jatorrian?

2018koa da adinkeriaren inguruko eredu integrala. Eredu horren arabera, heriotzaren beldurra estereotipo batzuk onartzera eramaten gaitu, eta estereotipo horien arabera moldatzen ditugu gure jokaerak. Pertsona batek sinisten badu nagusitasunak mendekotasuna dakarrela, jarrera horiek garatuko ditu eta nagusi izatera heldutakoan ere garatu egingo du mendekotasun hori. Jakin behar dugu, dena den, adinkeria hiru mailatan gertatzen dela: intrapertsonala edo pertsona barrukoa izan daiteke, pertsonen artean ere gerta daiteke, eta baita ere maila instituzionalean.

Eta ze ondorio ditu adinkeriak?

Gehienetan, pertsona nagusien osasun integralari eragiten dio, eta ondorioak izan ditzake osasun fisikoan, psikologikoan eta maila sozialean. Adinkeriak, esaterako, hilkortasuna handitzen du, bizitzaren luzera murrizten du, gaixotasun fisikoak eta ahultze funtzionala zein kognitiboa eragin ditzake... Depresioa, antsietatea eta gizarte bazterketa ere eragin ditzake... Familian gertatzen

beda, bestalde, ager daitezke mikroerasoak, zaintzailearen gainkarga... Behartutako kaleratzeak eta erretiroak ere aipatu behar dira. Sistema soziosanitarioari dagokionez daude infradiagnostikoa, infratratamendua...

Debagoiendarrekin egin zenuen tesiaren zati bat, ezta?

Hiru ikerketak osatzen dute gure tesia, eta bigarrenean Arrasateko eta Oñatiko pertsona nagusiek hartu zuten parte, besteak beste. Ezaugarri konkretu bateko nagusiak ziren; nor bere etxean bizi zen, eta nagusien ahalduz bultzatzen duen Bizipoz egitasmoko parte-hartzaileak.

Nola egin diezaiokegu aurre adinkeriarri?

Badago bibliografia, eta gure tesiaren hirugarren ikerketak ere heltzen dio kontuari. Nire ustez, hezkuntza ezinbestekoa da. Hezkuntza interbentzio bat egin genuen Portugaleteko zentro sozialetan, eta emaitza oso interesgarriak daude. Gaiari buruzko ordubeteko saioa eta bina bideo erakutsi genituen, eta murriztu egin dira adinkeria zantzuak. Bat eta lau aste epe artean sumatu ziren onurak, eta egonkorta egin dira. Interesgarria litzateke halako sentsibilizazio saioak egitea.

ITURRI ONETIK

San Juan jairik ez, baina ekitaldi batzuk bai

COVID-19aren kutsatu kopurua geroz eta txikiagoa eta immunizatuena geroz eta handiagoa den arren, jaiak ez dira ospatuko aurten ere. Bergaran, kultura mokadu moduan aurkeztu dituzte ekitaldi apurrak; Eskoriatzan, asteon iragarri dute sanpedrorrik ez dela ospatuko. Arrasaten ere ez da sanjuanik egingo, baina bai ekitaldi batzuk: AEDren bertso saioa; suen bueltako ekitaldia errementari dantzarekin; Pirritx, Porrotx eta Marimotots Monterronen; txosnagunean zerbait...

ALBISTE IZAN ZEN

2010-06-30

Munduko kolore, doinu eta zaporez blai Antzuola

Mundumira Munduko Kulturen Festa Antzuolan ospatu zen, arrakastaz, 2010ean. 20.000 lagunetik gora igaro ziren Antzuolatik asteburuan. Ojos de Brujo, Gose, Gambe Brass Band eta Klak!son izan ziren parte hartu zuten musika taldeetako batzuk; mendi ibilaldiak, azoka, boulder txapelketa, txikienentzako ekimenak... ere izan ziren. Udala, Mankomunitatea eta Euskal Herria aldizkaria pozik azaldu ziren amaieran.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Pentsiodunen aldarria sareetara heldu da

@erikgartzia: "Pentsiodunak, gazteak, zaintzako langileak... Badago giharra aldaketarako!".

@ketxebarria: "Dagoeneko ez du balio 'es lo que hay' esateak, borrokatu beharra dago".

@aiaraldea: "Tubacexeko grebalaria eta pentsiodunak batera mobilizatzen ari dira Urduñan eta Laudion".

@lolipison: "Mundu guztiarentzat zailak diren garai hauetan, adineko, pentsiodun edo pentsio propiorik gabeko emakumeen populazio ikusezina dago. Bakarrik bizi dira, senideen laguntzarik gabe".

HANDIK ETA HEMENDIK

Argi urdinak

ELIXABETE GARMENDIA LASA

HTTPS://LABUR.EUS/SSQNF

'BERRIA' -N ARGITARATUA

Sirena hotsetan eta larrialdietako argi urdinetan blai gabiltza azkenaldian hirian. Anbulantzia ez denean, udaltzainen edo batez ere, ertzainen autoa izan ohi da, aurrean suertatzen zaizkionak bazterrera botaz, ziztu bizian eta semaforoak gorrian pasaz, telefilm merkeetako lainezarekin. Hasieran, izurritea iritsi berritan, benetako larrialdiak izango zirela pentsatzen nuen: gaitz madarikatuak jota zeuden gaixoak; eta bestela, egoera

arraroak erraztutako istripuak, suteak, lapurretak... baina gero, zorionez, ez da halako albisteetatik horrenbeste izan, ez behintzat sirena eta zalapartaren proportzioan. [...]

Hogeita bat gizonezko eta hogeita bost emakumezko zenbatu ditut COVID-19aren Liburu Zuria-ren lantaldean. Gehienek ikerkuntzan dihardute, nork bere esparruan; osasungintzari dagozkion hainbat adarretakoak dira nagusi, baina badaude ekonomialariak, soziologoak, legelariak, gizarte arloko profesionalak, komunikaziokoak... Aski

ezagun eta mediatikoak horietako zenbait. Hiru unibertsitatetako jendea ageri da: EHU, Deustu eta Mondragon. Diziplinarterkoa, anitza eta transbertsala da taldea, benetako auzolana gogorarazten du. [...]

175 proposamen zehatz jasotzen ditu Liburu Zuriak, lau esparrutan sailkatuta: osasungintza, ekonomia, arlo sozialak –komunikazio politika barne– eta hezkuntza.

[...] Lagin gisa, hara osasungintzatik egindako salaketa bat: "Gain-informazioa eta desinformazioa zabaldu dira, eta hala ere, horren aurrean, administrazioetatik ez da lan ildo zehatzik bultzatu unez

uneko ebidentzia zientifikoan oinarritutako mezuen zabalkuntza sustatzeko". [...]

Gain-informazioaren eta desinformazioaren arteko ur uherretan, gardentasuna galtzaile eta herritarrak noraezean. Testuinguru horretan, ETBko albistegiak populismoak jota ikusten ditut: neurritz kanpo darabilte mikroa kalean, orokorkeriaz eta topikoz gainezka doazen adierazpen errepikakorrak jaso eta emitituz, eguna joan eta eguna etorri, auzo-lotsa emateraino. Praktika horrek gaina jotzen du Loiuko aireportuko zorioneko bidaiariei eta saltoki handietako bezero apetatsuei hitza ematen dietenean. [...]

Komunikazioaren esparrutik, eta erakundeetako ordezkari eta bozeramaileei buruz diharduela, ohartarazpen hau egiten du COVID-19aren Liburu Zuria-k: "Komunikazio emozionala zaindu egin behar da. [...] Egunetik egunerako bilakaera itogarritik haratago, egoeraren eta bilakaeraren ulermen zabalagoa zein neurriei zentzua ematea ahalbidetuko duten kontakizunak behar dira". Hori bezalaxe, sirenak nahiz argi urdinak tentuz erabiltzea derrigorrezkoa da.

! Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkezten.

Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozialeko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Horixe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan. Lan merkatuan sartzeko eta finkatzeko zailtasun gehien duten pertsonen kalitatezko enplegua, enplegu duina, inklusiboa eskaintzeko sistema garatu behar dugu", adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana

Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz programaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat egin. "COVID-19ak eragindako krisialdi sozialari aurre egiteko palanka izango da, batetik, eta

epe ertainera begira, berriz, gizarte desberdintasunei mugak jartzeko tresna partekatua", aurreratu du diputatu nagusiak. Lana izango da tresna nagusia "bitzita duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bitzita proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak.

Estrategia zabal eta partekatu honen bitartez, erakunde, gara-

pen agentzia, enpresa eta eragileekin elkarlanean, datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kroniko bihurtzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan

dauden pertsonen gain, prestakuntza baxua dutenak, langabezian kroniko bihurtu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioi euroko dirulaguntza deialdi onartu berri dela aurreratu du diputatu nagusiak. Deialdi garrantzitsu honek igoera nabarmena izango du (%250ekoa); izan ere, 2020ko deialdian 1,2 milioiko zuzkidura izan baitzuen.

Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategiak hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera. Lehenik, lanean diharduten erakundeen eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzako gobernantza eredu bat garatuz. Dagoeneko abian da strategiaren zabal-kundea gidatuko duen mahai instituzionala eta hurrengo pausoa izango da gizarte eta ekonomia alorreko eragileak batuko dituen mahaia osatzea.

Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu Elkar Ekin Lanean Estrategiak. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da, dagoeneko abian

dauden jarduerak sendotzeaz gain. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, dirulaguntzak, gizarteratze enpresa berrien sorrera, informazio sistema adimenduna, txertatze soziolaboraleko gune berezia eta halako egitasmoak sustatuko dira.

Neurri horien guztien inpaktu gisa, hiru urtean 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagun formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

HIRU URTEAN 36,6 MILIOI EURO BIDERATZEA AURREIKUSI DU GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK

Elkar Ekinen onuradunak

CAROLINA KALEXA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalekkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatzen nuen; pozarren".

JOSEPH SUTARGI


"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daroztat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPAr, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra nola landu... Ofizio bat ikasita iritea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogo eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea...".

VANESA EDE EMAKTA

"Une oso gogorak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".



ARRASATEKO UDALA

Igogailu sistema egokienaren bila

Musakola, Santa Teresa, Galizia, Agerre eta Doneztebe Portuko kaleak lotuko dituen igogailu sistema erabakitzeko prozesua abiarazi du Udal Gobernuak; eta herritarrek, bereziki, inguruko auzotarrek, hiru proposamenen artean aukeratu dezakete jadanik

Eneko Azurmendi ARRASATE

Proiektuaren helburua bakarra da: Musakola eta Doneztebe Portuko kaleen arteko irisgarritasuna "sistema oso baten

bitartez" hobetzea. Era horretan, hiru aukera posible aztertu ditu Gobernuak, eta orain, arrasatearren baina, bereziki, inguruko auzotarren iritzia jaso gura

ditu, haiek ze aukeraren alde egiten duten ikusi ondoren, proiektua idatzi eta lehiaketa publikora atera ahal izateko. "Iritzi bilketa bat egin gura dugu,

ikusteko hiru aukera hauen artean zeren aldeko hautua egiten duten. Horrekin, asmoa da proiektua osatzea bizilagunekin elkarlanean eta haien iritziarekin bat etorrira", azaldu du Maria Ubarretxena alkatea.

Hiru aukera daude


Aukerei dagokienez, goiko zatia, Agerre eta Galizia kaleak lotuko dituen, bera da hiru proposamenetan, ez dutelako "aukera hoberik" ikusi zati horretan.

Hala, lehen aukerak bi igogailu ditu, Galizia eta Santa Teresa kaleetan, eta lau pasabide. "Puntu altuena hartu eta irisgarritasun handiena lortzen den lekua hartu dugu kontuan. Goian bizi den ahalik eta jende gehiena behera jaisteko kokapen egokiena hartu dugu igogailua

jartzeko. Lehen aukera hau eraginkorra da, azkarra, behetik goraino igotzeko. Gainera, ekonomikoki ere aukera onena litzateke", adierazi du Juan Antonio Urdangarinek, Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak. Bigarren eta hirugarren aukerak beheko zatian dituzte diferentziak, eta hiru igogailuko sistema izango litzateke kasu horietan, goian ikusten denez.

Ekainaren 17ra arteko prozesua

Aukeraketa Toki Argi erretiratuen elkartean eta *Arrasate.eus* webgunean egin ahal izango dute arrasatearrek, ekainaren 17ra arte, eta, behin iritzia jasota, Gobernuaren asmoa da 2021eko bigarren seihilekoan proiektua idaztea eta, ondo bidean, lanak 2022an hasia.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Irisgarritasunaren garrantzia

Sozialisten udal taldeak, koalizio-gobernu gisa daramatzagun 6 urteetan, Arrasateko zati laua auzo altuenetako batekin, Makatzenarekin, lotzea lortu dugu. Horretarako, bi igogailu eraiki dira, pasabide baten bidez komunikatuak, eta egun, bizilagun askok erabiltzen dute.

Oraintxe bertan, Erguingo igogailuak ia amaitzen ari gara. Bukatzean, erabiliko

duzen bizilagun kopuru handia ere ikusiko da; izan ere, Makatzena auzoa bezala, Erguin ere auzo garaia da eta bertan herritar asko bizi dira. Eta, jakina denez, San Esteban del Puerto, Santa Teresa eta Galizia kalea Musakolarekin lotuko dituen igogailuaren proiektua aurkeztu berri da. Horretarako, parte hartzeko prozesu bat jarri da abian.

Lerro hauen bidez erakutsi nahi dut herritarrentzat eta, batez ere, goi auzoetako herritarrentzat onuragarria den orok gure laguntza osoa izango duela irisgarritasuna bermatzeko, guztiontzat erosoena eta errazena izan dadin. Hori da guk lantzen duguna. Arrasateko PSE-EEK lanean jarraitzen du, gure herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

Sexualitatea eta nerabezaroa lantzeko bi saio egingo dituzte

6 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako saioa ekainaren 1ean, martitzena, egingo dute eta 12 eta 16 urte artekoak dituztenentzat, ekainaren 8an, biak ala biak Kulturaleko Jokin Zaitegi gelan, 17:00etan hasita. *Arrasate.eus* webgunean eman beharko da izena, edo udaletxera deituta, 943 25 20 07 zenbakira.

Garibai oinezkoentzako izatearen alde gehienak

Garibai etorbideko eta Jokin Zaitegiko jabeen erkidegoetako batzar orokorraren ondoren, batzorde bat eratu dute, bizilagunek 'Ekobulebar'-arekiko duten iritzia jasotzeko; 101 bizilagunetatik 69 Garibai erabat oinezkoentzako izatearen alde daude

Eneko Azurmendi ARRASATE

Martxoaren 16an, Garibaiko eta Jokin Zaitegiko jabeen erkidegoetako batzar orokorra egin zuten, eta *Ekobulebar*-a izan zen puntuetako bat. "Inguruan lanak hasi zituzten, eta guztien ahotan zebilen gaia. Horri lotuta, batzorde bat sortzeko beharra ikusi genuen, eta, modu boluntarioan, hiru bizilagunek hartu genuen ardura hori", azaldu du Jose Angel Iturbe batzorde horretako kideak -Josean Ezkurra eta Paco Azpiazu dira besteak-.

Bizilagunei galdetu diete Garibai eta Biteri guztiz oinezkoentzako izatea nahi duten ala autobus geltokia Garibain mantentzea nahi duten. "Bizilagun guztien buzoietan sartu genuen galdetegia; hau da, 170 buzoitan", dio Iturbek. Horietatik 101 bizilagunek eman dute botoa, %59ko parte-hartzearekin, eta 69 bizilagunek egin dute Garibai oinezkoentzako izatearen alde (%68). 29 bizilagun, aldiz, autobus geltokia Garibain mantentzearen alde agertu dira (%29). Gainontzeko hiru botoak baliogabeak izan dira.

Udal Gobernuarekin bilera

Datu horiek jaso ostean, Udal Gobernuarekin bilera egin zuten apirilaren 29an. "Azpimarratu behar dugu oso harrera positiboa egin zigutela eta batzordeko hiru kideok ikusi genuena izan zen haien iritzia bat zetorrela komunitateak emandako iritzia-rekin. Hala ere, ofizialki ez dakigu oraindik Garibai oinezkoentzat izango den ala ez, eta hori lehenbailehen jakin gurako genuke", nabarmendu du Iturbek.

Horri buruz galdetuta, Gobernuak adierazi du Garibai etorbidea oinezkoentzat izatea teknikoki aztertzen ari dela.

"Non kokatuko dute geltokia?"

Ildo beretik, EH Bilduk agerraldia egin du asteon, eta *Ekobu-*



Jose Angel Iturbe, Jokin Zaitegiko bizilaguna, inkestaren emaitzekin. HASIER LARREA

BIZILAGUNEN IRITZIA KONTUAN HARTZEKO ESKATU DIO EH BILDUK GOBERNUARI, ETA MORATORIA EXIJITU

lebar proiektuaren baitan hainbat gai oraindik airean daudela esan du Maider Morras bozeramaileak. "Diseinuan agertzen ez bazen ere, 'behin behineko' izaeraz Zalduspeko geltokia eraikitzen ari da Udal Gobernuak, herritarren harridurarako. Proiektuari erreparatuta, ordea, geltokia Garibain kokatuko da. Hala, geltokia *Ekobulebar*-ak planteatzen duen tokian jartzea oztopo bilakatzen da, bertako bizilagunek eskatu duten moduan, etorbidea oinezkoentzat bilakatzeko. Datu, albiste eta informazio kontrajarrien testuinguru honetan, galdera argia da: non kokatuko da behin betiko autobus geltoki berria?"

Halaber, bizilagunen iritzia kontuan hartzeko eskatu dio Gobernuari, eta, duela hiru hilabete egin moduan, orain ere moratoria bat exijitu dio. "Gai-

nera, Laubide proiektuan, geltokia erdigunean kokatzen da, herritarren erosotasunerako eta garraio publikoa bultzatzeko asmoz, eta egon garen bizilagun gehienek ere geltokia erdigunean edukitzea gura dute, gertu".

"Izugarrizko trafikoa"

Ekobulebar-ak ekarriko duen beste arazoetako bat, Morrasen esanetan, Nafarroa etorbideak jasango duen "izugarrizko trafikoa" da. "Ingurune horietan Juan Arzamendi Musika Etxea, haurrentzako Zaldibarko parkea eta Kulturola daude, besteak beste. Trafikoaren birmoldaketa bat, hots, trafiko motorduntzat noranzko bakarrekotatik jarri eta beste bat Zerrajerako etxeetatik planteatzea zona horretarako irtenbide integral bat izan daitekeela deritzogu".

Eskerrak bizilagunei

Azkenik, EH Bilduk eskerrak eman gura izan dizkie Villa Amparoko, Jokin Zaitegiko, Kontzezinoko, Grupo San Juaneko, Zerrajerako, Gelmako eta Nafarroa etorbideko bizilagunei, bileretan parte hartzeagatik.

Ludopatziaz sentsibilizatzeko bi hitzaldi egingo dituzte ekainean

Datorren eguaztenean izango da lehena: Josu Vianak bere esperientziaren berri emango du, 18:30ean hasita

E.A. ARRASATE

Ludopatziaz informatu eta sentsibilizatzeko helburuarekin, bi hitzaldi antolatu ditu Arrasateko Udal Prebentzio Zerbitzuak datozen asteetarako, eta lehena ekainaren 2an izango da. Hala, Josu Vianak ludopatiarekin bizi izandako testigantza emango du, nola hasi zen jokoarekin, nolakoa izan den bere egunerokotasuna jokoaren menpe eta zer eragin izan duen jokoak bere bizitzan. Hitzaldia 18:30ean izango da, Kulturateko areto nagusian, euskaraz, *Ludopatiak bizitza hankaz gora jartzen dizunean* izenburupean. Zumarragako gazteak 32 urte ditu eta duela hamar urte hasi zen jokoarekin arazoak izaten. "Prebentzioan egin behar dugu lan. Jendea oso gazte hasten da jokatzeko, oso modu sozialean, gainera, eta inportantea da nerabeek lehen-

bailehen jakitea ze arazo ekar ditzaken jokoak", dio.

Bigarrena, ekainaren 9an

Bigarren hitzaldia, berriz, ekainaren 9an, eguaztenea, izango da, *Ludopatia: jokoak ez da jolasa* izenburupean. Karnele Gurrutxaga Bastidak emango du, Jolkari Anonimoak Elkarteko psikoterapeutak, eta ludopatiaren begirada sozioekonomiko orokorretik abiatu eta ludopatia adikzio eta gaixotasun bezala deskribatuko du. Horrez gain, jokatzeko lehen pausoen eta "bizitza normala" itzultzeko bideen eta pausoen gainean ere arituko da. Hori ere 18:30ean izango da, Kulturateko areto nagusian, gazteleraz.

Plaza mugatuak izango dira eta segurtasun eta prebentzio neurri oro betetzea "ezinbestekoa" izango da.

Hainbat ekintza egun osoan 'Naturan jolasean'-en baitan

Naturan jolasean ekimenaren baitan, egun osoko ekintzak egingo dituzte bihar, zapatua, Santa Barbara azpiko natur eremuan: "Arrasatearrak familian, lagunartean edo eta bakar-bakar beraien artelanak ekartzera animatuko ditugu, bertan jarriko dugun zuhaitz zintzilikarian lanak eskegi eta erakusketa kolektiboa osatzeko". Lan hone-

tarako, POOK artista elkarteko kideen laguntza izango dute. 11:00etan jarriko dute martxan erakusketa. Gero, 11:30ean, Kalenatura ibilbide gidatua egingo dute, Maiatzaren Bata plazatik abiatuta, eta 16:00etan, berriz, mural-collage erraldoia "estilo libre-espontaneoan". 18:00etan, azkenik, ekitaldia egingo dute.

Leintz Eskola Kirolak, Besaide Mendizale Elkartek, Gazte-txeko Guraso eta Haur Asanbladak eta Txatxilipurdik antolatuta dute ekimena, seigarrenez.

OHARRAK

Kolonbiari elkartasuna, gaur, Biteri plazan

Elkarretaratzea egingo dute, protestak hasi zirenetik hilabete pasatu direla eta, 19:00etan hasita.

Kontzertuak gaztetxean bihar eta hilaren 5ean

Bihar, zapatua, 17:30ean, Jimmy Lamentos & Johnny Dedales taldeak emanaldia eskainiko du. Bestalde, ekainaren 5ean, Yugular taldea ariko da, 19:00etan -honetan, sarrerak agortuta-.

Bertso-saioa Monterronen ekainaren 5ean

Sarek antolatuta, Jone Uria, Miren Amuriza eta Maddalen Arzallus ariko dira bertsoetan, eta Ane Zuazubiskarrek jarritako gaiak jorratuko dituzte, 12:00etan hasita.

Ez daude ados beilatokia erdigunean jartzearekin

Ignacio Zuloaga kaleko hainbat bizilagunek sinadura bilketa abiatu dute, ez dutelako egoki ikusten San Felipe Elkarlaguntzak beilatokia kale horretan jartzea; prest daude "kokapen egokiagoa" daukan lokal bat bilatzen laguntzeko, Gobernuarekin elkarlanean

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Eskertzen dugu San Felipe urte hauetan guztietan bere kudeaketan egin duen lana, eta ulertzen eta onartzen dugu zergatik nahi duen tanatorio zerbitzua emateko lokal berri bat erosi. Baina ez gatoz bat haiek proposatutako kokalekuarekin", azpimarratu dute.

Hainbat arrazoi eman dituzte kokapena egokia ez dela argudiatzeko. Batetik, jende asko ibiltzen den gunea dela diote. "Herriaren erdigunean, tabernaz eta terrazaz inguratuta dago, eta tokiko jai-giroa dago. Herriko jaietan izaten den giroaz eta zarataz gain, eta batzuetan in-



Eguaztenean hasi ziren sinadurak biltzen, Seber Altube plazan. MICHELLE LENOIRE

guruan egiten diren musika kontzertuez gain". Bestetik, beilatokia hor jartzeak inguruan dagoen aparkaleku faltaren arazoa handitu egingo lukeela uste dute, eta, horrez gain, hildakoa-ren senitartekoez elkar zaindu eta babesteko ere ez dute egoki ikusten Ignacio Zuloaga kalea. "Momentu zailak bizi izaten dira heriotza baten ondoren, eta toki hori nahiko alaia da".

Gobernua, laguntzeko prest

Adierazi dute Maria Ubarretxena alkatearekin ere batu direla eta Udal Gobernua prest azaldu dela lokal egokiagoa bilatzen laguntzeko. "Hainbat lokal proposatu dizkio San Feliperi: Kaitide eta Markulete; gure ustez, egokienak beilatoki zerbitzurako. Era berean, lokal egokia bilatzen laguntzeko prest daude, guztien beharrak eta nahiak asetzeko".

Horregatik, San Felipe Elkarlaguntzari eskatzen diote onar dezala Gobernuaren eskaintza, kokapen hobea bilatzeko. "Benebenetan, beilatokiaren kokapenean adostasun batera iritsi ahal izatea gustatuko litzaiguke,

eta hori posible dela uste dugu. Garrantzitsua da bertako biztanleek nahi dugun herri eredia. Herri parte-hartzaile eta bizi batek ahalegin kolektiboa eskatzen du, non iritzi eta jarduera desberdinak onartzen eta gauzatzen diren; betiere, errespetuan oinarrituta".

Sinadura bilketa martxan da

Ignacio Zuloaga kalean dauden 2, 4, 6 eta 8. atarietako 40 etxebizitzetako bizilagunek 38 sinadura aurkeztu zituzten maiatzaren 13an BAZen, kokapena aldatzeko eskatuz. Hala ere, orain, herrira zabaldu gura dute haien kexa, eta, horretarako, esan bezala, sinadurak biltzen hasi dira dagoeneko. Eguaztenean hasi ziren, eta gaur, bihar eta etzi ere egongo dira, Seber Altube plazan. Gaur, egubakoitza, 19:30etik 21:00etara jarriko dute mahaia eta zapatuan eta domekan, berriz, 12:30etik 14:00etara eta 19:30etik 21:00etara.

Behin sinadurak jasota eta BAZen entregatuta, haien asmoa da San Felipe Elkarlaguntzari ere emaitzak helaraztea eta adostasuna lortu ahal izatea.

DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxe: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiostudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Udal Gobernuak terrazen ordenantza landuko du

Arrasateko Ostalariak elkartearekin hitzarmena sinatuta hartu du ordenantza arautu eta elkarlanean lan egiten jarraitzeko konpromiso hori. "Prozesu parte-hartzailea jarriko dugu martxan ostalariekin eta herritarrekin, ordenantza lantzeko", dio alkateak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zazpi puntu dituen akordioa sinatu dute Arrasateko Udal Gobernuak eta Arrasateko Ostalariak elkarteak. Horren baitan, Gobernuak konpromisoa hartu du terrazei buruzko ordenantza egiten hasteko, eta, horregatik, ordenantza hori arau planean sartuko du ekaineko osoko bilkuran. Bigarren puntuak zehazten duenez, ordenantza lantzeko, gutxienez, zortzi hilabete beharko dira. Bestalde, Udal Gobernuak dekretu bat egingo du, "ordenantza amaitu arteko inbertsioak bermatzeko". Horrez gain, Gobernuak konpromisoa hartu du Arrasateko Ostalariak elkarteak aurkeztutako proposamenak lantzeko.

Parte-hartze prozesu bidez

Partaidetza prozesua egitea ere jasozten du akordioak, 39/2015 legeari jarraiki, "non Arrasateko bizilagunek parte hartu ahal izango duten, baita ere ostalariaren sektoreko ordezkariak". Modu berean, Hirigintzako Aholku Kontseiluaren bidez egingo dute prozesu hori, "zeinetan udalerriko kolektibo guztiek baitute ordezkartza".

Azkenik, bi aldeek konpromisoa hartu dute elkarlanean jarraitzeko, "elkar ulertuz eta era kolaboratzailean, elkarriketaren bidetik at konfrontazioaren bidea ekidinez bi aldeek aldetik".

Ordenantzaren garrantziaz

Maria Ubarretxena alkateak begi onez ikusi du akordioa. "Haienez oso garrantzitsua da ordenantza bat izatea. Horrez gain, pandemiaren ondorioz egin behar izan dituzten inbertsioak mantentzea ere gura dute, eta hor ere lortu dugu akordioa", azpimarratu du.

Ordenantzaren helburu nagusia izango da ostalari guztiek terraza jartzeko aukera edukitzea eta baldintza berekin, eta hori berretsi du elkarteko kide Asier Antiak: "Ezin genuen jarraitu orain arte moduan. Arrasatek ez zeukan ordenantzarik, eta, hainbat negoziazio egin ostean, zerbait, behintzat, lortu dugu, haiek konpromisoa hartzea ordenantza bat egiteko. Gutxienez, zortzi hilabete izango dira, bai, baina berdin dio zenbat irauten duen. Egitea da garrantzitsua, eta, ordenantza edukitzen badugu, gu pozik egongo gara".



Herritarrak Ezkiña tabernako terrazan. E.A.

Mendekotasun egoeran daudenei zuzendutako bi saio

Gaur, egubakoitza, eta ekainaren 5ean, mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko orientazioa eta informazioa eskainiko du Bidez Bide elkarteak, Emakume Txokoan, 16:00etatik 18:00etara, Debagoieneko zaintzaileei zuzenduta.

Elkarteak *Ikasi zaintzeko* kanpaina abiatu du Gipuzkoan, zaintza-lanetan jarduten duenei

aholkularitza doan emateko, haien familiek Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa jasotzen badute.

Zehatzago esateko, Mendeko pertsonen Gizarte-erakundeetan Gizarte eta Osasun-arreta emateko Profesionaltasun Ziurtagiria da bertaratzen dutenek ikasiko dutena, "hori baita 2022ko abenduaren 31z geroztik legeak eskatuko duena". Informazio gehiago nahi dutenentzat, formacionbidezbide@gmail.com helbidea helarazi dute.

Futbolarekin berriro konektatzen



EROSKI
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarria
2021eko 06/16ra arte

Conekta



138 cm
55"

749€

599€

569,04€

150€

179,96€

300€

-arte

Bazkidea bazara bete zure txartela 300 eurora arte 'Conekta'-ko liburuskan adierazitako produktuak erosteagatik

"Lasaitasuna sentitzen dut urpean, gozamina"

EIDER GUTIERREZ URPEKARIA ETA EUSKADIKO APNEA TXAPELDUNA

Arrasatearrak lehen aldiz hartu du parte aurten Euskadiko eta Espainiako apnea txapelketetan; onena izan zen lehenean eta errekor pertsonala egin zuen hurrengoan

Hasier Larrea ARRASATE

Urpekaritza praktikatzeko maite du Eider Gutierrezek (Arrasate, 1976), baina ezin izan du itsaso zabalean nahi beste ibili azken hilabeteotan, pandemiak eragindako mugikortasun arazoak medio. Eragozpen horri irtenbidea aurkitu dio igerilekuan, modalitate estatikoko apnean taldetxo batekin batera entrenamenduak eginda. Lehiara salto egitera ere ausartu da, eta emaitza bikainak erdietsi ditu. **Nondik datorkizu uretan jarduteko afizio hori?**

Betidanik erakarri nau urak, eta txikitatik irakatsi didate igerian egiten. Orduan, ume gehienekin gertatzen den bezala, ura ikusteak salto egitera erakartzen ninduen. Agian, ez nintzen kontziente, baina apnea praktikatzan nuen, urpean sartu eta arnasa falta zitzaidanean lurrazalera irteten. **Orain deskribatu duzu zer den apnea egitea.**

Azpimarratzekoa da lehorrean ere praktika daitekeela; izan ere, definizioz, arnasa ez hartzean datza apnea.

Igerilekuan, zenbat modalitate dauzue jarduera hori praktikatzeko?

Bi: estatikoa eta mugikorra. Geldiakoa denborarekin neuritzen da eta igeri egitekoa, berriz,



Eider Gutierrez, Musakolako barruko igerilekuko harmailan. MIREIA BIKUÑA

distantziarekin, eta hegatsekin edo hegatsik gabe egin daiteke. Baldintza nagusia da beti urpean egon behar dela; beraz, burua ateratzen denean amaitzen da proba.

Eta itsasoan?

Itsaso zabalean, murgiltzen den sakonera hartzen da kontuan. Zenbat eta sakonago murgildu, orduan eta marka hobea.

Lehiaketan, ze prozedura betetzen duzue urpean murgildu aurretik?

Lehendabizi, erlaxazio protokoloa deitzen dena jartzen dugu martxan. Ordu erdiko beroketa

ariketak dira, eta meditatze, musika entzuteko edota igeri egiteko aprobetxatzen dugu tarte hori.

Ze garrantzi ematen diozue ordu erdi horri?

Handia, gorputza berotzeaz gain, ahalik eta lasaien egotea lortzen dugulako.

Eta behin lasaituta, zein da hurrengo pausoa?

Birikak oxigenoz bete aurretik, hiru minutu kontatzen dira. Une horietan lehiakide bakoitza norbere kalean kokatzen da, eta bihotzaren pultsazioak ahalik

eta lasaienak izaten saiatzea izaten da erronka.

Eta behin tarte hori agortuta jartzen da martxan kronometroa.

Hori da; 30 segundo ematen dizute arnasa ondo hartu eta uretan murgiltzeko. Hortik aurrera hasten da norbere gorputzaren eta buruaren arteko borroka, ahal beste iraun arte.

Ze geldikako modalitatean espezializatu zara. Zer sentitzen duzu praktikatzekoan?

Jendeak kontrakoa pentsa dezakeen arren, hasieran, sekulako lasaitasuna sentitzen dut, niretzako gozamina dena. Gero, egoera estutzen denean, gorputzak uretatik atera nahi duela jakinarazten du, eta hor hasten dira komeriak. Gakoa beti ahalik eta geldien egotea da, oxigenorik ez kontsumitzeko.

Momentu kritiko horietan, zer da komenigarriena?

Batez ere, asko arrazionalizatzea. Diafragma uzurtzen hasten da, barruan daramagun haizea kanpora ateratzeko. Sentsazio hori daukadanean badakit nire gaitasunaren erdira iritsi naizela; ondorioz, hortik eta konortea galdu arte asko gelditzen dela barneratzen dut. Gorputzari esaten diodana da: "Bai, badakit irten nahi duzula, baina egon zaitezke apur bat gehiago". Borroka horretan, zorionez, gorputzak irabazten du, eta uretatik irteten naiz.

Zenbateraino izan zara gai zeure burua urpean mantentzeko?

Denborak hobetzen joan naiz pixkanaka. Martxoan, Euskadiko Txapelketan, 4 minutu eta 20 segundoko denborarekin izan nintzen txapelduna. Gero, Espainiako Txapelketan, hirugarrena gelditu nintzen arren, nire errekor pertsonala ezarri nuen, 5 minutu eta 17 segundokoa.

Modalitate mugikorrekoeak ze mar-karen bueltan egoten dira?

Logikoa denez, gutxiago irauten dute. Ni bi minutu pasatxo egiteko gai naiz, adibidez.

Dena den, behin uretatik irtendakoan, beste fase bat gainditu behar da.

Bai, konortea ez galtzarena. Hogei segundo egon behar dugu geldi, eta ondo gaudela demostratu behar dugu. Tarte horretan dardarak izaten baditugu, hipoxia daukagula esan nahi du. Hortik aurrera, bi bide daude: edo konortea galdu, edo erreku-peratu. Onera itzultzen bagara, proba gainditu dugu, baina konortea galtzen badugu, epaileek egindakoa balio gabetzen dute zuzenean. Kontua ez baita itozteko gai garela erakustea, urpean ahalik eta gehien egonda ondo irtetea baizik.

Eta orain, zeintzuk dira jomugan dituzun errokkak?

Mugikortasun neurriak malgu-tu dituztenez, espero dut txapelketa gehiagotan parte hartu ahal izatea. Euskadiko Txapelketan izena emateko argudio nagusia emakumezkoen sailkapena atera ahal izatea izan zen, gutxienez lau partaide behar baitira horretarako. Zorionez, beste hiru bizkaitar ere animatu ziren.

Ea, bada, datorren urtean emakume gehiago animatzen diren.

Hori da asmoa. Aurten lehiaketa antolatua ahal izan denez, beharbada balioko du datorren urtean partaide gehiago animatzeko. Afizio minimo bat dagoe-la, behintzat, erakutsi dugu.

"HELBURUA EZ DA ITOTZEKO GAI GARELA ERAKUSTEA, URPETIK EGOERA ONEAN IRTETEA BAIZIK"

Uztailean campusa egingo du Arrasate eskubaloik, lehen aldiz

Duela hiru urte antolatutako ate irekiei jarraipena emango diete horrela, kirola eta jolasa uztartuta

H.L. ARRASATE

Uztailaren 5etik 9ra eta uztailaren 12tik 16ra egingo dute eskubaloik campusa, 2009, 2010, 2011 eta 2012. urteetan jaiotako neska-mutilei zuzenduta. 10:00etatik 13:00etara egingo

dituzte saioak, Iturripeko kiroldegian. Taldeka edo banaka eman daiteke izena, aeb@arrasateeskubaloi.eus helbidera idatzita edo 619 67 26 96 zenbakira deituta. Prezioari dagokionez, 30 euro da, aste bakoitzeko.

Danel Roa antolatzaileak dio herrian eskubaloikari "ikusgarritasuna" eman nahi diotela, infantil eta kadeteetako jokalarik gehiago animatzeko: "Klubean daukagun giro ona erakutsi nahi diegu gazteei, kirol honen arauak, dinamikak eta postuak jorratzeaz gain, jolasak, ginkanak eta irteerak proposatuz".

Aurrez egindako ate irekiei fruituak eman dituztela ere jarri du mahai gainean, "nesken gazte, kadete eta infantil mailetakoko taldeak" dituzte-eta orain.

Dragoi gimnasia taldekoak, goitik behera nagusi

Joan den asteburuan Gasteizen aritu ziren Arrasate Dragoi gimnasia taldeko ordezkariak, eta emaitza paregabeak eskuratu zituzten. N3 mailan, Zihara Etxebarria izan zen bakarkako garailea, eta Nora Marco, Maider Agirreurreta eta Sara Yan Azkarate, ostera, nagusitu ziren hirunaka. Hiru horiek, Aiala Losada eta Maddi Etxagibeekin

batera, eraman zuten taldekako txapela, gainera. *Step* modalitatean, bestalde, Nahia Irazola, Nahia Ruiz, Irati Larrinaga, Lucia Vazquez, Eki Balanzategi, Irune Aranbarri eta Uxue Azkue aritu ziren, eta haiek ere onenak izan ziren. Azkenik, N4 mailan, bikoteka, lehen postua eskuratu zuten Nahia Irazolak eta Uxue Azkuek.

"Gogor" entrenatu ostean, gimnastak Gasteizera "ilusioz" joan zirela azaldu du taldeko entrenatzaile Elena Lanuzak.

Banatu dituzte literatur lehiaketako sariak

AED elkarteak sustatutako Arrasate literatur lehiaketaren 34. aldia izan da aurtengoa; LHko, DBHko eta batxilergoko ikasleen 159 lanen artean erabaki dituzte epaileek arlo bakoitzeko irabazleak; Oihana Arana idazlea izan da aurtengo gonbidatu berezia

Hasier Larrea ARRASATE

Atzo arratsaldean, 19:00etan hasita, izan zen Arrasateko literatur lehiaketako sari bana-keta, Kulturateko areto nagusian. Antolatzaileek txapelketaren 34 urteko errepaso labur bat egin zuten, eta "ordutik teknologiak gure bizimoduan pentsaezina zen lekua bereganatu duela" nabarmendu. "Pertsona guztiek barruan daramagun sortzaileak bizi-bizi jarraitzen du", adierazi zuten, eta ekitaldiko protagonistak jarri zituzten horren erakusle gisa.

Iazko ekitaldian Jon Maia bertsolaria izan zen, eta aurrean Oihana Arana Cardenal idazle eskoriatzarra izan da gonbidatu nagusia. Banaketaren ostean, Jokin Garitanok bere poema irakurri zuen.

Epaiak, balorazio ona

Narrazioa, ilustrazioa, bertso-papera, mikroipuina, komikia eta poesia uztartu dituzte partaideek. Azken modalitate horretan epaile lanetan aritu dira Hirune Iribekampos eta Bea Garai. "Lan dezente pandemiaren inguruan" idatzitakoak izan direla azpimarratu du Iribekampos: "Atentzioa eman digu gai horri buruz nola hausnartzen duten, norberari nola eragiten dion adierazita".

Bertsopaperei dagokienez, Xabi Batzuen izan da irabazlea hautatzeko arduradunetako bat. Haren esanetan, bertsolaritzan gai berriak txertatzen ari dira belaunaldi gazteak: "Adiskidetasunari buruz idazteko eskatu genien, eta deigarria iruditu zaigu nola mahai gaineratu duten bideo-jokoen gaia, esaterako".

Gainera, "kuri osoa" iruditu zaio nola ekartzen duten ikasleek paperera bizitza erreala: "Jabetzen zara freskotatua ematen diotela bertsolaritzari euren egunerokoan gertatzen zaienari buruz idazten dutenean".

Gaur egungo gazteek "beste heziketa mota bat" jaso dutela dio ilustrazioak puntuatzeaz arduratu den Olatz Zuazubiskarre: "Teknologia berriekin oso abilak direnez, orojakileak dira gizarteko gaien inguruan, inoiz baino erraztasun handiagoa baitaukate informazioa eskuratzeko". Izar Ruiz de Austriak idatzitako mikroipuina bat izan dute eredu kategorian horretako partaideek euren marrazkia irudikatze orduan: "Izarren kaiola bati buruzko kontakizun laburretik abiatu dira, euren kaiola propioa irudikatze; arrainontziak, adibidez".

Sariketaren garrantzia

Epaiak lanetan ibili diren hiru-rek argi adierazi dituzte, bakoitzak bere argudioekin, gazte-txoengan halako txapelketak sustatzeak dakartzen onurak. Zuazubiskarre ikasleak "kulturalizatzeko eta alor desberdinak jorratzera bultzatzeko" modu aproposa dela deritzo, "oparia dirua" izanagatik; Batzuenek, berriz, "hain panorama ilunean kandelatxo bat pizteko abagune" bezala ikusten du sariketa, eta Iribekampos, azkenik, nor bere buruari balioa emateko erakusleho bezala laburtu du literatur lehiaketa.

Literatur lehiaketako saridunak

NARRAZIOA

LH5-6

- **Bigarren saria** Daniel Wang, Nikole Urretabizkaia eta Goiatz Belategi.

Lehen saria

- Naroa Lertxundi.

DBH 1-2

- **Bigarren saria** Hutsik.
- **Lehen saria** Garazi Azkarate.

ILUSTRAZIOA

LH 5-6

- **Bigarren saria** Aitor Azurmendi.
- **Lehen saria** Enara Martin.

DBH 1-2

- **Bigarren saria** Nerea Dulugea.
- **Lehen saria** Unai Gorostiaga.

BERTSOPAPERA

LH 5-6

- **Bigarren saria** Nerea Poza eta Elena Moya.
- **Lehen saria** Aratz Arenaza.

DBH 1-2

- **Bigarren saria** Hutsik.
- **Lehen saria** Hutsik.

MIKROIPUINA

DBH 3-4

- **Bigarren saria** Aroa Garro.
- **Lehen saria** Alaitz Etxebarria.

BATXILERGOA

- **Bigarren saria** Naroa Urtaza.
- **Lehen saria** Kattalin Linazisoro.

POESIA

DBH 3-4

- **Bigarren saria** Alaitz Sanchez.
- **Lehen saria** Alaitz Sanchez eta Idoia Sanchez.

BATXILERGOA

- **Bigarren saria** Leire Arrizabalaga.
- **Lehen saria** Jokin Garitano.

KOMIKIA

DBH 3-4

- **Bigarren saria** Hutsik.
- **Lehen saria** Hutsik.

BATXILERGOA

- **Bigarren saria** Xabier Perez.
- **Lehen saria** Hutsik.



Felix Buff, Xan Bidegain, Jurgi Ekiza eta Vincent Bestaven. WILLIS DRUMMOND

Willis Drummond-ek osatuko du Koolturen hamarkada, Amaian

Ekainaren 3an izango da hitzordu hori; domeka honetan, Rukula taldea igoko da gaztetxeko oholtzara, 13:00etan

H.L. ARRASATE

Ondo ezagutzen dituzten bi talde gonbidatu dituzte Kooltureko antolatzaileek, Arrasaten, eta bereziki gaztetxean, behin baino gehiagotan egonak baitira Rukula eta Willis Drummond-ekoak. Lehen taldeak Kooltur Domekak eskaintzaren baitan joko du, eta bigarrenak, denboraldia agurtzeko emanaldi berezian. Talde horretako Xan Bidegain baxu-joleak aipatu du "ilusio handiz" jaso zutela mezua, Arrasaten harreman "hurbil eta onak" uztartu dituztelako beti.

Abendua ezker, egoera berri-ira moldatutako "dozena inguru kontzertu" eskaini ditu Lekornen ereindako bandak. Eszenaratzea eta errepertorioa moldatu behar izan dute, "arraroa" egiten zitzaielako ikusleak eserita dauden bitartean "bolumen, argiztapen eta izerdiz jositako ohiko ikusizunekin" jarraitzea.

Artean kolektiboak erakusketa irekiko du ekainaren 4an

Herriko hamaika emakume artistak norbere espezialitatean ondutako lanak jendaurrean ikusgai jarriko dituzte Kulturateko klastroan, ekainaren letik 22ra. Inaugurazioa gaur zortzi egingo dute, 19:00etan, Ekiñe Casadoren, Maria Osesen eta Olatz Urkiaren emanaldiarekin. Gonbidapenak gaur arratsaldean eskuratu ahaliko dira, Kulturaten.

Laukotea osatzen dute orain, Vincent Bestaven *Botibol* musikaria batu baitzaie gitarrak, teklatuak eta koruak osatzera: "Abestiak bizkor ikasiko zituen norbaiten bila ari ginen, eta Felix Buff gure bateria-jolearekin batera aritutako pertsona hori egokia zela iruditu zitzaigun; bera ere gustura dabil gurekin". Formazio berriarekin, kantua "modu lasaigoan" aurkezten hasi ziren, beraz.

Datorren egunean igoko da Willis Drummond Amaia oholtzara, 19:00etan hasita. Koolturen hamargarren urteurren gorabeheratsuari agur esateko kontzertua izango da; antolatzaleek, Udalarekin elkarlanean, herriko kultura areto nagusian programatu dute emanaldia oraingoan, gaztetxean sartu ezingo ziren musikazale askok emanaldiaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Arrasate Margo Taldearen arte merkatua bihar

Martxo eta apirila artean irekitako galeriari jarraipena emanez, herriko margolari taldeko hamalau kideren olio, akuarela eta akrilikoak aurkituko ditu zapatu goizean 10:00etatik 14:00etara Seber Altube plazara gerturatzen denak. Koadrook, ikusgai ez ezik, salgai ere jarriko dituzte, "poltsiko guztietara moldatutako prezioan".

Gaztetxoan emanaldia eguaztenean izango da

Musika eskolak musikaz beteriko astea antolatu du. Ikasturte osoa musika etxean egin ondoren, ikasitakoak kalera ateratzeko gogoz daude ikasleak eta irakasleak. Hain zuzen, musika eskolako emanaldia eguaztenean izango da, kultura etxean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Ikasturte berezi honi amaiera eman eta betiko errutinak berriz hartzeko gogotsu daude musika eskolako irakasleak eta ikasleak. Betiko errutinen artean daude musika kalera ateratzea, izan kantuan, izan emanaldi bidez. Hala, Musika Asterako prestatu duten egitarauan tarte zabala egin diete emanaldiei.

Emanaldi bereziena eguaztenean izango da, ekainaren 2an, 17:30ean. Musika eskolako gaztetxoek ikasturtean zehar ikasitakoak erakutsiko dituzte kultura etxeko oholtza gainean. Ordu eta erdi iraungo du emanaldiak eta taldetxoetan eskainiko dituzte piezak. 30 bat neska-mutiko igoko dira oholtzara.

Ate irekiak martitzenean

Martitzenean, ekainaren 1ean, musika etxearen ate irekiak egingo dituzte, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Modu ofizialean estreinatuta barik dagoen arren, irailaz geroztik dabiltza eskolak ematen musika etxean. Larraitz Arriolabengoa eta Manex Arriolabengoa dira irakasleak, eta pozik daude leku berriarekin. "Oso positiboa izan da hona etortzea. Leku gehiago dugu, eta horrek aukera ematen du beste gauza batzuk egiteko. Pedagogikoki asko irabazi dugu", dio Larraitz Arriolabengoa.

Pianoa, gitarra, musika hezkuntza eta txikitxoenei zuzendutako musika eta mugimendua eskaintzen dituzte. Horrez gain, Trikitikalejira trikiti eskolak trikiti eta pandero eskolak eskaintzen ditu egubakoitzetan.

Bi kontzertu berezi

Musika eskolako egitarauaren barruan, bi emanaldi eskainiko dituzte: ekainaren 3an, jazz kontzertua eskainiko du Jose Barrio Quartet taldeak. Kultura etxean izango da, 18:30ean. Horrez gain, musika klasikoak bere tartetxoan



Larraitz Arriolabengoa eta musika eskolako ikasleak batzuk. A.E.

MARTITZENEAN MUSIKA ETXEKO ATEAK ZABALDUKO DIZKIOTE INTERESA DUEN EDONORI

izango du zapatuan: harpez eta zeharkako txirulaz osatutako bikote batek emanaldia egingo du kultura etxean, 18:30ean. "Marion Desjacques Bilboko Orkestra Sinfonikoko harpajotzailea da", dio Arriolabengoa. Zeharkako txirula, berriz, Alberto Itoiz nafarrak joko du.

Alaiak kantu taldea

Egubakoitzetan, ekainaren 4an, Alaiak kantu taldearekin batera kantu emanaldia egingo dute parkean, 17:30ean: "Asko kantatzen dugun herria gara, baina aurtengo egoeran ez dugu ezer egin".

Bestalde, trikiti eskolakoek emanaldia egingo dute domekan, 12:00etan, Azkoagan. Debagoieneko trikitilarien emanaldia izan beharko litzateke, baina, egoerak behartuta, eskola baikoitzak bere herrian joko du.

Musika Asteko egitaraua

Egitaraua

- **Maiatzak 31** *Chico y Rita*, 18:30ean, kultura etxean.
- **Ekainak 1** Musika etxearen ate irekiak.
- **Ekainak 2** Musika eskolaren emanaldia, 17:30ean, kultura etxean.
- **Ekainak 3** Jose Barrio Quartet, 18:30ean.
- **Ekainak 4** Kantuz kalean, 17:30ean.
- **Ekainak 5** Musika klasikoak, 18:30ean.
- **Ekainak 6** Trikitilariak, Azkoagan, 12:00etan.
- **Ekainak 6** *El piano*, 19:00etan.

Zinemari ere lekutxo

Musikak zinemari izan duen eragina ikusteko, bi film emanango dituzte: astelehenean, 18:30ean, kultura etxean, *Chico y Rita*; eta ekainaren 6an, 19:00etan, kultura etxean, *El piano*.

Herriartekoan, Aramaiok galdu egin zuen Amurrioren aurka

Aste bukaera honetan atsedena izango dute; trinketean, aldiz, finalerdietan dira Aramaioko pilotariak

A.E. ARAMAIO

Arabako Herriarteko Txapelketako hirugarren jardunaldian, Aramaiok 2-1 galdu zuen Amurrioren aurka. Aste bukaera honetan, aldiz, Aramaiok ez du jardunaldirik jokatu; ekainaren 5-6ko aste bukaera izango dute hurrengo jardunaldia, Agurainen aurka. Behin ligaxka amaituta, finalerdiak izango dituzte, ekainaren 12-13ko aste bukaera, eta finala ekainaren 20an izango da, Laudion.

Aramaioko pilotariak, Arabako Herriartekoan lehiatzeaz gain,

trinketean ere badabiltza, eta aste bukaera hiru jardunaldi izango dituzte: batetik, Markel Arriolabengoa atzeratuta zuen lehia jokatu du egubakoitzetan: Maitena trinketean, 19:00etan, Amurrioko Arauzoren aurka. Partidu hori irabazten duenak zapatuan izango du hurrengo lehia, finalerdietan: Xabi Errastiren aurka, 16:00etan, Astronomos pilotalekuan. 22 urtez azpikoen kategorian, Asier del Campok, finalerdia jokatu du bihar, 10:00etan, Amandoren aurka, Astronomosen.

Gorbeialdeko bertso abentura egingo dute ekainean, hiru egunez

Ekainaren 22an, 23an eta 24an Manurgan egingo dute urteroko bertso abentura. *Bertsozale.eus* atarian egin beharko da izenematea, ekainaren 11 baino lehen. 10 eta 13 urte bitarteko haur bertsozaleentzako egonaldia izango da. Eskualdea ezagutzeaz gain, hitzarekin jolasteko aukera izango dute. Autobus zerbitzua egingo da.

Bihar amaituko da udalekuetan izena emateko epea

Bihar, maiatzaren 29a, izango da udalekuetan izena emateko azkeneko eguna. Aurtengo berrikuntza izango da 2 urteko haurrek ere udalekuetan parte hartzeko aukera izango dutela. Udalekuak uztailearen 7tik 23ra bitartean izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Begirale izan nahi duenak ere bihar izango du izena emateko azken eguna.



A.E.

Loreekin apaintzen ikasten

Jakoba Errekondok entzuleen galderak eta zalantzak erantzunez hasi zuen hitzaldia martitzenean. *Aramaio loratzen* ekimenaren barruan egin zuen solasaldia, loreen zaintzaren eta estetikaren ingurukoa. Gogoratu behar da Udalak antolatutako lehiaketan izena eman nahi duenak udaletxean eman beharko duela, ezinbestean.



Manex Agirre eta Martin Abarrategi, Aramaion, txapela buruan dutela. A.E.

"Kartzelakoaren ondoren ikusi genuen irabaz genezakeela"

MANEX AGIRRE ETA MARTIN ABARRATEGI BERTSOLARIAK

Arabako lehenengo binakako bertsolari txapelketako txapeldunak dira aramaioarrak. Zapatuan Legution jokaturako finalean 828 puntu lortu zituen bikoteak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Pozik daude Agirre eta Abarrategi. Txapelketak izan duen formatu berrira egokitu behar izan dute aurten; baina konfiantzazko bikotekidea izatea lagungarri izan zaie.

Nola gogoratzen duzue zapatuak emandakoa?

Martin Abarrategi: Goizean urduri egon arren, agurra abestu eta lehenengo ofizioa Manexekin egon ostean lasaitu egin nintzen; larregi, agian. Izan ere, ondoren, hamarreko txikian ez nintzen batere fin ibili. Ondoren, poz handia

hartu genuen emaitza jakin genuenean.

Saioa aurrera joan ahala, txapeldun ikusten zenuten zeuen burua?

Manex Agirre: Ez; nik, hasieran, ez. Martinek hamarreko txikian asmatu ez bazuen, lehenago,

"TAULAK, LASAITASUNA... LANTZEA GERATZEN ZAIT, ETA BADAUKAT NORI BEGIRATU"

MARTIN ABARRATEGI, BERTSOLARIA

nik, zortziko handian, oso txar-to egin nuen. Kartzelako saioan ondo aritu ginen eta ikusi genuen beste bikoteek hutsen bat egin zutela, eta orduan konturatu ginen, beharbada, irabaz genezakeela... Hala ere, azkenera arte ez da jakiten. Gainera, zortzi puntuko aldearekin irabazi genuen. Hori ez da ezer.

Herrikide izatea aldeko izan duzue?

M.Ag.: Bai, nik uste dut baietz. Aspalditik ezagutzen dugu elkar, bertso eskola berekoak gara... Ez dakit, ez dugu bereziki landu txapelketa: Martin

Gasteizen bizi da eta ni hemen... Gehiago landu izan bagenu, hobeto izango zatekeen.

M.Ab.: Eraginik izan badu, positiboki izan da.

M.Ag.: Ez dago zalantzarik. Gauzak adosteko orduan, adibidez, ez dugu zalantzarik egin.

Zer nabarmenduko zenuke bikotekideaz?

M.Ag.: Nik espero dut txapelketa hau izatea plazara salto egiteko arrazoi bat. Uste dut egiten duela bertsotan ondo, neurtzen eta bertsoa betetzen; eta bukarako ideian gero eta indartsuago. Bakarka abestu zuenean lehenengo bertsoa, finalean, pentsatu nuen: "Tipo hau nondik irten da?". Plazaz plaza ibiltzeko moduko bertsolari bat iruditzen zait, eta ez bi urte barru, baizik eta orain.

M.Ab.: Nik uste dut Manexek bete dituela nire hasiberri hutsune guztiak. Oholtzan jartzeko taulak, lasaitasuna... Uste dut niri oraindik lantzea geratzen zaidala eta badaukadala nori begiratu. Ni baino esperientzia handiagoa du.

Oholtza gainean rol horiek bete dituzue?

M.Ag.: Egia esan, nik Martin nahiko lasai ikusi dut. Gainera, pentsatu izan dut, "zertan hasi behar dut... animo, Martin!", horrela denbora guztian? Ez, kontua ez da hori. Badakigu bakoitza zelakoa den, eta beharra egon denean esan dizkiogu gauzak elkarri.

Gustatu zaizue binakako formatu berri hau?

M.Ab.: Nik uste dut bakarkakotik asko izan duela. Ariketak bakarka egitekoak izan dira, eta esango nuke binakako txapelketako berdina izan direla. Baina badauka laguntza puntu hori: bakarrak abestuko da, baina puntuak bikotekidearenekin batera gehituko dira. Horrek sortzen du halako babes puntu bat.

M.Ag.: Bai; lehenengo aldia izan da, eta, agian, ez du eman hainbesteko aukerarik, baina komentatu izan dugu, baita txapela

"BADAUKIGU ZELAKOAK GAREN; BEHARRA EGON DENEAN ESAN DIZKIOGU GAUZAK ELKARRI"

MANEX AGIRRE, BERTSOLARIA

pelketan zehar ere, bien arteko lanari eta harremanari etekin gehiago ateratzeko aukera eman dezakeela formatu honek. Bestalde, uste dut zerbait ona izan bada, izan dela bertsolari berriak eta hainbeste ikusten ez direnak bistartzeko aukera: Martin bera, Unai Anda, Manu Bendala... Mediatikoki honek izan duen erantzuna euren dako da ona. Beste modu batera zailagoa izan daiteke hona iristea, eta honek aukera hau ematen du.

Zuk, Manex, binakako bi txapel bazeneuzkan, eta orain, binakakoa lortu duzu. Zuk, Martin?

M.Ab.: Uste dut bizitzan irabazi dudana lehenengo gauza izan dela [Barre]. Binakakoa... momentuz, amestea da. Orain arte, behin bakarrik kantatu dut, eta ez nintzen sailkatu.

Udara begira, txapel honek atek zabalduko dizkizue saioak egiteko?

M.Ag.: Bai, nik espero dut baietz, baina, horretarako, saioak egon behar dira. Ematen du etorriko direla; nik uste dut egoera zein izango den zain daudela antolatzaileak. Baina, guri baino gehiago, hauendako izan beharko litzateke: Martin, Unai, Manu, Aroa... Atzetik datorren jendearendako izan dadila bultzada.

M.Ab.: Bai; nik eskertuko nuke. **Txapelak Aramaiora etortzea ez da kasualitatea izan. Ondo lan egiten den seinale?**

M.Ag.: Bai; nik beti esaten dut Aramaion ez dela kanpaina handirik egin behar umeek bertso eskolan izena emateko. Nik uste dut dela momentuan dabiltzan irakasleei eta arduradunei esker. Orain, Martin, Aitor Ugarte, Peru... Gu ere ibili ginen, eta pozgarriena da naturalki egiten dela. Umeendako zerbait erakargarria da, gustukoa; eta, gainera, ikusten dute fruituak ematen dituela.

Amaierako agurrak hunkigarriak izan ziren. Nori eskainiak?

M.Ab.: Lagunei; bereziki, bertsozaleak izan barik, Legutiora etorri eta bi orduko bertso saio bat entzuteak esfortzua eskatzen duelako. Horregatik eskaini nien eurei; eta euren aldetik erantzun ona jaso dut.

M.Ag.: Bertso eskola askotan aipatu izan dut. Oholtza gainera bakarka igotzen gara, baina guk talde-lan moduan ulertzen dugu hau, eta beste modu batera ez dakigu funtzionatzen. Keinu bat izan zen; gainera, ospakizuna egiteke dago!

Haur Hezkuntzako gelak berritzear Kurtzebarrin

Lanak lizitaziora atera dituzte, uztailen ekiteko asmoarekin, eta 307.500 euroko inbertsioa ekarriko dute; horietatik, 123.000 euro Udalak jarriko ditu eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzarekin finantzatu dute

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzari dagokion eremua eraberritzeko asmoarekin lanak lizitaziora atera ditu Udalak, 307.500 eurotan; 123.000 euro ordainduko ditu horrek eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak Udalaguntza programaren bidez emandako dirulaguntzarekin finantzatu dute.

Ikasturtea bukatu ondoren, uztailen, abiaraztea lanok da asmoa, Unai Elkoro alkateak aurreratu duenez: "Oporrak aprobetxatuz udan lanen zatirik handiena egiteko". Eta horiek hiru hilabete inguruan bukatzea aurreikusten dute, urri bukararako beranduenez gertu egiteko. "Obrak bukatu bitartean, lau bat gelatako ikasleak Arkupe egongo dira, baina Haur Hezkuntzakoak beharlean Lehen Hezkuntzakoak lekualdatuko dira", zehaztu du Elkoro.

Irisgarritasuna eta berokuntza

Ipark Arkitektura enpresak idatzi du proiektua, eta eraikinarren iparraldeko muturra birmoldatuko da. "Irisgarritasunetik hasi eta beste hainbat hobekuntza egongo dira", adierazi du alkateak proiektuaren berri ematerakoan.

Urtebeteko eta 2 urteko ikasleentzako irisgarritasuna hobetzeko, gaur egungo eskailerak kendu egingo dituzte, eta arrapala bat jarri. Horretarako, lurzorua 15 zentimetro altxatuko dutela zehaztu dute, araudiak eskatzen duen %8ko gehieneko malda egokitzeke. Gela horiek lau ate lerragarriekin zoru erradiatzaileko berokuntza sistema batez hornituko dituzte. Bestalde, 3 eta 4 urte bitarteko ikasleentzako gelak eta psikomotrizitate gela ere eraberrituko dituzte.

Horiekin batera, bi komun berri ere egingo dituzte: batek urtebeteko eta 2 urteko ikasleentzako zuzendakari sarbidea

ESKAILEREN ORDEZ ARRAPALA JARRIKO DA ETA GELETAN ZORU ERRADIATZAILEKO BEROKUNTZA

izango du eta besteak, berriz, nagusien eremutik.

Leiho guztiak ere berrituko dituzte isolamendu termikoa hobetzeko, baita ateak, instalazio elektrikoak eta berokuntza sistema ere. Era berean, pasilloari etekin handiagoa atera gura diote, eta argitasuna irabazi. Horretarako, Santa Kurtz kalera ematen duten ikasleentzako barruko hormak beiraz estaliko dituzte, eta ikasleentzako erakutsi bertatik.

Kanpoaldean, ostera, jolastokira irteteko arrapala irisgarritasun-araudira egokituko dute.

Eskolakoak "pozik" daude

Kurtzebarri eskolako zuzendari Mikel Uribarren oso pozik dago: "Orain dela bost urte ekin genion proiektu honi; familiak eta irakasleak elkartu, eta eskolarentzako hobekuntzak proposatu

genizkion Udalari. Gure ametsa egia bihurtzen dabilela esan genezake gaur".

Ikasleak erdigunean jarri gura izan dituztela adierazi du, eta horren baitan proposatu aldaketak: "Ikasleak eroso egon daitezten eta gustura etor daitezten gura dugu. Eta gure begiradapean egotea, gu bidelagun izango gaituztelako. Horren harira, aldaketa metodologikoak daude, eta aldaketa teknikoak ere bai". Hain zuzen, metodologiari dagokionez, espazio multifuntzionalak egokituko dituztela gaineratu du: "Gelan egongo dira, baina ate irristagarriekin esker moldatu egingo dira gela horiek; txoko gehiago ere egongo dira".

Hurrengo faseak, zehaztear

Lan horiek guztiak lehen fasearen barruan daude, eta gehienak eraikinarren behetako solairuari dagozkie. Proiektuak beste hainbat fase ditu, eta 929.800 euroko aurrekontua, guztira. Ondorengoetarako oraindik ez dagoela datarik zehaztuta jakinarazi du alkateak. Dena den, aurreratu du sukaldia, jangela eta aldagelak eraberritzea dela asmoa, eta patioan aterpe bat eraikitzea.



Unai Elkoro alkatea eta Mikel Uribarren, Kurtzebarri eskolako zuzendaria. T. MADINA



NIRE USTEZ

IKER CARRASCO MENDEZ

Kalistenia

Bada urte eta erdi aretxabaletar talde batek Udalarikiroldegiaren parean kalistenia parkea egiteko eskatu ziola. Indarra garatzeko norbere gorputzaren pisua altxatzean datzan kirol mota da kalistenia.

Flexio edo *sentadilla* bezalako ariketak, makinaren beharrik ez dutenez, kalean praktikatzeko aproposak dira. Halere, bertatik zintzilikatzeko habe eta antzeko egiturekin baliatuz, *dominatuak* eta bestelako ariketa anitzagoak burutu daitezke.

Honelako azpiegitura zen zaleek Udalarik eskatzen ziotena, skatepark berria dagoen zelaian. Baina skatepark zaharraren egoera kaxkarra kontuan hartuta, honek behar duen zaharberritzea kalistenia egiturak gehitzeko aukera egokia iruditzen zait.

Kiroldegien eta gimnasioen erabilpen murrizketak noiz arte mantendu beharko ditugun ez jakiteaz aparte, badakigu gune irekietan kutsatze arriskua txikiagoa dela. Horregatik, aire zabalean kirola egiteko baliabideen eskariari erantzuna emateko garaia dela uste dut.

Pentsiodunek elkarretaratzea egingo dute bihar

Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek pentsioen alde elkartzera deitu dituzte aretxabaletarrak. Bihar, zapatua, egingo dute bilkura, Herriko Plazan, 12:00etan.

Erretiratuen eskaera nagusiak bi dira: pentsioen igoera KPIaren arabera izatea jasoko duen lege bat eta gutxieneko pentsioa gutxieneko soldataren zenbatekoaren berdina izatea.

Basotxoko kideek uste dute herritar guztien inplikazioa behar dela kontu horretan: "Guztiok batera egin behar dugu borrokan, indarrak batzeko dagoeneko erretiratuta daudenekin zein erretiratzen joango diren horien pentsioen alde".

OHARRAK

Odol ematea

Odola emateko aukera izango da astelehenean (16:45-20:00), Durana kalean izango den autobusean.

Ipuin kontaketa

Aladin eta kriseilu miragarria ipuina kontatuko du Imane Chaichek martitzenean, hilaren 1ean, udaletxe zaharrean (17:00); aurrez eman behar da izena, Loramendin.

Musika eskolako izen-emate epea zabalik dago

Leizarra musika eskolak ikasle berrien matrikulazio kanpainan jarri du abian eta izena emateko epea zabalik izango da ekainaren 18a arte.

Hain zuzen, 5 urtetik hasitako eskaintza dute bertan; besteak beste, haurrentzako musika tailerrak, musikaren teoria eskolak, abesteko gaitasuna lantzeko saioak, musika instrumentuak jotzen ikasteko eskolak –hari zein metal instrumentuak, baita perkusioa ere– eta dantza eskolak.

Argibideak gura dituenak edo izena eman gura duenak musika eskolara jo dezala: *leizarra.matrikulazioa@gmail.com* 943 08 10 01 edo 609 83 53 17.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Euspoteko sari nagusia Idiazabalera joan da

Hamargarrenez egin den lehiaketak osasuntsu jarraitzen du; izan ere, 87 spot aurkeztu dituzte, iaz baino 36 gehiago. Sari nagusia Iñigo Zapirainek jaso du, 'Geroa ereiten' lanagatik, eta kalitate teknikoa eta mezuaren egokitasuna nabarmendu ditu epaimahaiak

Mirari Altube ARETXABAETA

Hamargarrenez egin den Euspot lehiaketak bete egin zuen Arkupe atzo, eguena, iluntzean. *Nekazaritzatik bizi nahi dugu!* gaiaren bueltan sortutako euskarazko spotik onenek jaso zituzten sariak, Ane Zuazubiskar kazetariak aurkeztutako eta Eñaut Zubizarreta biolontxelo-joleak girotutako ekitaldian.

2.800 euro saritan banatuta

Sari nagusia -1.000 euro- Idiazabalgo Iñigo Zapirainen *Geroa ereiten* lanak jaso zuen. Epaimahaiak nabarmendu zituen horren kalitate teknikoa eta mezuaren egokitasuna. Mondragon Unibertsitateko spotik onenaren saria -500 euro- Oñatiko Sara Iriarterendako, Garaia Pagolarendako eta Danel Terandako izan zen, *Nik ez ditut sustraiak moztuko* lanagatik.

Musika sinkronizazio onenaren saria -300 euro-, ostera, Amaia Renobales durangarrak eta Iban Garcia azkoitiarrak egindako *Nondik datorren jakin* spotak jaso zuen, baita publikoaren saria ere -500 euro-. Publikoak astebete izan zuen 87 lanen artean gustukoena hautatzeko aukera, eta guztira 3.000 boto baino gehiago jaso direla aurten aipatu dute antolatzaileek.



Geroa ereiten spot irabazlearen irudi bat. IÑIGO ZAPIRAIN

Gazteen -18 urtetik beherakoak- lanik onenari dagokionez, berdinketa izan da, eta banatu egingo dute saria -250 euro- bi lanen egileek: Etxalarko Kemen Virtok, *Emakumeak eta baserria* spotagatik; eta Aretxabaletako Egoitz Grucetak, Erlantz Negrok eta Joanes Aranak, *Ez izan tuntu, erosi Km0* lanagatik. Arizmendi ikastolako ikasleen artean -250 euro-, ostera, Lur Bengoa, Nagore Garnateo eta Leire Calvo arrasatearrek eta aretxabaletarrek egindako *Etorkizunera begira* lana izan da saritua.

Iaz baino 36 lan gehiago

Aukeratutako gaiaren helburua izan da gazteak eta, batez ere, emakumeak landa eremura gerturatzeko, eta antolatzaileak - Aretxabaletako Udala, MU, Arteman eta Arizmendi-, pozik agertu dira aurtengo parte-hartze datuekin; izan ere, 87 spot aurkeztu dira, iaz baino 36 gehiago: 52 lan 18 urtetik gorakoek egindakoak, eta 35 izan dira 18 urtetik beherakoak. Euskal Herriko txoko askotatik iritsi dira horiek saritutako lanek erakutsi duten legez.

Gaztelekuko langileei babesa erakutsi diete hainbat herritarrek

Erabiltzaileen guraso batzuek idatzia aurkeztu dute udaletxean eta Batera guraso elkarteak babesa eman die

M.A. ARETXABAETA

Gaztelekuko erabiltzaile diren nerabeen hainbat gurasok idatzia aurkeztu dute udaletxean, begiraleek urtarrilean egindako eskaera kontuan hartzea eskatzeko: "Langileek euren lan-baldintzen inguruan Udalarik egindako eskaera aurrera ez doala ikusita sinadura bilketa bat egin dugu, gaztelekuko zerbitzuari eta langileei babesa adierazteko". Zehaztu dute 30 bat sinadura batu dituztela eta Kurtzebarri institutuko Batera Guraso elkartearen atxikimendua ere jaso dutela.

COVID-19a dela-eta arau murritzaileak gehiagora joanez gero gaztelekua zerbitzua nolabait irekita mantentzea eta bertako hezitzaileen lan-jarduna etenik gabe jarraitzea beharrezkoa dela uste dute, eta hori ziurtatu behar lukeela Udalak jaso dute idatzian. Hain zuzen ere, langileek egindako eskaera da hori. Gaineratu dute nerabeentzako erreferentzia-gunea dela eta "aisialdi sanoa eta euskalduna" eskaintzen dietela. Horregatik, "baliabideak erraztu eta baldintza egokiak bermatu" behar dituela Udalak.

GORA ETA BEHERA




GOIENA

Ibai alboko baranda, "berriz" apurtuta



Herritar batek salatu gura izan du kiroldegiraino doan ibai alboko pasealekuko baranda "behin eta berriz" apurtzen dutela: "Astoak bezala ostikoka zelan apurtzen zuten neuk ikusi nuen".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55



Iaz, abenduan, Eskoriatzako ostalariek laguntza eraginkorragoak eskatu zituzteneko elkarretaratzea. IMANOL SORIANO

Diru partida adostuta, beharra handiagoa

'Tokiko jarduera ekonomia suspertzeko' izenarekin partida bat ezarri dute udalbatzako kideek, herriko negozioei laguntzeko. Aldaketa horrekin, bakoitzak 1.200 euro jasoko ditu gastu finkoak aurre egiteko, eta beste 600 euroko osagarria terrazak hornitzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iaz, sustapen ekonomiko eta sozialen barruan, diru partida bat ezarri zen, -30.000 eurokoa- *Enpleguaren babesak COVID-19ak eragindako sektoreetan indargabetzea* izenekoa. Partida horretako diru guztia ez zen banatu, autonomoen kuotak ordaintzen laguntzeko zelako hasiera batean, eta kuota horiek barkatu egin zirelako. Orain, poltsa horretan geratu den diru kopuru horri izena aldatu diote, eta, *Tokiko jarduera ekonomikoa suspertzea* izenpean, onartuta geratu da, EAJren eta Elizateen baiezko botoekin eta Bilduren abstentzioarekin.

Dirua banatu egin behar da

"Diru hori osotasunean ez bada, zati handi batean banatu egin behar litzateke beharra dutenen artean, eta azken boladan ez gara halakorik ikusten ari. Azpimarratu nahi dugu laguntza horiek ez ematea dela-eta premiazkoa ikusten dugula haus-

narketa egitea", adierazi zuen Eluska Irazuk, EH Bilduko bozeramaileak, martitzeneko ohi-ko osoko bilkuran.

Gastu finkoetara bideratuta

Horren harira, EAJko bozeramaile Josu Ezkurdiak hau esan zuen: "Lanpostuak bermatzea zen hasieran planteatutako partidaren helburua. Diru guztia ez zen aprobetxatu, errealtateko baldintzak aldatu egin zirelako. Hori horrela, hainbat enpresa eta tabernak ezin izan zuten dirua erabili. Haiekien elkartu gara eta dirulaguntza bat diseinatu dugu, erabilgarriagoa izateko. Haien beharrak entzunda, zuzenean lanpostuak lagundu beharrean, euren kos-

GASTU FINKOETARA ETA TERRAZAK HORNITZERA BIDERATUTAKO PARTIDA, ONARTUTA

tu finkoetan laguntzea adostu dugu. Horretarako, 1.200 euroko laguntza planteatzen da negozio bakoitzarentzat, eta beste 600 euroko osagarria terrazak hornitzen laguntzeko".

Ostalarien zapora gazi-gozoa

"Adostutakoa bada ere, aurretik ateratako partidaren sobratu zen dirua da, ez da handitu laguntza. Gastu finkoari aurre egiteko zatiari eman diogu garrantzia ostalariok, terrazak hornitzeko laguntza dela-eta zenbaitez ez dutelako terrazarik, edo probisional dute; beraz, inbertsio bat egiteko prest gutxi daude. Zenbait baldintza bete behar ditugu laguntza hauek jasotzeko, eta jakitun gara ez garela kalteu bakarrak, baina ez da nahikoa. Horrekin batera, bonuak ere badaude. Iritzi kontrajarriak daude ostalarien artean: zenbait uste dute herritarrei laguntzen diela, eta ez ostalariei", adierazi du Usune Bengoak, Ostalarien Taldeko ordezkariak.

San Pedro jaiak bertan behera utzi ditu Eskoriatzako Udalak

Baldintzak hobetzen diren arte, eskoriatzarrei erantzukizunez jokatzeko eskatu die Udalak

I.B. ESKORIATZA

COVID-19aren pandemiaren ondorioz jaiak normal ospatzeko bermerik ez dagoenez, Udalak San Pedro jaiak bertan behera uztea erabaki du, baina aurrerago, baldintzak hobetzen direnean, jaietan tradizionalak diren jardueraren batzuk egiteko esperantzarekin.

Pandemiaren bilakaeraren arabera, litekeena da laster berriro jarduerak eta ekitaldiak egin ahal izatea, eta badirudi kulturaz eta jaiez gozatzeko gutxi falta dela, baina, une hori

iritsi arte, eskoriatzarrei erantzukizunez jokatzeko jarraitzeko eskatu die Udalak, orain arte egin duten bezala, birusak aktibo jarraitzen baitu eta oraindik ere jendea gaixotu egiten baita.

Udaletik adierazi dutenez, San Pedro egunean, zaindariaren eguna ospatzeko, ikurrinak eta Eskoriatzako banderak balkoietan jartzera animatu nahi dituzte herritarrak. Eskoriatzako bandera liburutegian, Dorleta paper-dendan eta Carmen merterian eros daiteke, 10 eurotan.

Udaleku irekietan izena emateko epea luzatu egin dute

Uztailaren 5etik 23ra eskainiko dute 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako udarako programa: udaleku irekiak. Aurten, joan den urtean bezala, COVID-19aren pandemia dela-eta goizez izango dira udalekuak: hain zuzen, 09:00etatik 13:00ak arte.

Izen emate epea maiatzaren 13an itxi zen arren, oraindik udalekuetan parte hartu ahal

izateko plazak batzuk libre dardela adierazi du Eskoriatzako Udalak. Horiek horrela, ekainaren 3a arte izena emateko aukera izango dute nahi duten haurrek.

Izena emateko, dokumentazio-formulario bat behar da, eta ordainketa-agiria bidali *txiriki-la@gmail.com* helbidera. Galdegia eskuratu edo zalantzak argitzeko, Tortolis ludotekara joan daiteke, Santa Ana kaleko 17. atarira, edo 688 60 13 74 telefono zenbakira deitu.

GORA ETA BEHERA



AITOR BELOKI

Mazmela elizateko bankua, apurtuta

Mazmela elizatean dagoen bankua apurtuta agertua da. Herrigunetik Mazmelako elizara bitartean dago bankua; oinezko askorentzat, ibilbide erdian dagoen deskantsu-eremua.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Ibil Bedi musika taldeko partaideak. IBIL BEDI

Pop kutsuko kantuak eta bertsoak astebururako

Ibarraundi kanpoan ziren egitekoak asteburura begirako bi hitzordu kultural. Hala ere, eguraldi aurreikuspen txarragatik, Zaldibar antzokian egingo dituzte biak: zapatuan, 'Zapla' bertso saioa izango da eta domekan, Ibil Bedi taldearen kontzertua

Imanol Beloki ESKORIATZA

Asteburu honetan *Zapla* bertso saioa eta Ibil Bedi taldearen kontzertua ziren egitekoak Ibarraundi museo kanpoan, baina, eguraldi aurreikuspena ez denez ona, Zaldibar antzokian izango dira. Kultura Saileko kideek adierazi dutenez, bietarako geratzen dira gonbidapenak.

Bertsolari gazteen egitasmoa

Batetik, zapatuan, *Zapla* bertso saioa izango da, 18:00etan. Gipuzkoako zenbait bertsolari gazteren hausnarketatik sortutakoa plazaratzeko modu berri gisa aurkeztu dute egitasmoa, eta parte hartuko duten bertsolariak honako hauek izango dira:

Maddi Aiestaran, Julene Iturbe, Asier Ibarguren eta Onintza Enbeita. Gai-jartzailea, berriz, Olatz Zuazubiskar izango da. Saioa debalde da, baina gonbidapenak eskatu behar dira, *bertsozale.eus*-en edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta.

"Gipuzkoako bertsozale elkar-teak bultzatuta tailer batzuk izan genituen bertsolari gazteok. Horietatik ateratako ondorioekin antolatu dugu *Zapla*. Sei saio izango dira, guztira, sei bertso-eskoletako kideak egon garela-ko parte hartzen tailerretan. Normalean, bertsolari erreferenteen artean gazte bakarra izan ohi da, eta, kasu honetan, buelta eman nahi izan diogu

ohiko egoerari", adierazi du *Zapla* zirkuituko antolaketa taldeko Haizea Arana bertsolari eskoriatzarrak.

Pop musika saioa domekan

2018an Nafarroan sorturiko pop musika taldea da Ibil Bedi. Bi urteko ibilbide labur baina oparoa egin du taldeak, eta, gitarra, baxua, biolina, saxoa, bateria, teklatura eta ahotsa erabiliz, maitasunaz mintzo dira kantuetan; zalantzez, ezustekoez, galeraz eta bizitakoez, gehienbat. Euren abestiak, orokorrean, popa kutsukoak dira, nahiz eta bestelako ukitu batzuk ere sumatu daitezkeen zenbait kasutan.

Buzoien erretratuaren zozketako saria banatu dute Inkernun

Mikel Zubizarretak asmatu ditu Aizkorri-Zaraia, Maroto eta Andarto Txiki buzoien izenak, eta saria eraman du

I.B. ESKORIATZA

Aramaioiko, Gatzagako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako zenbait tontorretako buzoien 34 argazki batzen dituen erakusketa jarri zuten hilaren hasieran Inkernu tabernan.

Atxorrotx Kultura Elkar-teak antolatuta, mendiko buzoien argazki erakusketa zenbait buzoi izendatu barik jarri zituzten, herritarrek asmatzeko –Aizkorri-Zaraia, Maroto eta Andarto Txiki–.

Parte hartu dutenen artean eta izengabeko erretratuak nongoak diren asmatu dituztenen artean zozketa egin dute, eta Mikel Zubizarretarentzat izan da saria. Hain zuzen ere, Izan Bidea egitasmoa bi bastoi, txapela, banderaxoa eta poltsa bat jaso ditu. Antolatzailerek eskerrak eman nahi izan dizkiete parte-hartzaile guztiei. Hala ere, jakinarazi nahi izan dute erakusketa oraindik ikusgai dagoela, eta horiek ikustera animatu nahi izan dituzte herritarrak.



Agirre anaiak eta Imanol Kamio, saioa grabatzen. UNAI ETA EÑAUT AGIRRE

Agirre anaiak bertso-saio musikatua eskainiko dute

Zapatuan 18:30ean izango da saioa, Herriko Plazan, eta, edukiera mugatua izanda, 80 aulki jarriko dituzte

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Zapatuan, *Auskalo zeinek jarriak* izenpean, bertso saio musikatua izango da Leintz Gatzagako Herriko Plazan. Jendaurrean saioa eskaintzen arituko diren bertsolariak Eñaut eta Unai Agirre izango dira, eta emanaldi berria da eskainiko dutena.

Agirre anaien saioak garai bateko eta gaur egungo bertso jarriak berreskuratu eta musikaren laguntzaz aurkezten ditu. Lan horretan bidelagun, musikari gisa, Imanol Kamio izango dute alboan; teklatuarekin arituko da hura.

Hileko kultura ekitaldi nagusia

Gatzagako Udalak urtarrilean jakinarazi zuen moduan, hilero ekitaldi bat, behintzat, antolatzea du helburu. Hori horrela, maiatzeko kultura agendaren barruan hitzordu garrantzitsuena zapatu honetakoa izango dela adierazi du Beñat Agirreurretak, Kultura zinegotziak: "Sarrera doakoa izango da, baina 80 pertsonako muga jarri dugu. Hilabete honetako lehenengo hitzordua izango da, eta ekainerako ere ari gara beste hitzordu bat prestatzen. Sanjuanen baitan izango dugu zerbait..."

Dagoeneko zehaztu dute uztaileko udalekuak nolakoak izango diren

Jon Egidazu eta Miren Antxia izango dira uztailean izango diren udaleku irekietako eta itxietako begiraleak

I.B. LEINTZ GATZAGA

Gatzagako udaleku irekiak uztailearen 5etik 16ra bitartean egingo dituzte. Goizez 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldez 15:00etatik 17:00etara izango dira. Egubakoitzetan, baina, goizeko ordutegia soilik izango da.

"Irteerak martitzenetan eta eguenetan egitea erabaki dugu; eguraldiaren arabera moldatu egin daitezke. Aurrez prestatutakoak honako hauek dira: Hontza Extrem-era, Landara, igerilekura eta mendira egun-pasa.


Horrekin batera, gau bat Dorletako belardian pasatzea ere pentsatu dugu", adierazi du Nerea Altunak, Gureleko kideak. Izen-emateari dagokionez, udalekuetako egun guztietarako –60 euro– edo irteera solteetarako aukeratu daiteke, irteera bakoi-tza bost euro.

Udaleku itxiak, berriz, uztailearen 26tik 28ra bitartean egingo dira, Garaion Sorgingunean (Ozeta), 10 urtetik aurrerakoentzat. Prezioa 75 euro da, eta Jon Egidazu eta Miren Antxia izango dira begiraleak.

PAZKOAK 2021 EZ-JAIK

Yankiwibat taldearen *Are you ready for parranda?* izan da film laburrik onena. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO, XAXAU ETA BERGARAKO UDALA

Saio berezia egin zuen Goiena telebistak.



Hondarrezko marrazoa Boluko frontoian.

Zapore oneko mokadua, 2022an ohiko festekin asetzeko esperantzarekin

Mugikortasun muga barik eta jai egitaraurik ez izatera, asko eta asko izan dira kanpora egin duten bergararrak; herrian geratu direnek "kultura segurua" izan dute gozagai

Jokin Bereziartua BERGARA

Mugikortasun mugarik eta lanera joan beharrik gabe, asko izan dira kanpora egin duten bergararrak, eta herrian geratu direnek kultura eskaintza izan dute, bereziki, gozagai, Seminarioan. Antton Telleriaren *Nekatutak* ikuskizunean, Nerea Elustondo, Beñat Gaztelumendi, Maddi Ane Txoperena eta Sus-trai Colina bertsolarien saioan, Sua taldearen kontzertuan eta Xaxauren film laburren lehia-keketan herritarrek ederto pasatzeko aukera izan zuten. Gainera, Xaxauk umeendako antolaturakotako hondarrezko eskulturen tailerra ere "oso arrakastatsua" izan zen: "25 ume izan genituen, bi txandak beteta. Boluko frontoian egin genuen; Andoni Bastarrika irakaslea eta familiak oso gustura geratu ziren".

Ostalarien sentsazioak

Kaleko giroari temperatura hartzeko oso egokiak dira ostalariak; izan dute mugimendua, baina pandemia aurreko egoeratik "oso urrun". Esperientzia luzea duen Fernando Txabarririk aitortu du "kolpe handia" dela Pentekosterik ez izatea: "Jaiak sarrera oso garrantzitsuak izaten dira guretzat, eta kolpe handia

da. Kanpora joan ez direnek ez zuten lanik egin behar, beste edozein zapatu, domeka, astelehen edo martitzen baino askoz mugimendu handiagoa izan dugu. Jende gaztea parrandarako gogoz dagoela igarri dut eta uste dut pandemia ostean ere ondo pasatzeko gogorik ez dela falta-

ko". Ainhoa Romero ostalariaren arabera, mugimendu txikia izan zen, zapatuan ez ezik. "Zapatuan bai izan genuela mugimendu handia, baina gainerako eguntan ez dugu apenas jenderik izan; egun hauek ez dute zerikusirik pandemia aurreko jaietako giroarekin".



Gorka Artola alkatea eta Kristina Markina zinegotzia zapia jartzen bi ume jaioberriri.



Eguraldiagatik, Usondo parketik Seminarixora lekualdatu zuten bertso saioa.

"Jendetza handirik gabeko" botila festak eta zeresana eman zuen prozesioa

Festarik ez da izan, baina "herritik herrirako mokadu kulturalaren" barruko ekintza guztietan sarrera guztiak agortu dira, Gobernuaren arabera. Pozik daude herritarren erantzunarekin eta eskerrak eman dizkiete kultura eskaintza posible izateko lagundu duten eragileei.

Iragarrita ez zeuden gertaerak

Izan dira egitarautik kanpo ere protagonismoa hartu duten gertaerak. Zapatu goizean, *Mojazahar* gazteen prozesioak zeresana eman zuen, eta herritar batek baino gehiagok salatu zuen pandemiako neurriak ez zituztela bete. Gorka Artola alkateak jaien testuingurutik kanpo kokatu zuen, eta dio ez zutela alde aurretik horren berririk izan. Bestalde,

botila festak ere izan ziren; bereziki, zapatu gauean. Besteak beste, San Martzialen eta goiko estazioan; bi gune horiek zikin esnatu ziren domekan. Udaltzainek ez zuten salaketarik jaso eta ez zuten isunik jarri; Ertzaintzak dei bat jaso eta

patruila bat estaziora igo arren, ez zuten isunik jarri. Hori bai, kale garbitzaileek "ohikoa baino lan handiagoa" izan zuten egun haietan: "Ez dituzte bakarrik botilak jaso, litxarreriak eta beste ere jaso dituzte. Guztioi dagokigu gure herria zaintzea".



Goiko estazioa izan zen domekan zikin esnatu zen guneetako bat.



Mojazahar gazteak, Santa Marinan.

Afrikako koloreen poza, Bergararekin fusionatua

Isabel Vargas jostun bergararrak Afrikako ehunekin egindako askotariko jantziak oinarri hartuta, Ndank Ndank elkarteak moda bilduma berria atera du, Senegalen martxan duten kultura proiektu bat indartzeko; lehen asteko salmenta "izugarri ona" izan da

Jokin Bereziartua BERGARA

Bigarren urtez jarraian jarri du martxan moda katalogo berria du Ndank Ndank elkarteak. "Negan zehar, Isabel Vargas jostun bergararrak Afrikako ehunekin askotariko jantziak sortu ditu. Bi kontinenteetako elementuak fusionatu ditu eta oso emaitza erakargarria izan da. Soinekoak, jakak, alkandorak eta halako jantziak sortu ditu. Era berean, gure modako ohiko jantziak -jakak, izerditzeko-jertseak, gonak...- Senegalgo ehunekin pertsonalizatu ditu".

"Izugarri ona" izan da harrera

Proiektu horren bitartez, Ndank Ndank elkarteak, batetik, kulturartekotasunaren aberastasuna transmititu nahi du elementu horien fusioaren bidez. Gainera, ehun koloretsuen bidez, gizarteari "komunitate afrikarraren poza" ekarri nahi diote. Horrez gain, proiektuak badu elkartasunetik, jantzietatik lortzen diren etekinak Senegalgo Dionewar herrian abian dauden proiektuetara bideratuko dira; hain zuzen ere, dagoeneko martxan dagoen kultura jardueretarako eraikinaren proiektua indartzeko baliatuko dute dirua.

Maiatzaren 21an jarri zituzten salgai bigarren bildumako jan-



Aladji Sarr eta Ainhoa Eguren, ilobekin, martitzenean, Usondo parkean. J.BEREZIARTUA

MAIATZAREN 21EAN JARRI ZUTEN SALGAI BILDUMA BERRIA, 'WWW.NDANKNDANK.ORG' WEBGUNEAN

tziak, eta harrera "izugarri ona" izan dela diote: "Internet bidezko salmenta jarri genuen martxan eta egun baten bakarrik sekulako salmentak izan genituen. Oso eskertuta gaude herritarrek izan duten erantzunarekin".

Eskerrak Udalari eta kooperatibei Bilduma berria ezagutzera emateko, Ndank Ndank elkarteak kideek eta boluntarioek The Badass Project argazkilari bergararrek gidatutako argazki saio bat egin zuten: "Oso pozik gaude argazkien estetikarekin". Honako webgune honetan kontsulta daiteke bilduma berria: www.ndankndank.org.

Amaitzeko, eskualdeko kooperatibei eta Udalari eskerrak eman dizkiete, proiektu horretarako eta beste batzuetarako emandako laguntza ekonomikoagatik.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

"Edozein lekutan" aparkatzen dutenei



Labegarrietako kiroldegi atzeko aparkalekua beteta, gidari batzuek "edozein lekutan" aparkatzen dutela salatu du herritar batek: "Erdigunean lorategiren baten aparkatzen badugu zer?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Bergarako odol emaileen elkarteak: omenaldia

Iaz, pandemiagatik, ezin izan zieten emaileei urteroko aitortzarik egin. Aurten, delegazio bakoitzak emango dizkie intsignia eta esker ona emaile fidelenei; Bergarakoekin telefonoz egon dira.

'TicketBAI' sistemaren gaineko jardunaldia

Ostalaritza eta merkataritzarendako sistema berriaren gaineko saioak egingo dituzte ekainaren 2an eta 3an, Seminarixoan. Izena eman daiteke dagoeneko Udalaren webgunean.

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa Uberan

Ekainaren 5ean izango da, Uberako elizan, 10:30etik 14:00etara. Izena eman behar da domekarako, 661 07 10 99 telefono zenbakira deituta edo uberaberpiztutaldea@gmail.com-era idatzita.

Liburu aurkezpena: 'Herriak ez du barkatuko'

Angiolillo liburutegiak antolatuta, Irati Goikoetxearen lanaren aurkezpena egongo da bihar, hilak 29, kartzela zaharrean (19:00).

Jardunen antzerki eskola Seminarixoan

Ikasturteari amaiera emateko, ekainaren 10ean (18:30) bi antzezlan taularatuko dituzte: *Umore on TB* eta *Ametsetan*.

Oxirondon, gaur eta ekainaren 4an

Internet bidezko salmenta espero baino askoz hobeto joan da, baina bilduma berriko stocka ez da oraindik agortu. Horregatik, aurrez aurreko salmentarako bi egun zehaztu dituzte: Oxirondoko azokan egongo dira gaur eta hurrengo egubakoitzean, ekainak 4, 17:30etik 19:30era: "Jantziak probatzeko eta erosteko aukera egongo da bertan. Zatoz".



Bilduma berria iragartzeko argazki saioa, Larramendin. THE BADASS PROJECT

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA
Enpresa Registrada 1100/025

"Inork jarraitu nahi badu, prest nago laguntzeko"

KOLDO LASA ERRETIROA HARTU DUEN SUKALDARIA

1994ko iraila ezkerro Lasako arduradun izan den sukaldari ezaguna erretiratu egin da, eta, etxean erreleborik izango ez duenez, ez daki zer gertatuko den jatetxearekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Etxekoek jarraituko ez dutela ziurtatuta eta erretiroa hartzeko erabakia hartu berri duela, Koldo Lasarekin amaituko da hiru belaunalditan zehar Bergarako eta Debagoieneko sukalde-familia esanguratsuenetak baten ibilbidea.

Hasteko eta behin: nola zaude?

Egoera bitxia da, baina ondo nago. Ia 70 urte ditut, eta ez nago 50 urterekin moduan. Zaila izan da erabakia hartzea; hori bai, jatetxearekin inork jarraitzeko asmoa badu, prest nago ahal dudana heinean laguntzeko eta nire esperientzia partekatzeko.

Erreleborako aukerarik badago?

2019rako erretiratzeko asmoa banuen eta bazegoen erreleboa hartuko zidan pertsona bat. Baina pandemia etorri zen eta dena joan zen pikutara. Hala ere, jatetxea egoera ezin hobean dago besteren batek har dezan; 2007an, tabakoaren kontrako legea zela-eta aire girotu bere-



Koldo Lasa, jatetxe barruan, 2020ko ekainean. IMANOL BELOKI

zi bat jarri nuen, pertsona kopuruaren arabera ke-kontrolatzaile batekin. Pandemian eskatzen hasi diren jatetxe barruko CO2 maila kontrolatzeko araua botoi bat sakatuta bakarrik bete daiteke, esaterako.

Fase barri bati ekiteko unea da orain. Zeintzuk dira zure planak?

Agenda beteta izango dut, ziur. Sukalde kontuetan gertu nago nahi duenari ahal dudanean aholkatu edo laguntzeko. Musikari dagokionez, badaukat zer

egin: zeharkako flauta, txistua eta gaita galiziarra jotzen hobetu nahi dut, adibidez. Ordenagailuekin eta teknologia berriekin dudana harremana ere hobetu beharrean nago, inbaditu egin behar gaituztelako eta gertu egon beharra dagoelako. Ingelesari eta frantsesari berriro ekiteko unea ere izango da... Denbora librerik ez dut izango apenas.

Noiztik egungo jatetxe arduradun?

Eraikina berritzeko lanak egin ostean, 1994ko irailaren 10ean ireki nuen jatetxea. Lasa zaharrean aritu izan nintzen, nire izebak arduradun zirela. Orduan, jendeak beste era batera gastatzen zuen dirua; ez zegoen asteburutan horrenbeste irteteko ohiturarik, eta egubakoitzetan eta zapatuetan topera aritzen ginen. Gutxika, ohiturak aldatzen joan dira; jendeak ondo pasatzea edota bidaiatzea lehenesten du ondo jatea baino. Dena den, ezkontza, komunio eta beste ospakizunetarako buru-belarri aritu izan gara azken urteetan.

Pandemia iritsi zen arte...

Izugarria. Hasieran, erreserba gehienak atzeratu egin genituen aurrerago gauzatzeko, baina larregi luzatu da; horregatik erabaki nuen aurrerakin guztiak bueltatzea eta dena gelditzea.

Nola bizi izan duzu pertsonalki?

Desastre hutsa izan da. Erakundeetatik jasotakoa ez da laguntza bat izan; galdu duguna ikusita, ez da limosna batera ere heldu. Denbora asko pasatuko

da ostalaritzak pandemia aurretik bizi zuen egoerara itzultzeko. Nire kezka handienetakoa bat da alarma egoerak ohiturak asko aldatu dituela; gero eta joera handiagoa dugu etxean geratu eta kalera ez irteteko...

Kalitatearen sinonimo izan da Lasa.

Kalitatea eta zerbitzu ona izan dira gure arrakastaren oinarria. Eraikina bera ahaztu barik, ondare handikoa da eta.

Zer galduko du herriak Lasa barik?

Bailarako jatetxeen artean erreferente bat izan gara. Lasa moduan jarraituko ez badu ere, espero dut besteren batek hartzea eta eraikina aprobetxatzea. Lehen harreman bat egin nuen Udalarekin eraikinari beste erabilera bat emateko, baina, oraingoz, ez dute interesik agertu. Pena handia emango lidake horrenbeste urtetako lanaren eta inbertsioen emaitza den eraikina erabilera barik galtzen ikusteak.

Azken mezu bat helarazi nahi duzu?

Eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan ondoan izan ditudanei. Egun gutxitan hainbat mezu jaso ditut, eta babes eta maitasun hori bueltan bidali nahi diet; egongo gara, oraindik luze bizitzeko asmoa daukat eta!

"KEZKATU EGITEN NAU OHITURA ALDAKETAK, GERO ETA JOERA HANDIAGO DUGU-ETA ETXEAN GERATZEKO"

Ekintzailatza sustatzeko jardunaldiak antolatu dituzte

Ekainaren 6an, 7an eta 8an izango dira, Miguel Altunan, eta izena eman behar da ekainaren 3a baino lehen

J.B. BERGARA

Ekainaren 7an, 8an eta 9an, Miguel Altuna Lankide Heziketa Institutuan ekintzailatza jardunaldiak egingo dira. *EKI-Nola Etorkizuna zure eskuetan* izeneko jardunaldiak dira, eta Miguel Altunak eta Udalak elkarlanean antolatu dituzte, Tknikaren, Enpresaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen laguntzarekin. Azaldu dutenez, autoenpleguaren inguruko sentiberatze lanketa eginez, enpresen eta ekintzaileen arteko harremana sortzea, el-

kar-egazutza sustatzea eta negozio ideia berritzaileak partekatu eta lantzea dira helburuak.

Idea irabazleari 1.000 euro

Egitarauari dagokionez, ekainaren 7an, enpresetako ordezkariak joango dira jardunaldietara, enpresen eta gazteen ideiak eta erronkak bateratzeko eta ondorengo egunetarako landu beharrekoak adosteko. Hilaren 8an, Miguel Altuna Institututik sortutako enpresa ekintzaile baten adibidea ikusiko dute parte-hartzaileek, eta



Udaleko eta Miguel Altunako ordezkariak, jardunaldiak iragartzen. BERGARAKO UDALA

ostean, ideien lanketa egingo dute, taldeka. Bukatzeko, ekainaren 9an, Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikariak dirulaguntzen eta baliabideen mapa azalduko du. Bestetik, antolatzaileek esan dute ideia

irabazleari 1.000 euroko saria emango zaiola.

Izena eman behar da ekainaren 3a baino lehen, eta, horretarako, honako helbide elektronikoko honetara idatzi beharra dago: urratsbat@maltuna.eus.

"Bigarren dirulaguntza zuzena" ostalaritzari, 35.300 eurokoa

44 ostalaritza eta ostatu establezimenduk 35.300 euro jasoko dituzte dirulaguntzetan COVID-19ak eragindako egoeran enpleguari eta jarduerari eusteko; lau geratu dira deialditik kanpo. Udalak ostalaritzari ematen dion "bigarren dirulaguntza zuzena" da hau. Bestetik, Udal Gobernuak erabaki du 2021eko abendura arte terrazak jartzeagatik ordaintzen den zerga ez kobratzea.

Laguntza programa horretara bideratutako diru kopuru osoa estaltzen duen eskaera jaso ez denez -70.000 euro aurreikusituen Udalak programa honetarako-, soberakina sektore berari bideratuko dio, beste dirulaguntza baten bitartez.

"Igoera honek bizitza aldatuko digu askori"

AITOR ARREGI AMOREBIETA-ETXANO TALDEKO JOKALARIA

"Herriko talde" batendako Bigarren Mailara jauzia egitea "oso handia" dela aitortu du Arregi bergararrak. Datorren denboraldian, "disfrutatzea" dute helburu

Jone Olabarria BERGARA

Eibar taldearekin igo zen Bigarren B Mailatik Lehenengo Mailara Aitor Arregi atzelaria (Bergara, 1990). Zapatuan, Badajozen aurka irabazi ostean, Bigarren Mailara itzuliko da bergararra datorren denboraldian. Talde "umila" izanda ere, jokalariek eta taldeak "posible zela" uste izan dute hasieratik, eta maila aldaketak taldekide askori "bizitza" aldatuko diela uste du jokalaria, profesional mailara bueltatuta.

Ez zineten faborito moduan joan Badajozera, baina aipatu duzue konfiantza handia izan duzuela beti zuengan...

Bai; 102 talde zeuden Bigarren B Mailan eta gu izango ginen aurrekontu txikiena zuten lau edo bosten artean sartzen zen taldeetako bat. Inork ez gintuen igoera honetan espero, baina guk konfiantza handia genuen taldearengan, jokariarengan. Urteak daramatzagu askok batera jokatzeko, eta nik uste dut horrek eraman gaituela une honetan gauden lekura.

Zelan bizi duzue pasa berri den asteburu hau?

Lagunak, familia, gertukoak... Badajozera joan ziren, eta, egia esanda, oso polita izan da. Jai bat izan da denontzat. Inork ez

zuen espero Badajozen, eta Badajozen aurka, gainera, irabaztea. Eguna oso polita izan zen, berezia guretzat.

Zelako balioa du igoera honek Amorebieta bezalako futbol talde barentzat?

Talde oso umila gara, herriko talde bat; Bigarren Mailarako saltoa ematea oso handia da. Askori bizitza aldatuko digu.

Profesional izatera pasatuko gara; jende askok lan egiten zuen futboleko jokatzeko gain; orain, profesionalki futbolera dedikatzeko aukera izango du.

Nola definituko zenuke Amorebieta, talde moduan?

Oso lehiakorrek gara; banaka ez daukagu hainbeste, baina talde moduan oso gogorrek gara. Gure aurka irabazteko gauzak



Amorebietako jokalaria, garaipena ospatzen Nuevo Vivero zelaietan. A.A.

Badajozen, etxeko babesarekin

Nuevo Viveroko harmailetan 7.000 zale batu ziren zapatuan; tartean, Amorebietatik joandako 500 lagun. Zaleen eta gertukoaren babesarekin "oso garrantzitsua" izan zela dio Arregik, eta, hain zuzen, han izan zituen gurusoak, senideak eta zenbait lagun bergararrak.



Aitor Arregi jokalaria bergararra 2018a ezkerrean ari da Amorebieta taldean. A.A.

oso ondo egin behar dira, guk beti defendatzen dugu gurea, eta aurkariak ez badauka oso egun onik, zaila izan daiteke gure aurka garaipena lortzea.

Zein da helburua Bigarren Mailan egingo duzuen denboraldi honetan?

Disfrutatzea, ahal den eta modurik onenean lehiatu eta ea denboraldi on bat egiterik dugun. Baina, batez ere, disfrutatzea tokatzen da.

Bizitza aldatuko dizuela diozu, baina aurretik ere egon zara antzeko egoera batean.

Bai; aurretik ere izan dut zorte hori. Pare bat igoeratan egoteko aukera izan dut, baina, batez ere, jende gaztearengan pentsatuz diot, haiei aldatuko zaie bereziki bizitza.

Eibarren jaitsiera zela bizi izan duzu?

Orokorrean, penaz. Nahiz eta pozten nauen datorren denboraldian elkarren aurka jokatzeko aukera izateak. Harreman estua dut taldearekin; fisio, entrenatzaile eta kide askorekin. Lagunak ditut. Zazpi urtez Lehen Mailan egon ostean, espero de-

zagun Bigarren Mailan denbora laburrez egotea eta berriz Lehen Mailara igotzea.

Zela gogoratzen dituzu Eibarrekin bizitako urte haiek?

Dena ondo irteten zen bi urte izan ziren, oso giro polita genuen, aldagelan ere ederto moldatzen ginen. Bi igoera jarraian lortu genituen eta oso berezi sentitu genituen, maitasunez bizitakoak. Datorren denboraldian hainbat euskal taldek bat egingo duzue Bigarren Mailan...

Ilusioz bizi dugu; beste taldeekin ere komentatzen egon gara azken asteetan, eta ideala zen bai Sansek eta baita Bilbao Athleticcek ere igoera lortzea. Pena izan da Bilbao Athleticena, baina argi dago euskal futbolak arrakasta duela, sasoi oneko dago.

"OSO LEHIAKORRAK GARA; BANAKA EZ DAUKAGU HAINBESTE, BAINA TALDE MODUAN OSO GOGORRAK GARA"

Udaberri txapelketako partidak domeka goizean pilotalekuan

Eguaztenean eta eguenean ere lehiatu ziren herriko pilotariak, eta Maddi Barrocalek irabazi egin zuen

J.O. BERGARA

Asteazken zehar bi hitzordu hartuta, asteburuan Udaberri txapelketako partidak jokatu dituzte pilotari gazteek Udala Pilotalekuan, eta tartean izango dira hainbat bergarar ere.

Eguaztenean, Gipuzkoako nesken lau eta erdiko txapelketako partida jokatu zuen Maddi Barrocalek, gazte mailan, eta 22-2 irabaztea lortu zuen Zubizarretaren aurka. Eguenean beste bi hitzordu hartu zituen frontoiak:

Udaberri txapelketaren barruan, nagusien bigarren mailan, Aitor Bergara eta Beñat Iñarra aritu ziren, Alde Zaharra taldeko pilotarien aurka. Eguneko bigarren partidaren berriz ere jokatu zuen Maddi Barrocalek, lau eta erdiko Gipuzkoako txapelketaren barruan, Arraizaren aurka.

Domekako hitzorduari dagozkionez, eta kadete mailako Udaberri txapelketaren barruan, Urko Lozanok eta Peru Alberdik jokatu dute partida, Gaztelekuren aurka, 10:30ean.



Maddi Barrocal, maiatz hasieran jokatuak Gipuzkoako lau eta erdiko finalean. J.B.

Sintetizadoreen 'abioia', hegaldiari ekiteko gertu

Bergara eta Urretxu-Zumarraga artean sortutako Hegazkin taldeak Seminarixoan joko du ekainaren 3an (19:00); 'Haize beltzak' diskoa labetik atera berri dutela, hiru emanaldi lotu dituzte: "Ez dago elektronika-zalea izan beharrik; zatoz, eta latz gozatuko duzu"

Jokin Bereziartua BERGARA

Urretxu-Zumarraga eta Bergara artean sortutako Hegazkin taldeak asteburu honetan abiatuko du *hegaldia*. *Haize beltzak* diskoa labetik atera berri, hiru kontzertu lotu dituzte: gaur, Zarauzko Putzuzulo gaztetxean (19:30) joko dute lehen kontzertua; ekainaren 3an, Bergarako Seminarixoan (19:00) egongo dira -sarrerak salgai daude dagoe-neko www.seminarixoa.eus-en; eta ekainaren 11n, Urretxu-Zumarragako Zelai-Arirtin (20:00). Alayn Carazo Iturriagak (Bergara, 1987) eta Iosu Isaias Villanueva Castro *Isuo*-k (Zarautz, 1987) osatzen dute Hegazkin.

Sintetizadoreak dituzte oinarri: "Askotariko soinuak ateratzeko gai dira eta esperimintatzeko aukera asko eman digu. Bi urtez aritu gara lanean disko honetan eta lehen urtea gure estiloa definitzeko izan da. Erritmo eta baxu sendoekin ahots melodikoa nahastu dugu eta oso pozik gaude emaitzarekin". Synth popa eta trip hopa lantzen dutela diote: "Synth popa 80ko hamarkadan gogor jo zuen musika estilo bat da, popa eta elektronika nahasten dituen. Trip hopa, aldiz, 90eko hamarkadan Bristol-en sortu zen elektronika genero bat da, non erritmo motelak diren nagusi. Massive Attack da estilo horretako talde nagusia".

Aurkitu bitartean, soinuaren bila Sorrera ulertzeko, Eyharts taldeak 2018an Urretxuko KuBeats jaialdian emandako kontzertura bidaiatu beharra dago: "*Isuo*-ri asko gustatu zitzaion Alaynek ateratzen zuen soinua, eta elkarrekin zerbait egitea proposatu zion. Alaynek baieztokoa eman zuen". Orduan hasi zen abentura, nahiz eta hasiera ez zen erraza izan: "Bagenuen susmoa zerbait ederra egin genezakeela elkarrekin, baina ez genekien zer nahi genuen, eta ezta nola



Hegazkin: Alayn Carazo Iturriaga eta Iosu Isaias Villanueva *Isuo*. ARITZ ORMAZABAL BARRIOS

'WWW.MUKURU.EUS' WEBGUNEAN ENTZUN AHALKO DA DISKOA, BAKOITZAK NAHI DUENA ORDAINDUTA

gingo genuen ere. Denbora eman genuen elkar ezagutzen eta bidea topatzen. Hasierako grabazio guztiak alde batera uzten genituen. Eta, azkenean, gustuko soinu batzuk lortzen hasi ginen, horiei forma ematen, erritmoak eta moldaketak fintzen, ahots melodiak eta letrak osatzen... Eta, bitartean, gure arteko laguntasuna ere sendotu egin zen".

Borrokan taldearen abesti batetik Hegazkin du izen taldeak, "izugarri" gustatzen zaien Borrokan talde beratarren abesti baten izenburutik datorrena: "Kristoren kantutzarra. Aritz Ormazabal -diskoaren diseinua egin duen laguna- ere oso gustuko du eta elkarrekin kantatu izan dugu parranda amaiera hunkigarrietan. Zuzenean entzuteko aukera ere izan dugu, eta espero berriz ere izatea. Aupa Bo-

rrokan!". Sei abestiz osatutako diskoarekin egingo dute debuta. CDa salduko dute kontzertuetan eta oraindik zehazteke dituzten beste "zenbait puntutan", eta, bestetik, formatu digitalean entzuteko eta deskargatzeko aukera egongo da www.mukuru.eus webgunean, erabiltzaile bakoitzak nahi duena ordainduta. "Euskal Herriko musika talde eta bakarlari batzuek osatzen dugun kolektiboa da Mukuru. Musikaren mundu individualista eta lehiakorrean, horizontaltasuna eta babesa bilatzen dugu".

"Bidaide bikainak" dituzte

Tripulazioko komandanteak Alayn eta *Isuo* badira ere, "bidaide bikainak" dituzte, hala nola Ander Bolibar Zabala, Ander Barriuso Muñoa, Aritz Ormazabal Barrios, Jokin Guridi Urrutia, Idoia Hernandez Toledo eta Mikel Arriaran Iraeta. "Ikaragarri eskertzen diegu laguntza!", diote. Gonbidapena eginda dago, beraz: "Ez dago elektronika-zalea edo Bristolgo eszenan aditua izan beharrik. Zatoz, eta latz gozatuko duzu. Harritu egingo zarete gure soinu, jarrera eta emozio jarioarekin. Argi ibili!".

Ainara Ortegak 'Onin' diskoa aurkeztuko du, Seminarixoan


Gaur izango da musikari eta aktore hernaniarraren disko berriaren aurkezpen kontzertua, 19:00etan hasita

J.B. BERGARA

Ainara Ortega musikari eta aktoreak kontzertua eskainiko du gaur, maiatzak 28, Seminarixoan (19:00). Sarrera batzuk salgai badira oraindik, www.seminarixoa.eus-en, zortzi eurotan.

Hogei urteko ibilbidea duen musikari eskarmentuduna da Ortega, eta bere taldearekin bi disko kaleratu ditu. 2015ean, *Scat* argitaratu zuen, taldeko buru, moldatzaile eta konpositore nagusi zela. Oraingoan, bere bigarren diskoa argitaratu du, beste formatu eta estilo erabat ezberdinean; *Onin* du izenburu, eta Lesakako errekarari, bizitzari eta heriotzari eskainia da.

Abesti "dantzagarriak", oro har *Onin* diskoaz galdetuta, hau zioen Ortegak maiatzaren 14an *Puntu* aldizkariari emandako elkarrizketan: "Diskoari izena ematen



Ortega, bideokliparen irudi baten. I.G.

dion kantua *Bolero begin* da, baina ez nituzke guztiak zaku berean sartuko. Orokorrean, dantzagarriak dira, eta badu Espainian egiten zen kupletik eta Frantziako beste estilo batek. Satira eta ironia duten kantua dira, zerbait teatrala".

Koldo Eleizalde: sari banaketa ekitaldia bihar, Seminarixoan

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen Koldo Eleizalde lehiaketan 36. edizioaren sariemate ekitaldia bihar, hilak 29, egingo dute, Seminarixoan (12:00). COVID-19ak eragindako osasun egoera aintzat hartuta aretoan bete behar diren edukiera mugengatik, sarrera alde aurretik jaso dutenak baino ezingo dira joan bertara. Hau da, lehiakete-

tan sariren bat jasoko dutenek jarraitu ahal izango dute ekitaldia bertatik bertara.

Aurten, 474 lan jaso dituzte, askotariko kategorietan: ipuin idatzia, komikia, bertsoa, ipuin-kontaketa, antzerkia, txistek eta poesia. Bihar jakinaraziko dituzte irabazleak; saritutako lan idatziekin liburua argitaratu eta ikastetxeetan banatuko dute. Bestalde, honako lotura honetan ikus daitezke ikus-entzunezko lanen grabazioak: <https://euskarabergara.eus/eu/node/208578>.

Lorenzo Askasibarren erakusketa gaur irekiko dute, Aroztegin

XX. mendeko bigarren zatiko euskal eskultura figuratiboko adierazle gorentzat jo izan da Lorenzo Askasibar (Elgeta, 1930), eta haren lanak ikusteko aukera egongo da gaur Aroztegin (18:00) irekiko duten erakusketan. Aroztegin "denetariko obrak" eraman ditu Askasibarrek: "Nire ibilbidearen gainbegiratua da. Egurrezko eta bron-

tezko askotariko eskulturen erreproduktzioak izango dira, eta baita hainbat argazki ere". Erakusketa inauguratu ostean, Miguel Angel Elkorobereziabarrek idatzitako *Lorenzo Askasibar. Eskultore baten testigantza* liburua aurkeztuko dute, udaletxean (18:30). Aurrerago, ekainaren 6an, omenaldia egingo diote Askasibarri, udaletxean (13:00). Elgetan eta Gasteizen ere egingo diote aitortza-ekitaldiak. Aroztegin erakusketa ekainaren 20ra arte egingo da zabalik.



Mariaren Lagundia Ikastola • Bergara
MARIAREN LAGUNDIA

Mendekotasun Egoeran dauden Pertsoneri Arreta egiteko Erdi Mailako Zikloa Gizarteratzeko Goi Mailako Heziketa Zikloa

**AURRE-
MATRIKULA**

**Maiatzaren 31tik
Ekainaren 18ra**

Eraiki dezagun.
Zentzuz.
Elkarrekin.

Mariaren Lagundia Ikastola
Espoloia kalea1, 20570 Bergara
Tel.: 943 76 25 40

mlagundia.org
idazkaritza@mlagundia.org





Herritarrak martitzen arratsaldean Buztinzuri kalean barrena. MAIDER ARREGI

Parte-hartze bidezko Plan Orokorra egingo da

Antzuolako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra, herriko landa-lur pribatuen erosketa, Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko plana eta Palestinaren egoera izan ditu udalbatzarrak, besteak beste, hizpide maiatzeko ohiko osoko bilkuran

Maider Arregi ANTZUOLA

Udalbatzarrak martitzenean egin zuen maiatzeko ohiko osoko bilkura. Gai-zerrendan Antzuolako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra idazteko pleguak onartzea bazetorren ere, ekaineko osoko bilkuran onartzea adostu du udalbatzarrak, forma akatsengatik.

Plan Orokorra 242.000 euro inguruko aurrekontua du, eta lau urtean egitea dela asmoa azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak. 2021ean, 90.000 euro bideratuko ditu Udala Gobernuak. "Herriko lur guztiak definituko ditugu eta lau urteko epean gauzatu, antolamenduak izan ditzakeen aldaketak kontuan hartuta. Plegua eginda dago, eta asmoa da lehiaketara ateratzea, behin osoko bilkuran onartuta. Herriko eta mendiko lursailak aztertzea da xedea, eta parte-hartze bidez erabakiak hartzea. Emakumearen rola ere kontuan hartu gura dugu prozesu honetan", argitu du alkateak.

EAJko Miren Elgarrestak ohartarazi du txostenean "zenbait forma akats eta "zuzenketak egin gabe" daudela. Hala, udalbatzarrak akatsak zuzendu eta ekainekoan onartzea adostu du.

Lur pribatuen erosketa

Antzuola ernaberritu planak egindako lanketaren ondorioz, basogintzarako, orturarako nahiz larre bilakatzeko zein landa-lur den egokia aztertu du Udalak. "Gune jakin batzuk identifikatu eta lurak saltzeko aukera eman genien herritarrei 2019an. Lau jabe aurkeztu dira deialdira. Lursail egokiak dira, malda gutxiak eta pinudiak dituztenak. Pinuak kendu eta abeltzaintzarako larre bihurtzea da helburua".

HERRIKO LANDA-LUR PRIBATUEN EROSKETA EGITEA ONARTU DU UDALBATZARRAK OSOKO BILKURAN

9.600 euro pasatxo ordainduko ditu Udalak larreongatik. Ondoren, lursail horiek onura publikoko sail bezala izendatu beharko ditu Diputazioak, eta enkantera aterako dira errenta bidezko erabilera publikorako.

Udalaren giza baliabideak

Antzuolako Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko planak aurrera egin du, EH Bilduren eta alderdi sozialistaren aldeko botoekin. EAJk aurka bozkatu du: "Ez dago plan zehatzik, ez dugu argazkirik, ez diagnosi edo aurreikuspen ekonomikorik". "Udalhitzek onartuta dauka eta sindikatuarekin hitz eginda dago; sindikatu guztiak daude ados 65 urte baino lehenago erretiroa hartu nahi duenari aukera emateko. Aurten, kasu bat daukagu Udalean; datorren urtean beste bat", dio Gobernuak.

Amaitzeko, Palestinak bizi duen egoeraren gaineko adierazpen instituzionala ekainean onartuko dute.



Olaran etxea egokitzeko obra. MAIDER ARREGI

Hasi dira Olaran etxea irisgarri egiteko eta berritzeko lanak

Urte bukaerarako Olarango obra osoa amaitua egotea da asmoa; 180.000 euroko kostua izango du

Maider Arregi ANTZUOLA

"Udal eraikinak irisgarriak izan behar dira %100ean. Olaran ez da, eta, horregatik, astelehenean hasi ziren kultura etxean igogailua jartzeko lanak", azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak.

Irisgarritasun-lanak ez ezik, berritze eta egokitze lanak ere egingo dituzte eraikinean: "Igo-gailua jartzearekin batera, komunak berritu egingo dira, gelen banaketan aldaketak egingo dira, hainbat instalazio eguneratu egingo dira eta margotu egingo da. Gauzak ondo bidean, 2021eko abendurako Olaran be-

rritua egongo da. Jakina, obrak irauten duen bitartean Olarango gela asko ezingo dira erabili. Bertan ia egunero dauden musika eskolako, trikitiko, eskulana, euskarako eta ingeleseko eskolei, besteak beste, aurkitu diegu alternatiba; baina Olaranen egoitza duten herriko taldeei ere. Hala ere, noizean behin bilerak egiten dituzten taldeei gogorarazi nahi diegu inoiz baino beharrezkoa dela gelen erreserba idatziz eta zuzen egitea udaletxean". Olarango berritze eta egokitze lanek 180.000 euroko aurrekontua dute.

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago

Ezohiko udaleku irekiak egingo dira, eta osasun egoerara egokitutakoak izango dira. Hala, adinaren arabera bi txanda egingo dira, bakoitza astebetekoa. Helburua da haur guztiak parte hartzeko aukera izatea. Goizez egingo dira bi txandak -09:30-13:00-, eta izena liburutegian eman daiteke, hilaren 31ra arte. Lehen txanda, ekainaren 30etik uztailaren 7ra, 5 urteko gelatik 3. mailara arte; eta uztailaren 8tik 15era, 4. mailatik 6.era.

Era berean, Idolazek hezitzaileak kontratatzekei egin du, eta ekainaren 4ra arte eman daiteke izena. Eskaera-orria bete eta idolazantzuola@gmail.com helbidera bidali behar da.

Goienerekin autokontsumoaz jardungo du ekainean

Energia burujabetzaren eta autokontsumoaren garrantzia jardungo du Goienerekin kooperatibak ekainaren 2an, eguaztena, 18:00etan, Torresoroan.

"Helburua da herritarrei kontsumo jasangarriagoaren aldeko hautuarekiko sentsibilizazioan eragitea", adierazi du Goienereko kide Oier Etxeberriak. "Antolatutako solasaldiaren bitartez, antzuolarrei kooperatibaren helburuak eta oinarriak zeintzuk diren azaldu nahi diegu. Antzuolako herriak, gainera, energia burujabetzan urrats garrantzitsua abiatua dauka: plaka fotovoltaikoak jarriko ditu, herriko udal eraikinak energia jasangarri hornitzeko".

Mairuaren Alardea Elkarteari aitortza

Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak jasotzen dituen txostena argitaratu du Emakundek, eta, hain zuzen ere, hainbat herriri egin diete aitortza; besteak beste, Antzuolari

Imanol Beloki ANTZUOLA

Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak jasotzen dituen txostena argitaratu du Emakundek, Emakumearen Euskal Institutuak, eta hainbat herriri egin diete aitortza. Gipuzkoan, esaterako, Tolosari, Inauterien eta San Juan jaietan egindako aldaketa-prozesuagatik; Donostiako danborradari, bertan emakumeek ere parte hartzeko izandako prozesuagatik; eta, Debagoienara etorrira, Antzuolari. Mairuaren Alardean emakumeen alde egindako lanagatik egin diete aitortza; herriko jai parekideak antolatzeke bidean urrats bat gehiago egin izanagatik, hain zuzen ere.

Egokitutako tradizioaren alde

"Aitortza pozez jasotzen dugu. Ibilbide bat egin dugu berdintasunean; ez soilik genero berdintasunean, baizik eta kultura arteko berdintasunean. Lehenengo Alardea gaurkotuaz. Askotan esaten da tradizioa mantendu egin behar dela, baina uste dugu tradizioa gaur egungo balioetara egokitu gabe ezin dela transmititu", adierazi du Pilar Etxanizek, Antzuolako Mairuaren Alardea Elkarteke kideak.

Era berean, herriko Oinarin dantza taldeak ere barne-prozesu bat egin zuten, dantza guztiek genero ikuspegia jaso zezaten. Hain zuzen, 2019an izan zuten Mairuaren Alardeak emakumezko kapitaina. Hala, sasoi hartan erretiroa hartu zuten Jose Angel Arbulu ordezkatu zuten Edurne Iturbek.

Prozesu parte-hartzailea

Hasierari buruz galdetuta, adierazi dute Alardea biziberritzeko parte-hartze prozesua abiatu zutela duela urte batzuk. Hasieran, Antzuolako Udalak sustatu zuten prozesu hura, eta gero,



Edurne Iturbe, Mairuaren Alardeko lehenengo emakumezko kapitaina. AITOR AGIRIANO

ALARDEA EGOKITU EGIN BEHAR IZAN ZUTELA ADIERAZI DUTE ELKARTEKIDEEK, BIZIRIK IRAUN ZEZAN

herritarrekin elkarrizketak eta mintegi bat ere egin zituzten. Ildo horretatik, Eusko Ikaskuntzarako ikerketa abiarazi zuten, bi ardatzetan oinarritutakoa: ardatz historikoa eta ardatz antropologikoa barne hartuko zituen. Ondorioetatik abiatuta egin beharreko aldaketak zein ziren zehaztu zituzten; horretarako, udal ordezkariak, eragileak eta herritarrak barnebiltzen zituen Alardea biziberritzeko talde bat osatu zuten. "Ikerketa hartan ikusi genuen Mairuaren Alardea berrikusi eta birplanteatu egin beharra zegoela, eta garrantzitsuena, Alardea aldatu beharra zegoela, bizirik iraun zezan. Gaur egungo balioak, oro har, eta Antzuolan ere, bestelakoak dira, bai gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean, kulturen errespetuan...", adierazi du Etxanizek.

Herritarren feedbacka

Alarde berriarekiko jendeak zein iritzi zuten ere jaso gura izan zuten Antzuolako Mairuaren Alardea Elkarteke kideek, eta, horretarako, galdetegi bat egin zuten antzuolarren artean. Balorazioa oso positiboa izan zela adierazi du Pilar Etxanizek. "Ados zeuden, orduan. Balio aldetik irabazi egin du Antzuolako Mairuaren Alardeak, eta ikusgarriagoa da gaur egun mairuak eta kapitainak ordezkatu eta adierazten dutena. Lehen lerroan agertzen dira, eta lehen, bigarren mailan zegoen mairuaren kultura".

Elkartasuna Bidasoaldeko

2016an, *Herri zahar Andra Berri* izeneko programan hartu zuten parte antzuolarrek, besteak beste, Irungo eta Hondarribiko alardeetako kideekin batera. Elkartasuna adierazi zieten herriri haiek alarde mistoetako parte hartzaileei, eta, gerora, 2019an, bi herri horietako alardeak ikusten izan ziren antzuolarrek. Horren ostean, Irungo eta Hondarribiko kideak ere izan ziren Antzuolako Mairuaren Alardeaz gozaten.



Bergaran 2017an egindako moto-trial erakustaldiaren irudi bat. GOIENA

Lehendabiziko aldiz egingo da moto-trial saioa Antzuolan

Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da, eta hamar zonatan bi bira egingo dituzte pilotuek

I.B. ANTZUOLA

Antzuolako Trial Elkarteak antolatuta, Euskadiko Trial Txapelketa jokatu da zapatuan, 15:00etan, Antzuolan. Lehenengo aldiz egingo da moto-trial txapelketa bat herrian, eta antolatzaileak gogoz daude hitzordurako.

13:30ean, egiaztapenak hasiko dituzte parte hartuko duten pilotuek, eta hainbat kategoriatarako 70-80 lagunek hartuko dutela parte aurreikusten da. Alebinak, gazteak, TR1, TR2, TR3 eta TR4 modalitateetako pilotuak eta klasikoak arituko dira.

Goizperren hasita, hamar zona

"Antzuolan lehenengo aldiz egingo da moto-trial txapelketa, eta, gainera, Euskadikorako puntuagarria izango da. Debagoienan azken urteetan ere ez da halako txapelketarik egin, eta Gipuzkoa mailan ere gutxi egiten dira. Zapatuan, Goizper enpresa inguruan hasiko da txapelketa, eta sei kilometroko zirkuitua izango dute aurretik parte-hartzaileek. Horietan hamar zona izango dira, eta bi bira egingo dituzte", adierazi du Antzuolako Trial Elkarteke kide Ramon Aldasorok.

Egoitza eredu eta pentsioak izan dira hizpide batzar orokorrean

Landaxoep erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egin zuten joan den zapatuan

I.B. ANTZUOLA

Azken bi urteetan egindakoak gogoratu, eta aurrera begirakoak zehaztu zituzten Landaxoep erretiratuen elkarteke batzar orokorrean. Horrekin batera, egoitza eredu eta pentsioak izan zituzten berba, eta baita batzordeko kide aldaketak ere.

2020an ezin izan zuten batzarrik egin, eta zapatuko hitzorduan, 2019an eta 2020an, martxoko konfinamendu data bitartean, egindako ekintzak gogoratu zituzten, eta urte haiek diru kontuak aurkeztu eta onartu.

Horrekin batera, 2021erako egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu zituzten.

Egoitzetako arazoak ere izan zituzten hizpide. Egoitza eredu aldaketak, konpromisoa exijitu zieten nagusien elkartei, erakundeei eta gizarte osoari. Pentsioen gaiak ere izan zuten bere lekua. Landaxoepren esanetan, une garrantzitsua da hau pentsio duinen aldeko mobilizazioari eusteko, eta, hala, zapatuan 12:00etan plazan izango den elkarretaratzera deitu zituzten herritarrak.



Udal ordezkariak eta idazkaria, martitzenean egindako osoko bilkuran; ez zen ordezkari jeltzalerik egon. L.Z.L.

56.991 euroko superabita iaz

Positiboan itxi du 2020ko ekitaldia Elgetako Udalak, eta 102.000 euroko gerakina geldituko da, orotara. Bestalde, Eulen enpresak jarraituko du eguneko zentroa kudeatzen eta Oier Zuñiga artista iruindarrak egonaldi artistikoa egingo du herrian

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Martitzenean elkartu zen Elgetako udalbatza. Gotzon Goikoe-txea idazkaria eta EH Bilduko sei udal ordezkariak elkartu ziren. Lanagatik zein arrazoi pertsonalengatik ez zen EAJko ordezkariarik izan.

Hainbat puntu zeuden gairerrendan; horien artean, 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Udalbatzak 2019ko abenduan onartu zuen 2020ko aurrekontua, eta, hasiera batean, 1.728.293 eurokoa zen.

Bi obra handi egiteke


56.991,77 euroko superabitarekin itxi du ekitaldia Elgetako Udalak. "2020a nahiko urte xelebrea izan da denondako eta denerako, eta, artean ere, azpimarratu nahi dut likidazioak erakusten duen argakia dela oso aurrekontu orekatu batena", azaldu zuen

osoko bilkuran Iratitz Lazkano alkateak. "Eduki ditugun sarren eta gastuen arteko aldea oso txikia izan da; 30.000 euro ingurukoa. Hala ere, espero baino gutxiago izan da exekutatu dena. Bi obra handi ez egitea erabaki genuen: eskolako teilatua eta San Roke kaleko irisgarritasun lanak". Lazkanok azaldu zuen 1.495.000 euro exekutatu direla, aurrekontuan aurreikusitakoaren %83. "Normalean, exekuzio maila %95 ingurukoa izaten da. Kontuan hartzeak dira exekutatu ez diren obra handi horien kopuruak".

UDAL ARDURADUNEK AZALDU DUTE 2020KO AURREKONTUAREN %82 EXEKUTATU DELA, AZKENEAN

Lazkanok erreferentzia egin zion, baita ere, Foru Aldundiko Foru Fondoaren bilakaerari. "Hasiera batean, esan ziguten aurreikusitakoa baino diru gutxiago helduko zela. %20 gutxiago kobratuko genuela esan ziguten, eta aurreikusten genuen hogeit mila euroko galerak izatea, baina, azkenean, esandakoa baino gehiago heldu da, eta superabita egon da. Orotara, gerakinean 102.000 euro geldituko dira".

COVID egoerak eragindako gorabeherak tarteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zuen bertan behera utziko zituela udalek bete beharreko gastu araua zein zor biziaren inguruko betekizunak 2020 eta 2021 ekitaldietarako. "Dena den, bi puntu horiek betetzen dira aurten", azaldu zuen Gotzon Goikoe-txea idazkariak osoko



Oier Zuñiga artista iruindarra. TTAP ALDIZKARI DIGITALA

Oier Zuñigak, egonaldi artistikoa

Euskal Herriko hainbat herritan garatuko du *Geureak sortuak* programa Udalbiltzak. Urtarrilean ireki zuten artisten beka-deialdia, eta 73 proposamen artistiko jaso zituzten: 21 literatura lan, 24 antzezlan eta 28 film labur. Jasotako proposamen artistikoen artean, Oier Zuñiga margolari eta aktore iruindarrarena aukeratu dute Bergara, Elgeta eta Antzuolarako.

Geuretik sortuak ekimeneko arduradun Libe Hernandok azaldu du dolua gaitzat hartuta antzerkia eta dantza fusionatzen duen ikuskizuna sortuko duela Zuñigak. "Lanak egiteko epe ezberdinak izango dira. Antzerkiaren alorrekoek urtarrilerako bukatuta egon behar dute, eta otsailetik aurrera taularatzea litzateke asmoa".

Hala, hiru herriek elkarlanean hiru asteko egonaldia artistikoa eskainiko diote Zuñigari eta haren lantaldeari. "Hiru herrien artean adostuko dugu leku bakoitzean zenbat denbora egingo duten. Herriaren konpromisoa da lan-lekua eta lo-lekua eskaintzea antzezleei", azaldu du Kultura zinegotzi Ane Bilbao.

Hiru lagun izango dira taula gainean, eta antzezlanak prest dagoenean hiru herrietan egingo dituzte emanaldiak. Ez hori bakarrik, Zuñigaren antzezlanarekin batera beste lau kultura hitzordu ekarriko ditu Elgetara *Geureak sortuak* programak: hiru antzezlan eta liburu baten aurkezpena. Guztiak izango dira beka-deialdiaren ondorioz sorturikoak.

bilkuran. "Zor bizia %29koa da", zehaztu zuen. Bestelakoa izango da egoera, ziurrenik, 2021eko udal aurrekontuaren likidaziorako. "Gastuen kapitulua dezent jaitsi da 2020an, eta normalena izango da 2021an iguera izatea".

Eulen, eguneko zentroan

2020ko aurrekontuaren likidazioa aho batez onartu ostean, eguneko zentroko zerbitzuaren esleipena egitea izan zuten mahai gainean udal ordezkariak.

Enpresa bakarra aurkeztu da lehiaketa publikora: aurreko

ALKATEAK ADIERAZI DU 2020A "NAHIKO URTE XELEBREA" IZAN DELA "DENONDAKO ETA DENERAKO"

urteotan ere zerbitzua eman duen Eulen zerbitzu soziosanitarioren enpresa, hain zuzen ere. Urtebeterako berritu diote esleipena, eta, gehienez ere, lau urtez luzagarri da.

'Geuretik sortuak' egitasmoa

Kultura alorrean, berriz, Udalbiltzatik bultzatutako *Geuretik sortuak* egitasmoarekin bat egin du Elgetako Udalak. "Krisi sakonean dagoen kultura arloa suspertzeko eta euskara uzartzeko ekimena da, eta ikusita %100 datorrela bat lehendik ere sormenari garrantzia emateko genuen ideiarekin, interesa sortu digu proiektuak hasieratik", azaldu zuen Lazkanok.

Elgetako Udalak 3.625,72 euro inbertituko ditu aurten, eta 4.419,39 euro hurrengo urtean. Hala, bi urtean egiteko ekarpena izango da.

Uste baino zabor gehiago pilatu dute denen artean

Elgetako Herri Eskolak Ekinaren Astea ekimenean hartu du parte. Bizikidetzeta-taldeka antolatuta, ikasleek garbiketa lanak egin dituzte eskola inguruan, bolatokiko parkean, San Roke eta Domingo Iturbe kaleetan, Aixola errekan eta Aixola inguruan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ingurumenaren aldeko ekintzen astea da Ekinaren Astea, eta bertan parte hartu dute Elgetako Herri Eskolako ikasleek eta irakasleek. Astebeteko epean hainbat irteera egin dituzte, inguru hurbileko espazioak garbitzeko helburuarekin.

Lehen Hezkuntzako neska-mutikoek hartu dute parte ekimenean, eta aukera izan dute jolasgune dituzten hainbat espaziotan zenbat zabor pilatzen den ikusteko. Ez hori bakarrik: zaborra jaso eta elkartuta ikustea esanguratsua izan da. Konturatu dira zenbatekoa den lurrra botatako zikinek eragin dezaketzen kaltea.



LH-3ko neska-mutikoak zaborra biltzen San Roke osteko belargunean. HERRI ESKOLA

Sentsibilizazio ekintza

Ekintzaren gaineko balorazio "oso positiboa" egin dute zuzendaritza taldeko kideek. "Hurrengo ikasturtean ere horrelako ekintzak txertatzeko asmoa dugu", azaldu dute. "Zaborren

inguruan lanketa egiteko aukera ematen du, eta ikasleak parte hartzaile aktiboak izan dira. Eskola inguruan sortzen diren zaborren bueltan kezka sortu da taldeetako batean, eta lanean dihardute zer egin daitekeen".

Lehiaketa ere badu Ekinaren Astea ekimenean. Eskatu moduan, burututako ekintzak laburtzen dituen txostena prestatu dute eskolako ordezkariak, eta Eusko Jaurlaritzaren Aztertu Programara bidali dute.

Edozein lekutan dago zaborra



LH-2ko ikasleak, Bolatoki inguruan betetako zabor-poltsekin. HERRI ESKOLA

Bolatoki inguruan zabor ugari Plastikoak, edukiontzia, paper zatiak... Askotariko hondakinak batu dituzte bigarren mailako neska-mutikoek Bolatokiko parke inguruan.



Aixola erreka garbitzeko lanetan aritu dira LH-4ko ikasleak. HERRI ESKOLA

Aixola erreka, garbiago Laugarren mailako neska-mutikoek aurreikusitakoa baino zikinkeria gehiago atera dute Aixola errekatik. Ikusi besterik ez dago!

GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

Arrisku bat gutxiago herriko plazan

Irakurle batek atal honen bitartez egindako eskaerak erantzuna izan du, eta eskertzekoa da. Dagoeneko kendu dituzte plazako zaborrontzien ondoan zeuden burdin arriskutsuak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Eskolako jangela ereduaren gaineko saioa eguaztenean

Egungo ereduaren eta arautegiaren inguruko azalpenak emango ditu Eneko Viñuela adituak, 18:00etan

L.Z.L. ELGETA

Zabalik da jangela ereduaren gaineko debata, eta Elgetan ere badira gurasoak eredu aldaketa aztertzeko eskaera egin dutenak. Ereindajenek eta Maala guraso elkarteak antolatuta, familientzako elikadura eskola izango da eguaztenean, hilak 2. Bidezko Elikadura erakunde koordinatzaile Eneko Viñuela gonbidatu dute. "Azken urteetan ibilbide luzea egin du Euskal Herriko zein nazioarte mailako jangela ereduak ezagutzen, eta baita ere gurean indarrean den

araudia aldatzeko", azaldu du Ereindajeneko kide Ainhoa Narbaizak. Jangela eredu berri emango du, eta azalduko du nola lortu duten beste ikastetxe batzuetan bertako produktuekin lan egitea, sukalde propioa jartzea, eredia aldatzea... Saioa 18:00etan hasiko da, antzokian.

Eskolako umeentzako, berriz, txiki-gunea antolatu dute. Elikagaien gaineko tailerrak egingo dituzte. Edozelan ere, beharrezkoa da aurrez izena ematea, elgetakogurasoelkatea@gmail.com helbidean.

OHARRAK

Ipuinen Ordua gaur

Ipuinak, 17:20an, HH-5eko, LH-1eko eta LH-2ko umeendako, liburutegian. Lekua mugatua denez, komeni da aurrez izena ematea.

Garbigune ibiltaria

Mankomunitateak Salvador kalean ipiniko du garbigune ibiltaria, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aroztegin

Gaur inauguratuko dute Lorenzo Askasibar eskulturagile elgetarraren lanak oinarri dituen erakusketa Bergaran. Ekainaren 20ra bitartean egongo da ikusgai, Aroztegi aretoan.

Gazteei gonbidapena herrian kontsumitzeko

Gazteak herriko komertzioetan kontsumitzera gonbidatzen dituen publizitate kanpaina bat jarriko du Udalak martxan datozen egunetan. Sare sozialen bidez eta euskarri digitaletan egingo dute kanpaina, ekainean; udazkenean jarraipena izango du

Oihana Elortza OÑATI

Gazteak herriko komertzioetara hurbiltzeko eta bertan kontsumitzeko ohitura hartu edo horretan hasteko gonbidapena egiten duen publizitate kanpaina jarriko dute martxan datozen egunetan: *Erosteko orduan, nire lehen ohitura, Oñati.*

Gazteak eta herriko dendariak

Udalak egingo du kanpaina, herriko dendarien laguntzarekin, eta gazteei zuzenduta. "Horixe erakusten dute inkestek eta datuek, gazteek asko erabiltzen dutela Internet erosketak egiteko. Eta kanpaina honen gura dena da erakustea herrian ere eros daitezkeela gauzak, eta poliki-poliki bertako komertzioetan kontsumitzeko ohitura hartzera bultzatzea. Erosketak Internet bidez egin beharrean, herriko dendetara hurbiltzea, ikustera zer eskaintza duten dendetan eta saltzaileei azaltzea zer den gura du-




Bi pertsona, Kale Barrian dagoen Candeluca arropa dendatik irten berri. O.E.

tena. Alde bien arteko harremana ere sustatuko da modu horretan", dio Enpleguko udal teknikariak, Unai Kortabarriak. Hain zuzen ere, joan den urtean egindako *Herritik zuztarera, zuztarretik herrira* kan-


painaren jarraipena da, eta herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko negozioak sustatzea da helburua. Ekainean izango da kanpaina hori, baina urrian jarraipena izango du.

Nolako erosketa-ohiturak dituzu?



Unax Aranburu. 17 urte.

Ez dut kanpora joateko ohiturarik, baina Internet bidez erosten ditut arropak eta gailu elektronikoak, adibidez. Oinetakoak dendan erosten ditut, probatuta, eta Oñatin ez baditut aurkitzen joaten naiz beste herri batera.




Ibai Zubia. 17 urte.

Etxekook Gasteizko merkataritza-etxe handira joaten gara hiru hilean behin-edo arropa erostera, eta, beste ezeren beharra izanez gero, Internet bidez erosten dut. Ez dut ohiturarik hemengo dendetan begiratzeko.



Marina Madariaga. 33 urte.

Lehen, ohitura nuen kanporako, baina orain, oso eroso egiten zait herriko komertzioetan erostea. Internetez, kremak, dekoraziorako osagarriak, gailu elektronikoak eta umeen oinetako marka jakin bat erosten ditut, normalean.



Maddi Ruiz. 28 urte.

Itxialdian, adibidez, liburu asko erosi nituen Internet bidez, baina, harrezkero, erosketak bertan egiten saiatzen naiz. Herriko dendetan arreta pertsonalizatua dugu, gainera. Uste dut hemen ere baditugula aukerak. Gustura nago.

Landa turismoko Europako profesionalak, Arantzazun

Europako Landa Turismoaren Kongresua egingo dute Gandiaga topagunean ekainaren 2an eta 3an

O.E. OÑATI

Europako Landa Turismoaren VII. Kongresua (Coetur) egingo da datorren astean, ekainaren 2an eta 3an, Arantzazuko Gandiaga topagunean. Arlo horretako profesionalak etorriko dira eta 2021ean landa turismoaren erronkak eta aukerak zeintzuk diren jorratuko dute.

Ekitaldia lagungarri izango da turismo mota horren 30 urtetik gorako historiaren balantzea egiteko, sektoreak egun bizi duen unea aztertzeke eta etorkizuneko erronkei heltzeko. Eta

arlu horretan profesionalak diren Europa mailako parte-hartzaileak izango dira. Berez, joan den urtean ziren biltzar hori egitekoak, baina pandemiak bertan behera utzi zuen eta aurtengo egoerara moldatuta egingo dute. Horrela, formatu hibridoan planteatu dute: batzuk Arantzazun izango dira eta beste batzuek online jarraituko dute biltzarra. Goierriko eskualdeak protagonismo berezia hartuko du, 25 urte bete dituelako, eta Andaluzia herrialde gonbidatua izango da.

Gizarte zerbitzuen arloko elkarteentzako dirulaguntzak daude

Gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten elkarteentzako Udalak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago, ekainaren 21a bitartean. Guztira, 22.516 euro daude banatzeko, eta Oñatin nahiz Debagoienean lan egiten duten irabazi asmorik gabeko taldeen artean banatzeko dira. Gipuzkoa mailan ari direnek Oñatitik jasotzen dituzten zerbitzu eskaerei erantzuten dietela erakutsi beharko dute. Azken osoko bilkuran onartu zituzten dirulaguntza horiek emateko irizpideak, eta EAJ abstenitu egin zen, "dirulaguntza ematearen alde egon arren beste era batera" egin daitezkeela argudiatuta.

Zuzeneko kontzertuak gaur Errekalden, jaiei hasiera emateko

Errekaldeko jai batzordeak adierazi duenez, lanean ibili dira aurten jaiak egin ahal izateko, eta asteburuan, maiatzaren 28an eta 29an, ospatuko dira, "ekintza sorta xume bezain erakargarria" dute-eta prestatuta. Zuzeneko musika kontzertuak izango dira gaur, adibidez: Aretxabaletako Nhil eta Oñatiko Bizarro taldeek joko dute, 18:00etan. Bihar goizean, orientazio probak eta Julio Bikuña Txope auzotarrak ateratako argazkien erakusketa egongo dira, besteak beste. Baina musikaririk ere ez da faltako; eguerdian, Aiert Alberdik joko du eta arratsaldean Maddi eta Leire bikoteak, adibidez.

OHARRAK

Elexpuru eta Leizaola

Erreusak egitasmoaren barruan, Juan Martin Elexpuru berbaldia egingo du gaur, nekazaritzari, lantresnei eta horien gaineko berbei buruz; 18:30ean, Santa Anan. Eguenean, berriz, Aranzadi elkarteak Fermin Leizaola izango da, ordu eta toki berean.

EH Bilduren batzarra

Agintaldi erdi honen balantzea, ikasturtearen balorazioa, kongresuaren ebazpenaren inguruko azalpena eta Oñatiko mahai politikoaren berrespena egingo ditu biharko herri batzarrean EH Bilduk, 10:00etan, gaztelekuan.



Aranguren, Arrazola, Elorza eta Ruiz de Apodaka, eguazten eguerdian osoko bilkuran egindako aurkezpenaren ostean. O.E.

Oñatiko zaintzaileen lana, liburuan jasota

'Bizipenak erdigunean: Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista bat 1950-2020' izeneko liburua da Selma Huxley bekaren bigarren ikerketaren emaitza. Oñatin kokatu arren, Euskal Herriko beste edozein herritako errealitatea ere isla dezake

Oihana Elortza OÑATI

Bizipenak erdigunean: Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista bat 1950-2020 du izena Selma Huxley bigarren bekarekin egindako ikerketa lanak, eta Oñatiko emakume zaintzaileen lana zein izan den jasotzen du.

Lau kolektibo nabarmendu

Jone Arrazola eta Miren Aranguren dira egileak, eta, astean egindako aurkezpenean azaldu dutenez, emakumeen eremu naturalizat hartu da euskal kulturaren zaintzaren auskalo noiztik, pentsamendu feministak lehenbiziko aldiz gatazka egoeran jarri zuen arte. Liburu formatuan datorren ikerketa horretan, zaintzaren "kontakizun osoa eta zintzoa" egin gura izan dutela gaineratu dute egileek. "Bizitzaren zalantzak, ertzak, etxeko *trapu zikinak*, nahiak eta ezinak... azaleratu gura izan ditugu, baina, era berean, baita erresistentziarako tresna izan diren kolektibo-

tasuna eta elkarrekotasuna azpimarratu ere", Jone Arrazolak zehaztu duenez.

Emakumeei elkarriketarako eginez egin dute lana, eta, Oñatin kokatu duten arren, hor jasotako bizipenak eta esperientziak Euskal Herriko edozein herritan gertatu direnak izan daitezkeela diote, antzerako lanik inon aurkitu ez badute ere. Lau kolektibo nabarmendu dituzte: XX. mendeko etxekoandreak eta bakoitzak bere posizioetik –ama, arreba, amona, ahizpa... izanda– izan dituen betebeharrak eta gaur egungo ama gazteak, bereziki hazkuntza naturalaren alde egin du. Bi multzo horiek lehen genealogia osatuko lukete, eta biga-

EKAINAREN 9AN DA LIBURUAREN AURKEZPENA, ZINEMA ARETOAN, 11:00ETAN ETA 18:00ETAN

rrena beste biek: neskametzatik gaur egungo etxeko langile izatera. Metodo etnografikoa lehenetsi dute eta ahozkotasanaren bidez bizitzatik oroimenera salto egin. "Garrantzitsua izan da euren anonimotasuna bermatzea, zaintza lanak, oraindik, eremu intimoarekin lotzen jarraitzen dugulako eta gatazkatsuek direlako bizipen ugari", azaldu du Miren Aranguren.

Aurkezpenak eta tailerrak

Ikerketaren berri emateko eta herritarren artean zabaltzeko, liburuaren aurkezpenak egingo dira ekainaren 9an, 11:00etan eta 18:00etan, eta ekaineko martitzenetan tailerrak egingo dituzte hainbat gairen inguruan. Ekitaldi horietan egongo dira liburuak salgai, hamar eurotan.

Oñatiko emakumeek egindako ekarpena jaso eta aitortzeko Selma Huxley beka 2017an sortu zuen Oñatiko Udalak, eta hirugarren deialdia zabalik dago, ekainaren 28ra arte.

"Programak osasun estrategiak diseinatzeko balio dezake"

UNAI OTAMENDI FISIARIA ETA INGENIARI ELEKTRONIKOA
Ohorezko matrikula lortu du programa informatiko batekin

O.E. OÑATI

Herrian zehar gaixotasun bat nola zabaltzen den erakusten duen programa informatiko bat egin du ikasketa amaierako proiektuan Unai Otamendi oñatiarrak. Oñati eta pandemia hartu ditu adibide, herriko datuak sartuta.

Zertarako balio du programa horrek?

Programak herri, probintzia edo eremu baten gaixotasun batekin izango duen hedapena aurreratu du, eta baldintza ezberdinen inplementazioa onartu. Hori dela eta, programan nahi diren neurri guztiak sar daitezke: tabernen itxiera, konfinamendua, testatze estrategien inplementazioa... Neurri hauek jarri ostean, hedapena nola aldatzen den ikus daiteke, eta aurreikuspen zehatzagoak egin.

Aste Santutik maiatzaren hasierara arte egon da eremu gorrian Oñati. Hori aurreikusiko luke programa honek, adibidez?

Honelako egoerak aurreikusteko gaitasuna izango luke; hala ere, garaturiko programa lehen bertsio bat da soilik, eta emaitzak oraindik hobetu egin daitezke, esaterako, inguruko herriek duten eragina inplementatuz.



Unai Otamendi. JORGE NAVARRO

Bideo-joko baten antza du?

Programan bertan pertsonak mapan alde batetik bestera mugitzen dira, etxera, lanera, kalerara... Alde horretatik, SIMS-erako bideo-joko batekin konparatu daiteke. Hala ere, mugimendu hauek ez dira pantailan ikusten. Programa, momentuz, nahiko primitiboa da, kode multzo bat besterik ez. Oñati eta COVID-19a simulatzen ditu, baina pausoak erabilgarriak izan daitezke beste toki batzuetan eta beste gaixotasun baten aurkako programan.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Gure bazterrak

Gure bazterrak Joxean Artzek idatzi eta Mikel Laboak kantatutako abestiak ekarri nau gaur gogoeta honetara. Maite ditut maite gure bazterrak, baita ezkututzen dizkidatenean ere. Gurea den hori ezkutatzeko modu ugari dago.

Industrializazioak baserri eta landa eremuak husten joatea ekarri zuen eta horrekin batera gure bazterrak pinuz bete ziren. Pinuek gure ez hain aspaldiko arbasoen bizimodua, kultura, hizkuntza ezkutatu digute.

Orain, gaitzak jotako pinu horiek botatzen ari direnean, basoetan sortu diren soilgune horietan begi-bistan geratu dira garai bateko zoroak eta zelaia, gaztainadien aztarnak eta abereak zaintzeko erabilitako txabolak. Eta orain, ikusi ditzake gure aurrekoak naturarekin bat eginda, gure bazterrak zaintzen.

Horixe du poema batek, kanta batek: ezkutuko gauzak ikusi ahal izatea.

'Sacrum' kontzertua, Ganbarakoen eskutik

Ganbara Txikik, Ganbara Abesbatzak eta Hots Abesbatzak egingo dute emanaldia domekan, 19:00etan, San Miguel parrokian. Bazkide-kontzertua izango den arren, edozein musikazale joan daiteke emanaldira, sarrera zortzi euro ordainduta

Txomin Madina OÑATI

Gaur egun, 109 bazkide ditu Ganbara Faktoriak, eta bereziki horiei begirako kontzertua izango da domekan, hilaren 30ean, San Miguel parrokian eskainiko duten *Sacrum* izeneko. Askotariko musika erlijioso izango da bertan protagonista; honela azaldu du Ganbara Faktoriako zuzendari artistiko Aitor Biainek: "Errenazimenduko musika eta musika erromantikoa eskainiko ditugu, baina, bereziki, musika garai-kidea, XXI. mendeko musika eskainiko dugu".

Ganbara Txikik, Ganbara Abesbatzak eta Hots Abesbatzak hartuko dute parte zuzeneko emanaldian, eta, guztira, 100 inguru izango dira kontzertua eskainiko duten Ganbara Faktoriako kideak. Egungo egoerari ere egingo zaio keinua, Eliza Gylkinsonek idatzitako requiemarekin pandemia honetan joan direnei omenaldia egin gura diete-eta bertan.

Eta bazkide-kontzertua izango den arren, ez da bazkideentzat bakarrik izango: edozein joan daiteke, Txokolateixan, plazako txartel-makinan, *Oñati.eus* atarian edo kontzertuaren egunean parrokian sarrera erosita.

Pandemiaren eragina Faktorian Egungo egoerak berak Ganbara Faktoriaren martxan izan duen eraginaz ere egin dute berba. Konfinamenduaren eta neurri murriztaileen ondorioz, bertan behera utzi behar izan zituzten iaz aurreikusitako ekintza gehienak, baina ez ziren gelditu. Honela azaldu du Ganbara Abesbatzako lehendakari Oihana Diazek: "Ganbara Abesbatzan, gutxienez, zortea izan dugu,

ASKOTARIKO MUSIKA ERLIJIOSOA ESKAINIKO DUTE GANBARA FAKTORIAKOEK

Eusko Jaurlaritzak emandako identifikazio bat lortu genuelako. Eliteko abesbatza batzuk izendatu zituen, ditugun ezauzgarrien arabera, eta zortea izan genuen, entseatzeko jarraitzeko aukera izan dugulako. Dena dela, pandemia garairik okerretetan, itxialdian, esaterako, gure hainbat baliabide erabilita, entseatzeko beste modu batzuk aurkitu behar izan genituen".

Hala, izan aurrez aurre entseuekin izan online bidezko lan-ketari esker, hainbat emanaldi egiteko aukera izan zuten iaz; esaterako, *Uraren doinuak* eta *Lux* izeneko kontzertuak.

2021erako hainbat proiektu Aurtengo ere hainbat proiektu dituzte esku artean; hainbat lehiaketatan parte hartzea, *Total Bach* eta *Amalurra* produkzioen estreinaldia, *Oñati ezagutzen triki traka Oñatiko tren* egitasmoa eta Youtubean bideo profesionalak jasoko dituen Faktoria kanalaren sorrera.



Danel Casais, erdian, lasterketan irabazitako kopa eskuetan duela. MARTIN EARLY

Anoetako txirrindularitza proba irabazi du Danel Casaisek

COVID-19agatik egun asko ohetik ezin jaiki egon ostean, emozionalki balio handia eman dio garaipenari

Amaia Txintxurreta OÑATI

Duela bi aste pasatxo gainditu zuen guztiz COVID-19a txirrindularitzan junior mailan AMPO-Ikolan Sports taldearekin lehiatzen den Danel Casais oñatiarrak. Gaitzak nahiko gogor eragin zion, eta, horren ostean arrabilean jarri zen lehenengo egunean, sei minutu besterik ezin izan zuen iraun. Bigarrean, hogeira iritsi zen, eta, nahiz eta Anoetakoaren aurretik Segurako lasterketan lehiatu, hamabost kilometroren faltan, bularreko minagatik, bertan behera utzi behar izan

zuen lasterketa. Aurreko domekan, baina, irabaztea lortu zuen, Anoetan: "Lasterketa oso azkar hasi zen; gero, erdialdean, 50. kilometro inguruan, ihesaldi bat egon zen eta ni ere bertan sartu nintzen beste hamabi txirrindularirekin batera. Bertan sartu zen gure taldeko txirrindulari bakarra izan nintzen, baina ondo egin nien aurre erasoei. Gero, seiko talde bat gelditu ginen, eta, helmugara iristeko geundenean, esprintean irabaztea lortu nuen", azaldu du Casaisek. "Emozionalki asko poztu nau", gaineratu du.

Kirol begiraleen izenematea zabalik dago, martitzenera arte

Udalak begiraleak behar ditu ekainaren 28tik uztailearen 23ra bitartean egingo den kirol kanpainarako, eta dagoeneko zabaldu du eskaera jasotzeko epea. Eskaera-orriak eta behar den dokumentazioa ekainaren 1era arte –egun hori barne– aurkeztu behar dira Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan, modu presentzialean zein erregistro elektronikoa bidez.

Bete beharreko hainbat baldintza daude; esaterako, 16 urte beteta izatea lan-kontratua egiteko egunean. Baina badaude bete beharreko beste baldintza batzuk ere. Horiek guztiak Oñatiko Udalaren webgunean kontsulta daitezke.

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak, kantu berriarekin

Irailean argitaratuko dute *Hegaldiak* izeneko diskoa Iker Martinez eta Zaldi Herrenak-ek, baina aurrerapen bat kaleratu dute: *Dantzatu nirekin*. Martinezek azaldu duenez, abestia "maitasunak eta gauak bat egiten dutenean sortzen diren sentipenei" idatzita dago; momentu horretako zirrarrari, alegia.

Aurretik hainbat taldetan aritu izan den arren, Martinezek 2017an kaleratu zuen bakarkako lehenengo lana eta 2019an iritsi zen bigarrena. Orain, baina, hirugarren honetan, elkarlanean egin ditu kantuak: hain zuzen ere, berak sortutako melodia eta hitzak Zaldi Herrenak taldearekin "aberastu" ditu.



Aitor Biain eta Oihana Diaz, domekako kontzertua iragartzeko egindako aurkezpenean. TXOMIN MADINA

Komunikazio udaleku irekiak. 2021



- **Euskara** hutsean.
- Komunikazioaren mundura hurbiltzeko modu **kritiko, praktiko eta dibertigarrian**. Besteak beste, landuko dira: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu...
- Mondragon Unibertsitateko irakasleekin eta Goienako **profesionalekin**.
- Gainera, landuko diren gaietan ezagunak direnek emango dituzte master-eskolak:
Aiora Mujika @probatxoa youtuberra.
Ainhoa Vitoria komunikatzaile eta Gazteako irrati esataria.
Xabier Urzelai Goiena Komunikazio Taldeko kazetaritza-argazkigintzan aditua.

Anima zaitetz eta eman izena!



Noiz:

- Lehen txanda, uztailaren 5etik 9ra.
- Bigarren txanda, uztailaren 12tik 16ra.
- Astelehenetik ostiralera, goizez.

Non:

Mondragon Unibertsitateko
Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

Orduetgia:

09:00-13:30.

Norendako:

DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.

Izen ematea:

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.

Prezioa:

125 euro.

Izena emateko:

www.goiena.eus/bereziak/udalekuak

Informazio gehiago:



600 04 66 89



komunikazioudalekuak@gmail.com

ANTOLATZAILEAK:



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

goiena^{''}
KOMUNIKAZIO TALDEA



Malen Ruiz de Azua, martitzenean egindako azken lan-saioan; eguaztenean abiatu zen Poloniarantz. HASIER LARREA

Europako Txapelketara, marka pertsonalaren bila

ATLETISMOA Malen Ruiz de Azuak Espainiako selekzio absolutuarekin egingo du debuta bihar, Polonian (Chorzow). Zaragozan maiatz hasieran egin zuen marka pertsonala (4,47) ondu nahi du. "Eta Europako Txapelketan bada, askoz hobeto"

Xabier Urzelai ARRASATE

Urteko hitzordu garrantzitsuetako bat izango du Malen Ruiz de Azuak zapatuan Polonian (Chorzow). Arrasatekoarendako ez da gauza berria Europako Txapelketara joatea, junior eta 23 urtez azpiko kategorietan Espainiako selekzioan izandakoa da, baina, oraingoan, kategoria absolutuan egingo du debuta. "Pertika-jauzilari bakarrarendako zegoen tokia eta banekien oso lehia estua izango nuela Europako Txapelketan egon ahal izateko. Zorionez, nik lortu dut plaza hori; horrenbestez, bai, urteko helburuetako bat bete dut", adierazi dio aste barruan GOIENARI, Poloniarantz abiatu aurretik.

Marka pertsonala egin berri

Arrasatekoa Zaragozan egindako 4,47ko markarekin aurkeztuko da Chorzowko hitzordura, badaki sasoi onean dagoela. "Duela aste gutxi marka pertsonala egin izanak erakusten du

ondo nagoela. Gero, 4,51ko hainbat saiakera egin ditut, eta geratu izan dut helburua lortzea; begiz jota daukat marka hori, ederra izango litzateke Polonian lortzea!".

Hala ere, Ruiz de Azuak badaki ez dela helburu erraza izango. "Orain arteko akatsak lasterkako tartean egin ditut, bereziki, distantzia zaindu behar dut gehiago, eta Zaragozako txapelketan, esaterako, hori ez zen erraza, haizea zebilelako. Hori da zuzendu beharreko gauzetako bat, eta ondoren, airean nagoenean posturari dagokionez zuzenketa tekniko txikiren bat eginez gero, uste dut lor dezakedala marka hori egitea. Izan daiteke Polonian, bi aste barru

EUROPAKO ZORTZI PERTIKA-JAUZILARI ONENAK BATUKO DIRA BIHAR CHORZOW-N IZANGO DEN PROBAN

edo auskalo, inoiz ere ez, hala-koxea da-eta kirol hau".

Estrategiak ere garrantzia

Poloniako hitzorduan Europako zortzi atleta onenak batuko dira bihar pertikaren bueltan -arratsaldean izango dute txapelketa-: "Ibili naiz ikusten nortzuk egongo garen, eta dagoeneko badakit gutxi gorabehera non ibil naitekeen. Batzuen kontra lehiatu izan naiz, beste batzuk berriak dira niretzako, baina badakigu bakoitzak ze marka daukan".

Edozelan ere, oraingoan, estrategia ere garrantzitsua izango da. Izan ere, txapelketaren araudia ezberdina izango da Chorzowen. "Normalean, marka bakoitzeko balio gabeko hiru ahalegin egin genitzake, hiru nulu, baina Polonian ez da hala izango, txapelketa osoan, guztira, balio gabeko lau salto egin ahal izango ditugu; horrenbestez, ondo kudeatu beharko ditugu nulu horiek, garrantzitsua izango da hori".

Rezustak Artolaren kontra du finalerdia, bihar, Labriten

PILOTA Bi kanporaketa gaindituta, Bergarako pilotaria da Eskuz Banako txapelketako ezusteetako bat

X.U. ARRASATE

Eskuz banako txapelketako finalerako geltoki bat baino ez zaio geratzen Beñat Rezustari. Txapelketa hasieran inor gutxik aurreikusiko zukeen Rezustak halako bidea egin zezakeenik, besteak beste, Eskuz Binakakoan ez zuelako Olaizolarekin batera bere bertsiorik onena erakutsi, eta, bestela ere, Eskuz Banakakoan, historikoki, aurrelarien txapelketa izan delako; Patxi Ruiz izan zen tornea irabazi zuen azken atzelaria, duela ia 20 urte.

Edozelan ere, bergararra bertsiorik onena erakusten dabil; lehenengo kanporaketan, Oinatz Bengoetxeari irabazi zion (22-14), eta joan den astean, erreza berbera erabilia Elezkano kanporatu zuen (8-22); hala, Rezusta txapelketako ezuste positiboetako bat bilakatu da dagoeneko.



Beñat Rezusta. I.S.

Artola ere, maila oso onean

Bihar, zapatua (17:15, Labrit), Rezustak maila oso onean diharduen Artola izango du aurrean. Alegiako pilotariak Urruti kanporatu zuen lehen partiduan (22-7), eta Agirre ere etxera bidali zuen bigarren (22-18).

Bi derbi geratzen zaizkie, kontsolamendurako ez bada ere

FUTBOLA Aretxabaletak Bergara hartuko du bihar Ibarren, bosgarren postua dago jokoan

X.U. ARRASATE

Aretxabaletak eta Bergarak inoiz ez dute horrenbestetan elkarren kontra jokatu; *play-off*-ean biak mailaz igotzeko aukera barik geratu diren honetan, datozen bi asteetan elkarren kontra neuruko dituzte indarrak. Liga agurtzeko modua izango da, egin beharrekoak eginda daude, baina, kanporaketaren izenak berak gogorarazten duen moduan, kontsolamendu partidua geratzen zaizkie. Hala, finalerdietatik kanpora geratu diren taldeen artean daude bailarako biak, eta Zarautz eta Elgoibar dira beste bi taldeak; hain zuzen, lau taldeen artean bosgarren nor sailkatzen den dago jokoan. UDAK Bergara hartuko du zapatuan Ibarren (16:00).

Bestalde, mailaz igotzeko lehiandabiltza Añorga, Beti Gazte, Hernani eta Eibar.



UDAKo aurrelari Zaitegi. GOIENA

Mondrak Kopa agurtuko du

Arrasateko taldeak Kopako hiru partiduetatik bi galdu egin ditu, eta dagoeneko ez du ezer jokoan. Zapatuan jokatuko du azken norgehiagoka, Ordizian (15:30). Finala Amaiak Batek eta Murtikuk jokatuko dute.

Profesional izateko bidean beste urrats bat

PILOTA Astelehenean aurkeztu zuten, Leitzan, emakumezkoen pilota profesionalizatzeko abian jarri duten ekimena: Ados Pilota taldea. Gainera, Plazaz Plaza izeneko txapelketa aurkeztu zuten, eta Uxue Osés oñatiarra lehiatuko da hor

Xabier Urzelai ARRASATE

Gizonezkoen pilotan enpresen esku dago profesionalismoa, eta emakumezkoetan beste eredu baten aldeko apustua egin dute: kluba sortu dute profesionalismoa kudeatzeko, eta talde horrek Ados Pilota du izena. Oraingoan, hamahiru pilotari profesional izango ditu Ados Pilotak –tartean ez dago debagoiendarririk–, eta helburu garbiak dituzte: txapelketa gehiago jokatu nahi dituzte, lan baldintzak hobetu nahi dituzte, eta, guztiaren gainera, ez dute inoren menpe egon nahi.

Orain arte, besteak beste, Emakume Master Cup-ek eman die pilotari lehiatzeko aukera, eta aurkezpenean azaldu zuten oso eskertuta daudela halako torneoen eman dieten aukeragatik; baina ez da nahikoa, urte osoan zehar jokatu nahi dute pilotari. Hala, zehaztu zuten asmoa ez dela pilotari bizitzea, euren lanbideak dituztelako, baina bai baldintza hobeko jardutea.

Hala, kluba aurkeztearekin eta bertan izango diren pilotari berri ematearekin batera, ekainaren 4tik abuztuaren 14ra bitartean jokatuko duten txapelketa ere aurkeztu zuten asteleheneko agerraldian. Plazaz Plaza izango du txapelketak izena, eta, guztira, hamahiru jardunaldi izango ditu. Hain zuzen, pilotariak Euskal Herrian barrena ibiliko dira, eta Katalunian ere jokatuko dituzte zenbait partidua –Bartzelonan–.

Uxue Osés aukeratu dute

Esandako moduan, hamahiru pilotari zerrendan ez dago debagoiendarririk, baina klubean pilotari gazteak ere trebatu nahi dituzte, eta Uxue Osés dago aukeratuen artean. Hala, Oñatikoarekin batera beste bi pilotari gazte izango dira txapelketan, Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu.



Uxue Osés oñatiarra 2019an Emakume Master Cup irabazi zuen. IMANOL SORIANO

"Poz handiz hartu dut Ados Pilota taldearen gonbidapena"

UXUE OSES ALOÑA MENDIKO PILOTARIA


Uxue Osés (Oñati, 2005) ekainaren 24an egingo du Plazaz Plaza torneoan debuta, eta Amaia Aldai bizkaitarrarekin osatuko du bikotea.

Zelan hartu duzu Ados Pilota taldearen sorrera?

Poztasun handiz. Gaur egun, oso gustura dihardut Aloña Mendin; kadete mailako mutilekin entrenatzen naiz, gazte mailakoek jada indar handiagoa dutelako eta igarri egiten delako aldea. Emakumezko askori gertatzen zaie horregatik pilota utzi behar izaten dutela, ez dutelako norekin jokatu, entrenatu... Arazo hori konpontzera dator, besteak beste, Ados Pilota.

Plazaz Plaza txapelketan izango zara.

Eta oso pozik nago. Ados Pilotari egoteko adinez nagusi



U.O.

izan behar da, eta nik 16 urte ditut. Baina Plazaz Plazan hiru pilotari gazte aukeratu dituzte, eta ni nago tartean. Ilusio handiz hartu dut gonbidapena. **Abuztuaren 14ra bitartean, agenda beteta izango duzu.** Bai; partidua dezente izango ditugu, eta hori da helburuetako bat, gizonezkoek jokatzeko dituzten aukerak izatea. Gutxienez, bost jaialditan izango gara, eta, partiduak irabazten baditugu, aurrera egingo dugu.



Jokin Zeziaga eta Xabier Gorroñogoitia. GOIENA

"Mondratek badu maila Hirugarren Mailan lehiatzeko"

ARETO FUTBOLA Zeziagak eta Gorroñogoitiak denboraldiaren errepaso egin zuten 'Harmailatik'-en

X.U. ARRASATE

Euskal Ligan lider zegoen Jarrillerosi azken jardunaldian liga irabazi eta gero, astelehenean, Mondrateko jokalaria Jokin Zeziaga eta Xabier Gorroñogoitia Harmailatik saioan izan ziren. Denboraldiaren gaineko errepaso egin zuten, eta etorkizunari begira ere jarri ziren. "Taldea oso ondo amaitu du liga, indartsu. Egia da ez zela aurreikuspenetan sartzen liderrari bere kantuan 0-6 irabaztea, baina gure meritua izan zen; Jarrilleros ezustean harrapatu genuen, ez zuten halakorik es-

pero, inondik inora", azaldu zuten Zeziagak.

Datorren urteari begira

Xabier Gorroñogoitia, berriz, datorren denboraldiari begirako hausnarketa egin zuten: "Ustedut talde lehiakorra daukagula eta datorren denboraldian, mailaz igota ere, lan oso txukuna egin dezakegula. Talde hobek izango ditugu aurrean, seguru, baina jokalaria hauekin igo gara mailaz eta ez dugu aldaketa handirik aurrekusten. Hori bai, oraindik goiz da helburuen gainean berba egiteko".



SESTAO TRIATLOI TALDEA

Espainiako txapeldun taldeka

DUATLOIA Valladoliden egin duten Espainiako Duatloi Txapelketan, Bigarren Mailan, Sestao Triatloi Taldeko neskek nabarmendu dira, eta tartean izan dira bi debagoiendar, Miren Josune Bikufia oñatiarra –behean, erdian– eta Miren Apraiz arrasatearra –goian, ezkerretik bosgarrena–.

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO Donostiako Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegian (Musikene) Musika Pedagogia ikasketen bigarren maila bukatu berri du Idoia Asurmendi Garciak (Aramaio, 2000). Etxeko instrumentuekin jolasean hasi zen haurra zela, eta, harrezkero, musika izan du zaletasun eta bidelagun. Musikari profesionala izateko bidean urrats garrantzitsuak egiten ari da; *Ilun eta abar* lehen lana argitaratu zuen apirilean, eta antzokiak betetzen ari da.

Zer moduz zaude?

Pozik; aste honetan amaitu ditut azterketak, eta lasaiago nago orain. Urte gogorra izan da: eskolako lanak, diskoa, kontzertuak... Musikenen gustura nabil, baina atseden beharra dut; izan ere, uda ere lanpetua izango dut, kontzertu askorekin.

Musikenen ikastea gogorra da?

Beste edozein ikasketak bezala, esango nuke, nahiz eta egia den instrumentuarekin, nire kasuan pianorekin, ordu asko sartu behar direla. Musika Pedagogia ikasketetan ikasgai asko ditut, teorikoak batzuk eta praktikoa-goak besteak; hortaz, liburu artean ere ordu batzuk egin behar izan ditut. Eskolako lanak bukatu ditugu, baina etxean lanean jarraituko dut, bereziki pianoarekin, irailerako prest izateko.

Eskola zurruna ematen du kanpotik; hala da barrutik ezagututa ere?

[Barre] Estetikoki serioa da, bai, beltza eta handia da eraikina. Musikariok diziplina handia dugu, eta hala izan behar duela uste dut; egunero lan egitea beharrezkoa da, baina, aldi berean, musikariok oso parrandazaleak ere bagara. Instrumentuen ikasleen artean lehiakortasun puntu bat dagoela sumatzen da,

"Piramidearen puntan dauden musikariek asko lagundu didate"

IDOIA ASURMENDI GARCIA MUSIKARIA

Abiada handian doan Aramaioko musikariak 'Ilun eta abar' lana aurkeztuko du bihar, zapatua, 19:00etan, Arrasateko Amaia antzokian; sarrera guztiak agortuta daude

eta hori ez zait gustatzen, baina zortea daukat, nire espezialitatean giro oso polita dugulako.

Ikasketak eta kontzertuak direla-eta lagunekin egoteko astirik baduzu?

Iaz, ez nuen oporrik izan, eta aurten, gogoa eta beharra dut atseden hartzeko; hortaz, egun batzuk gorde ditu kuadrillakoekin oporretara joateko, garrantzitsua da hori niretzako.

Sare sozialetan egin zinen ezagun, 2019ko abuztuan, Berri Txarrak taldearen *Katedral bat* kantuen bertsioarekin. Espero zenuen geroago etorri den guztia?

Asmo handirik barik igo nuen bideoa, eta harrিতa geratu nintzen izan zuen harrerarekin. Hari esker, proposamen asko egin dizkidate geroago; Fernando Velazquez konpositoreak, esaterako, hala ezagutu ninduen.



Asurmendi eta taldekideak, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. EIDER BALLINA

Musikari eskarmentudunak alboan

Aretoaren arabera, askotariko emanaldiak egiten ditu. Aurreko astean, akustikoan eskaini zuen, Joanes Ederrarekin; bihar, zapatua, Andoni Garcia, Karlos Aranzegi eta Nacho Soto ere Amaia antzokiko taularen gainean izango ditu Asurmendik lagun.

Azkeneko bi urteetan asko aldatu da zure bizitza; zertan, adibidez?

Aramaiotik Donostiara bizi izatera etortzea sekulako aldaketa izan da. Orain dela bi urte, Euskal Herriko Gazte Abesbatza hasi nintzen, eta orduan hasi zen nire bizitza aldatzen. Lagun berriak egin nituen, eta laguntalde horrek asko lagundu dit Donostiako etapa honetan; inguruan dudak jendea da orain gehien baloratzen dudana. Kutxa Kultur beka irabazteak ate asko zabaldu dizkit; pentsa, orain dela bi urte, Aramaion eta inguruetan beste talde batzuen bertsioak egiten nituen bakar-kako akustikoetan, eta, gaur egun, areto handietan eta puntako musikariek ari naiz.

